

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-03-06  
EGUBAKOITZA  
631. ZENBAKIA  
15. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM

Sarreraren  
ordainetan  
elikagaiak,  
saskibalo  
partiduan | 12

Arrasate  
pasealekuaren  
itxieraren  
aldekoak eta  
kontrakoak | 9

UDABERRIKO PROGRAMAZIOA  
Goiena telebistaren berrikuntzak | 2



Istar Dapena eta Sara Gomez  
Espainiako txapelketara | 28



Euskal monologistek itxiko dute  
Espaloiko Monologo Mostra | 30

Kiroldegiko  
koordinatzaile Igor  
Arenatza, eguaztenean,  
Ibarra kanpoan.

## Ibarra kiroldegiaren ibilbide berria

Igor Arenatzaren gidaritzapean dago  
otsaila ezker Aretxabaletako kirol instalazioa | 8



JAGOBA DOMINGO

## Aramaioren burujabetza helburu duen ekimena

Bihar, zapatua, goiz  
osoan ekitaldiak  
izango dira | 24

# Martxoaren 8aren bueltan jaia eta borroka

Ospakizun kutsuko ekitaldiek bat egingo dute, besteak beste, berdintasunik eza  
eta indarkeria matxista salatzen ekintzekin, aste bukaeran hasita | **ikus. 'Herriak' saila**

## puntua

MARTXOAREN 12AN,  
EGUENA,  
IRAKURLE GUZTIOK  
JASOKO DUZUE  
GOIENAREN  
ALDIZKARI BERRIA:  
**PUNTUA**

goienakluba

## SINADURAK

	ENEIDA ITURBE   6
	6   UBANE MADERA
	ENEKO FERNANDEZ   10
	15   JOSE LUIS MADINAGOITIA
	MAIALEN MADARIAGA   18
	22   PALOMA MARTINEZ
	ANDER ELORTONDO   24
	38   MIKEL IRIZAR



ZURE BIGARREN  
LEIAR PROGRESIBOAK

**OPARI**  
**VARILUX**

ERABATEKO BABESA

[www.multiopicasgipuzkoa.com](http://www.multiopicasgipuzkoa.com)

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

# Kimu berriak Goiena telebistan

Bertan ekoiztutako programa guztiak nahi-ahala ikus daitezke, munduko edozein puntutatik 'Goiena.eus' atarian

**G**oiena telebistan hasi dute udaberriko sasoa, udazkenean eta neguan landatutako uztaren fruituekin. Programazio borobila da emaitza, bertako eta urrunagoko produktua, berriak eta klasikoak, guztiak ere euskaraz eta herrikoak. Berritasunekin etorri da, esaterako, *Harira* saioa, Debagoieneko alkateekin, eskualdeko bederatzi herrien errepasoa egiten duena. Gertutasun handiko programa izanik, ahalegin berezia egin du saioa platotik atera eta herrietan bertan lantzeko, kokaleku esanguratsuetan, formatu erakargarriagoarekin...

Berritasunekin etorri da, baita ere, *Berriak*. Egunerokoa pantailla txikira eramaten duen saioa. Kasu horretan, aurpegia eta gidaria ditu berri, lehenagotik ere ezagun askoa: Goiatz Arana.

Eta berritasunekin etorri den beste programa bat *Amaia DJ* da, gazteen musika eskaerak ipar

dituena. Denboraldi honetan euskal taldeetako artistek ere parte hartzen dihardute: musikariak euren gustuko euskal talde baten bideo klip eskaria egingo dute gazteen artean euskal musika sustatzeko helburuarekin.

Bestalde, klasikoei dagokienez, *Harmailatik* da, duda barik, klasikoena, Xabier Urzelaiaren gidaritzapean, 15 urteotan kirolei tarte zabala eskaintzen diena.

Eta guztiari osotasuna ematen dio *Debagoiena zuzenean* programak, egunerokoa bestelako ikuspuntu batetik lantzen duenak, Txomin Madinaren eskutik.

## 'KANPOKO' SAIOAK

Bestalde, bestelako euskarazko tokiko telebistetan ekoiztutakoak ere ikus daitezke Goiena telebistan: *Idemtitateak*, *Ertzak* eta *Sagarrondotik* erreportaje formatuan; *Berbetan* eta *Ikusi Irratia* elkarrizketa eran, *Onein* eta *Ur eta lur* saio beterranoak...

## 'Galdegazte', ikasle-kazetariak ezagunei galdezka

Gatibu, Hesian, Zea Mays... taldeetako abeslariak gazteekin elkarrizketan

**H**amar ikastetxe, bederatzi udal eta 30 gazte. Horiexek dira *Galdegazte* saioaren zuztarrak, otsailaz geroztik ikusgai dagoen Goiena telebistako programa berriarenak.

Gazteentzat eta gazteek eurek egindako saioa da. Hain justu, ibarreko 14 eta 18 urte bitarteko ikasle-kazetari gazteon zeregina da Euskal Herriko pertsonaia ezagunak elkarrizketatzea telebistako platoon.

Eta bide horretan laguntzeko, *Zela gertatu elkarrizketa bat telebistarako?* izeneko ikastaro trinkoa jaso dute Goienako Miren Arregi kazetariaren eskutik. Galdera egokiak zelan egin, elkarrizketa prestatzeko zein urrats jarraitu...

## FUTBOLA, MUSIKA...

Mikel Gonzalez Realeko futbol jokalaririk arrasatearra; Esne Beltza taldeko abeslari Xabi Solano; Ainhoa Sanchez aurkezle aretxabaletarra, Zuriñe Hidalgo Hesian taldeko abeslaria, Alex Sardui Gatibukoa, Aiora Renteria Zea Mays taldekoa... dira gazteen galdera zorrotzak erantzuten jardun eta jardungo duten pertsona ezagunetako batzuk; gazteek eurek aukeratu dituztenak. Eta horrela, hamar elkarrizketatu pasatuko dira Goienako platotik, hamar saio ekoiztu dituzte-eta.

*Galdegazte* otsailaren 18az geroztik emititzen dihardu Goiena telebistak, eguaztenero, 22:00etan.



**'BERRIAK'** "Debagoienean gertatzen diren gainean lupa jartzen duen saioa da *Berriak*. Kate handientzat kontu "txikiak" izaten dira maiz, baina garrantzitsuak debagoiendarren egunerokoan; kaletik etxera eramaten dizkiegu guk".

**Ordua:** 14:30, 16:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:00 eta 00:30. **Eguna:** Eguneroko.



**'HARIRA'** "Debagoieneko alkateekin azken erronda egiten gabiltza. Agintaldiak eman duena, egindakoa eta egiteke geratu dena; herriko proiektu inportanteenak; azken udal aurrekontuko inbertsiorik aipagarrienak... Alkateekin, herritik bertatik".

**Ordua:** 22:00. **Eguna:** Martitzenero.



Iban Arantzabal -Goienako zuzendari nagusia- eta Inazio Azkarragaurizar -Arrasateko alkatea-atzo.

## Arrasateko artxiboa, digitalizaziora

Arrasate Telebista (ATB) sortu zela 25 urte bete dira aurtan

**H**erri telebista lantzen mende laurdeneko jardunak ematen duen artxibo aberatsa baliatuta, hainbat ekimenen antzinako irudiak berreskuratzen hasi dira Goiena telebistan: Arastueak, Arrasateko playback

jaialdi mitikoa, Korrika... *Goiena.eus*-en ere zintzilikatuta daude bideoak. Eta oso harrera ona eskuratu du proposamenak. Gainera, bertako historiaren erakusgai diren bideoak digitalizatzen dabilta, haien biziraupena

ziurtatzeko. Atzo, eguena, hitzarmena sinatu zuten Arrasateko alkateak eta Goienako zuzendariak Arrasateri dagokion material grafikoa zein bideo-irudiak Udalak digitalizatu eta Arrasateko artxiboari gehitzeko.



**'DEBAGOIENA ZUZENEAN'** "Urtea bete berri du; gairik gai, herririk herri eta protagonistaz protagonista ibili gara, egunero, Debagoieneko gaurkotasuna eta aniztasuna erakusteko. Eta horretan jarraituko dugu: bertakoak eta urrunagokoak lantzen, beti eskualdeko ikuspuntuarekin".

**Ordua:** 20:00, 21:00, 22:30, 00:00. **Eguna:** Egunero.



**'HARMAILATIK'** "Gainontzeko telebista kateetako kirol saioen eskaintza zabala da, baina *Harmailatik* saioan bailarako kirolariak eta lasterketak eta txapelketak jarraitzeko apustua egin genuen aspaldi, beste medioetan gutxitan azaltzen diren kirol jardueri lekua eginda".

**Ordua:** 22:00. **Eguna:** Astelehenero.



**'GALDEGAZTE'** "Gazteendako hutsunea betetzera dator, desberdina eta interesgarria. Elkarriketatuak Euskal Herriko aurpegi ezagunak izanik, interesa bikoitza da. Ikusleak elkarriketatua ikusi gurako du, baina baita elkarriketatzailen lana ere; freskoa eta naturala".

**Ordua:** 22:00. **Eguna:** Eguaztenero.



**'AMAIA DJ'** "Gazteek eskatutako bideo klipak jartzen ditugu. Gustuko bideo klipak eskatzen dituzte hiru bideetatik: Whatsapp bitartez 688 69 00 17ra mezuak bidalita, Twitter bitartez @amaiadj helbidera idatzita eta Tuentitik DJ Amaia Txintxurreta-ra idatzita".

**Ordua:** 22:00. **Eguna:** Eguenero.

# Eguraldiak eta euskarak txoko bereziak dituzte

Pello Zabala beteranoa da zeregin horretan, eta Leire Narbaiza nobedade

**E**uskalduna izatea oso gogorra da batzuetan: zenbat zalantza, zenbat filologo frustratu, zenbat erdaldun elebarkar! Bada, euskaldun izate horretan laguntzeko edo, bestela esanda, euskararen inguruko aholkularitza emateko du bere txokoa Marimaistrak (Leire Narbaiza eibartarra) Goiena Telebistan.

Nahi duenak hizkuntzarekin sortzen zaizkion zalantzak, galderak... bidal diezazkioke Marimaistrari, bide hauek erabilita: [galdetu@marimaistra.com](mailto:galdetu@marimaistra.com) helbidera idatzita, 668 88 91 92 zenbakira *whatsapp* bat bidali edo @*mari\_maistra* Twitter kontura.

## EGUAZTENERO BERRIAK

Euskararen aholkulariak gustura handiz erantzuten ditu jasotzen dituen galdera guztiak; izan ere, Marimaistra oso eskuzabala da, eta izugarri gustatzen zaio euskaldunei laguntzea. Baina hori bai, jenio bizi-bizia du, eta batzuetan ateraldi xeble samarrak. Kontuz gero, zer eta nola galdetzen diozuen, erantzunak ere halakoxeak izango baitira!

*Debagoiena zuzenean* saioan eguaztenero estreinatzen dira euskararekin lotutako Marimaistraren aholkuen gaineko bideo berriak.



Pello Zabala, eguraldiaren mapak interpretatzen.



Marimaistra, ikus-entzuleen galderari erantzuten.

## PELLO ZABALA, EGUNERO

Bestalde, esan beharrik ez dago eguraldiak gaur egungo bizimoduan, aisialdia antolatzeko orduan, pertsonen arteko elkarriketetan... duen eragina eta protagonismoa, geroago eta handiagoa. Eta zeregin horretan, Euskal Herrian eta urte luzez bertako komunikabide askotan, zein baino zein ezagunagoa da Pello Zabala frantziskotarra (Amezketan, 1943).

Bada, Arantzazuko eguraldi adituak eta zaleak Goiena telebistan egunero egiten du bere irakurketa Goiena telebistako ikus-entzuleendako (*Goiena.eus* atarian ere kontsulta daiteke). Frantziskotarrak aukera ematen du, baita ere, tenporak, bolada jakinen batean egindako euri-kopurua... eta eguraldiarekin lotutako intereseko informazioaren gainean galdetzeko.

Bitxikeria moduan, Pello Zabala berak grabatzen du egunero Goiena telebistan emititzen den bideoa (*selfie* eran). Eta erabiltzen dituen mapak ere berak aukeratuak izaten dira. Kasu horretan, Alemaniakoak erabiltzen ditu.

# Lur-jausi ikusgarriak, baina kalte larririk ez

## Eskoriatzan, AP-1en eta Bergarako enpresa baten izan dira

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA  
Joan diren egunotako euri-jasen ondorioz, hainbat lur-jausi izan dira Debagoiengan. Bereziki bik izan dute eragin nabarmena.

AP-1 autobidean martitzenean gertatu zen luizia, 13:00 aldera, Eskoriatzako lurretan, 121. kilometro-puntuan Gasteizerako norabidean, hain zuzen ere, eta, horren

ondorioz, autobidea itxi egin behar izan zuten bi norabideetan. Segurtasun Sailak aditzera eman zenez, Gipuzkoarako norabidea ere ixtearen arrazoia izan zen lur-jausi gehiago izateko eta erre horretaraino ere iristeko arriskua ikusi zutela.

Makina hondeatzaileak eta berehala hasi ziren jausitakoa



TTTko gerente Imanol Larrañaga, harkaitza nondik jausi zen erakusten. | L.K.

kentzen; horrela, eguaztenean, bi noranzkoetan bide bana ireki ahal izan zuten. Foru Aldundiko Mugikortasun Sailak oraingo ez daki noiz arte egongo den errepide zati hori egoera horretan.

### Oraindik garbitu gabe

Bergarako San Juan auzoko TTT enpresan astebete daroate lur-jausiaren ondorioekin: pabiloi berrian, atzeko paretako zati bat behera bota zuten 100 tona harkaitzek, eta hori kentzeko lanak

astehenean hasi nahi ditu enpresak, eguraldi onak laguntzen badu.

TTTko gerente Imanol Larrañagak dioenez, enpresaren eguneroko lanean ez du eragiten lur-jausia gertatu izanak. Kalte materialak izan dituzte: bezero batzuekako pieza batzuk apurtu dira, baina bezerok jarrera ona erakutsi dute eta ulerker azaldu dira. Orain, ingeniariak proiektua egin behar dute, pabiloi atzeko harkaitzari eusteko.



Herritar taldea, prentsaurrekoan. | JULEN IRIONDO

## Euskal estatua "denok hobeto bizitzeko" dela aldarrikatu du debagoiendar talde batek

JULEN IRIONDO | BERGARA

Debagoieneko herritar talde batek agerraldia egin zuen eguenean Bergaran, euskal estatua helburu duen *euskal bidea* delakoa aldarrikatu eta EH Bilduk zapatuan Barakaldoko BECen egingo duen ekitaldi nazionalera deitzeko.

Adierazi zuten *euskal bidea* erabakiz erabaki egiten dela,

herriz herri, lantokiz lantoki eta eskolaz eskola, Espainiako eta Frantziako estatuek "egiten dutenari edo egiten ez dutenari begira egon gabe".

Euskal bidea eta euskal estatua "denok hobeto bizitzeko" proposamena direla eta muga bakarra euskal herritarren gehiengoaren nahiaren errespetua dela gaineratu dute.

## Langileak, laguntza eske

Galvanotecnia y Derivadosko langileek elkarretaratzea egin zuten eguenean Bergarako udaletxe parean, herritarrei eta udal gobernariari laguntza eskatzeko. Hilaren 2a ezker greban daude eta salatzen dute zuzendaritzak ez duela negoziatu nahi. "Dagoeneko hirugarren nomina zor zaie, eta egoera gaiztotzen ari da", diote langileon ordezkariak.



GOIENA

## Bide juridiko berriak irekiko ditu Ordaindu elkarteak

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Batzar informatiboa egin zuen martitzen goizean Ordaindu elkarteak Arrasateko Kulturaten. Goraino bete zen areto nagusia.

### Moziok aurkeztu dituzte

Elkartearen egoera ekonomikoaren berri izan zuten bazkideek. Gero, Ordainduko zuzendaritzak azaldu zuen udaletan moziok aurkezte delako azken asteotako ekintza nagusia. Arrasaten, Eskoriatzan eta Aramaion onartu egin zituzten moziok, eta atzo, egue-

na, Aretxabaletan aurkeztekoak ziren. Oñatin, Bergaran eta Legazpin aurkeztuko dituzte hurrengo. Ordainduko Klara Elkorobarrutiak esan zuenez, geratzen direnek moziok onartzen dituztenean,

**"Oso garrantzitsua izango litzateke Korporazioarengana jotzea udalek"**

"oso garrantzitsua izango litzateke" udalek eurek Mondragon Korporazioarengana jotzea.

Asmoa dute ere Mondragon Korporazioko Javier Sotil, Agustín Markaide eta Javier Goienetxearekin biltzea, eta baita Urkullu lehendakariarekin eta gainerako alderdi politikoekin ere.

### Lege-kabinete berriarekin

Mondragon Korporazioaren batzorde iraunkorrak udazkenean esan zuen ezin zituela Ordainduren eskaerak bete, eta horrek utzitako

egoeraren inguruko azalpenak ere eman zituzten. Fagor Etxetresnak CNAk erosi ostean fase berri baten sartu da Ordaindu, eta kabinete berri batekin bide juridiko berriak irekitzeko asmoa dutela azaldu zuten, erantzukizunak Mondragon taldeko eta Fagorreko zuzendariak eskatzeko.

### Itxaropentsu

Batzarra amaituta, gustura ziren kideak. "Bukaera ona izango duen honek? Nik uste dut baietz. Arrazoia dugu guk, eta arrazoia baduzu eta azkenera arte ekiten badiozu, gauzak ateratzen dira", zioen emakume batek.

## 'Porrota, arrakastaren ernamuina', Komunikaldian

KOMUNITATEA GOIENA  
HUHEZI (MU) | ESKORIATZA

Martxoaren 11n, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean Komunikaldia jardunaldiaren 10. edizioa egingo da. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatzen duen jardunaldiak porrotaren gaia jorratuko du, hain zuzen ere, komunikazio eta ikus-entzuzko proiektuen porrotetatik atera daitezkeen irakaspenak eta, ondoren, berriro ahalegintzeak duen garrantzia. Komunikazioarekin zerikusia duten lagunek emango dute testigantza.

Parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute posta elektronikoz ([harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)) edo telefonoz (943 71 41 57).

Egitaraua hau izango da: 09:15-09:30: Aurkezpena eta ongietorria Jon Altunarekin (Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademikoa); 09:30-10:00: Mikel Orobengoa, (ISEA kooperatibako zuzendaria); 10:00-10:30: Gotzon Sanchez (aktorea); 10:30-11:00: Pablo Malo (zine zuzendaria eta gidoigilea); 11:00-11:30 Atsedena; 11:30-12:00: Asier Altuna (Txintxua Films ekoiztetxeko partaidea); 12:00-12:30: Juanjo Brizuela (erakundeetako komunikazio araditua); 12:30-13:00: Iban Garate (komunikatzailea. Traola-Sormena & Media); 13:00-13:30: Galderak.

## Gipuzkoa Garaile ekimena aurkeztu dute

L.K. | DEBAGOIENA

Gizarte zibiletik, eta ez erakundeetatik sortu da Gipuzkoa Garaile taldea; lurraldeko pertsona esanguratsuek osatzen dute, tartean hainbat debagoiendarrek. Astelehenean aurkeztu zuen bere burua, Donostian. Taldekideok gogoa egin dute Gipuzkoaren orainaz eta etorkizunaz, eta "lurraldeak dituen errorei arrakastaz eusteko behar diren tresnez", euren esanetan. Asmo-deklarazioa Juanjo Alvarez irakasleak egin zuen. Bertan jasotzen da honako helburu hau: Gipuzkoaren ekonomia-ehuna bultzatzea. Bailarako kideen artean daude Jose Mari Aitzega, Xabier Berasategi, Iñaki Espartza, Mari Carmen Gallastegi, Imanol Larrañaga, Eduardo Zubiaurre eta Lander Beloki.

# puntua

**MARTXOAREN 12AN, EGUENA,  
IRAKURLE GUZTIOK  
JASOKO DUZUE  
GOIENAREN ALDIZKARI BERRIA:  
PUNTUA**



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

## ZABALIK

ENEIDA ITURBE  
goiena.eus/komunitatea/

## Herri txiki, infernu handi?

**H**erri txiki batera joan eta bertako jendearekin berba egin. Xelebreak eta maitagarriak, gazteak zein nagusiak. Herriaren historia osatzen duten istorioak jaso eta umorez bustirik lau haizeetara zabaldu. Ideia sinplea, baina bikaina telebista saio baterako.

2013an Kataluniako telebista *El foraster* programa ematen hasi zen. Aurkezleak, Quim Masferrerrek, mila biztanle baino gutxiagoko herri bat bisitatzen du eta 48 orduan bertako jendearekin berriketan egiten du, eta egonaldia monologo batekin bukatu. Urte eta erdian 15.000 kilometro egin ditu bere *pick-up* laranjarekin, eta 20 bat herri bisitatu.

Bidelagun ugari izan ditu pantailaren bestaldean. Tartean ni neu. Kapitulu bat bera ere ez dut galdu. Eta lehena bukatu orduko Euskal Herrira guztiz esportagarria zela seguru nengoen. Hala, gustura entzun nuen ETB1ek antzerako saioa egingo zuela. Programaren izenak, baina, harritu egin ninduen: *Herri txiki, infernu handi*. Errespetuz eta maitasunez tratatzen ditu herriak eta herritarrak *El foraster*-ek, eta euskal izenburuak kontrakoa iradokitzen zuen.

Joan zen aste bukaeran Antzuolan izan nintzen eta domekan esaera zaharraren alde edo kontra egingo zuen jakin-minarekin eseri nintzen telebista aurrean. Bi kapitulu eman zituzten, eta, zatika bakarrik ikusi ahal izan nituen arren, etxean *El conquis*-en jarraitzaile amorratua daukagu-eta, lasai geratu nintzen. Mikel Pagadik eta Zuhaitz Gurrutzagak, Quim Masferrerrek bezala, umore eta errespetu dosia ondo kalkulatzeko dutela iruditu zitzaidan. Bestalde, bertsoak gehitzeak nortasun propioa ematen dio saioari.

Urtarrilean hirugarren denboraldia hasi zuen *El foraster*-ek. Katalunian mila biztanle baino gutxiagoko bostehun bat herri daude; beraz, kilometro asko egiteko aukera dauka oraindik Quimek. Mikelek, Zuhaitzek eta Sebastianek ere haren bidea jarraitzeko aukera izatea espero dut!

**"Umore eta errespetu dosia ondo kalkulatzeko dute saioan"**

## USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.eus

## Euskarazko ipuinen kalitatea

**H**asieran haluzinatu egin nuen. Denborarekin, geroago eta gutxiago. Gaur egun, apenas eragiten dit. Hala ere, lotsagarria dela uste izaten segitzen dut, eta jakina, zer pentsatua ematen dit umeendako euskarazko ipuin askok duten kalitateak (gaztelaniazkoen berririk ez daukat). Batez ere, gramatika akatsak ikustea tokatu izan zait erosi ditudan hainbat ipuinetan. Itxura guztien arabera, itzulpen okerraren ondorio dira. Ez zait inporta. Ustez, ipuinak dira umeek irakurzaletasunarekin duten lehen harremana; baita idatzizko zein ahozko hizkuntzarekin ere. Eta ipuinetan erabiltzen den euskara okerra bada... zela esplikatu gero euskara zaindu eta ondo erabili behar dela?

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Irismena, onarpena, eragina

Mikel Irizar  
http://goo.gl/zNNRTx

Euskal hedabide asko –tokiko gehienak– euskararen aldeko mugimenduaren bultzadaz sortuak dira eta hizkuntzaren normalizazioaren eragitea dute lehentasun.

Ondorioz, ahalik eta unibertsalen bihurtzea da haien helburua: zenbat eta herritar gehiagorengana iritsi, orduan eta euskarari mesede handiagoa.

*Arrasate Press*-ek jarri zuen eredua. "Betiko euskaltzale militantea baino gehiago euskalduna gogoan", abiatu zen aldizkaria, eta bi urteren buruan 7.000 aletik gora banatzen zituen –doaneko harpidetzan– 25.000 biztanleko herrian.

Hau da, ia etxe guztietan sartzen zen euskaraz, euskaldunak oraindik erdia inguru zirenean.

Eta arrakasta ez zen Arrasatera mugatu: 90eko hamarkadan 50etik gora toki

aldizkari sortu ziren, guztiak euskaraz.

Horien irismena neurtu zuen Aztiker-ek 2007an Euskaltzaleen Topagunearen enkarguz hamaika toki aldizkariaren esparruan, populazio osoaren lagin ausazko eta handi bati galdetuta.

Bertan, "sarbide edo irismenez" galdetuta, batez beste %50 ingurukoa zen populazio osoarekiko eta %70 ingurukoa elebidunekiko.

Irismen horren kalitateaz –hedabideok lortzen duten onarpenaz– bi datu: hartzaileen batez besteko nota zen 7,5etik gorakoa kasu guztietan; eta %85ak uste zuen ildo editorial plurala dutela.

Enpresa berak 2012an Goienaren gainean galdetuta, ia herritar guztiek (%96,8) eskualdearentzat beharrezkoa edo oso beharrezkoa kontsideratzen dute, baita euskara ulertzen ez dutenek ere.

Irismenak eta onarpenak ba ote dute eraginik euskararen normalizazioaren ikuspegitik? Topagunearen azterketan galdetutako etxeen %84an

tokiko komunikabidea zen etxe horretan sartzen zen euskal hedabide bakarra.

Areago, MUren doktore tesi batek 2013an Gipuzkoako nerabeei galdetu zien ea ikus-entzunezkoak zein hizkuntzatan kontsumitzen dituzten: %14,2 izan zen euskararen batez besteko parte.

Baina Debagoienean %39,4 zen, Goierriin %31, Urola-Kostan %26, eta Debarrenean %21,4.

Hau da: toki komunikabideen garapenak zuzenean handitzen du gazteengan ikus-entzunezkoak euskaraz kontsumitzeko joera.

Beraz, nire ustez zuzena da erakundeek Euskara sailek aldagai hauei lehentasuna ematea euskal hedabideen artean diru laguntzak banatzerakoan.

Ebaluazio sistema egoki eta adostu bat behar da orain.

Hortik aurrera, sektoreko enpresek dituzten egiturazko premiei edo bilakaerari laguntzea beste sail batzuei dagokie, Ekonomiari edo Berrikuntzari. Ordua da urrats hori egiteko.

Gutunetan, karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefona. Gutuna helarazteko: Otlora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otlora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Zoritz Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otlora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otlora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otlora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale

LAGUNTZAILEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritza**  
**diruz lagundutako**  
**aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# JEXUSMARI BORROKAN ARI DA “B” DOKTOREAREN AURKA

“B” kontabilitatea, BEZik gabeko salmenta-kanpainak eta “black” txartelak eguneroko ogia ditugun honetan, Jexusmari ausartu da terminal fiskal bat instalatzera taxian.



Kamera  
ezkutuaren  
bideoa



◀ Jexusmari Ubarretxena (Donostiako taxilaria)



“A” gizartea lortzeko

**ZATOK EKONOMIA  
GARDENERA**

Ausarten eta super-ausarten bila ari gara  
[www.ekonomiagardena.eus](http://www.ekonomiagardena.eus)  
#ekonomiagardena



*Gipuzkoa*  
BERRIA

# HERRIAK

ARETXABAETA

## Kiroldegiaren lehen pausoak etapa berrian

Tarifek behera egin dute Udalak hala erabakita, otsailean kudeaketaren ardura hartu zuenetik

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Otsailaren lehen batera hasi zuen ibilbide berria Ibarra kiroldegiak. Udalak bere gain hartu zuen haren kudeaketa, eta Athlon kooperatibari eman zion kirol jardueren ardura eta Comercial de Limpieza Villar enpresari garbitasun lanena. Hori guztia koordinatzeko ardura, ostera, Igor Arenatzak hartu zuen. Hilabete pasatu da ordutik; lehen datuak jaso eta lehen hausnarketak egiteko nahiko denbora.

Ia 2.200 abonatu

Ikasteko hilabetea izan da Arenatzarendako; begiratu, ezagutu eta elkarlanean martxan jartzeko garaia, eta horretan "erraztasunak" izan dituela guztien aldetik aitortu du. "Asier Muxikarekin, Kirol teknikariarekin, lanean nabil, Athlonekin batera jarduerarik onenak antolatzen. Jose Mari Segoviarekin ere, Hirigintza teknikariarekin, harreman zuzena dut instalakuntzaren kontuetarako".

Otsailarekin batera tarifek behera egin dute, %21, Udalak erabakita. Eta abonatu kopuruak gora: 2.147 abonatu zeuden otsailaren lehen, eta martxoan, 2.198: "50en bat abonatu gehiago ditugu. Hala ere, konparaketak egiten hasteko goiz da, denbora luzeagoa beharko genuke ondorioen bat ateratzeko. Hori bai, 2.200erako bidean goaz, eta hori ona da", dio Arenatzak. Gainera, onartu du Kirol teknikariarekin lanean dabilela tarifa berriak sartzeko; federatutakoendako, esaterako.

"Kiroldegiak oso ondo funtzionatu du orain arte, eta gure asmoa ez da goitik behera aldatzea; aldaketak, gainera, beti Athlonekin elkarlanean egingo ditugu". Hobekuntzak egiteko abonatuaren iritziak jaso gura dituzte, inkestak eginda: "Erabiltzaile guztion elkarlana delako beharrezkoa".

Jarduera berriak antolatu

Kiroldegiko gune bakoitza da garrantzitsua, Arenatzaren esanetan: "Kantxa dotorea dugu, eta astean izan da goi mailako saskibaloia; rokodromoa Euskadiko onenetakoa da eta laster boulder txapelketa jokatuko dute; fitness gelan makinari onenak ditugu; igerileku eta spa gunea ere benetan erosoak... Hortaz, bakoitzak du bere berezitasuna". Hala, guztiak bultzatuko dituztela dio, eta batez ere kantxa indartu gura du, aste bukaeran ere "martxan" egon dadin.

Jarduerari dagokienez helburu bi dituzte: batetik, hainbat jarduerak dituzten itxaron zerrendei konponbidea eman; eta bestetik, jarduera berrien eskaerak erantzun. Horrez gain, ekitaldi bereziak ere egin gura dituzte, oihartzuna izango duten egun bateko kontuak. "Athloneko Iñigo Murgiondo eta biok gabiltza jarduera kontuekin. Erronka da inguruko kiroldegietan begiratu, zerk funtzionatzen duen ikusi, eta hori bultzatu gurean ere".

Kiroldegia batzuekiko "urru-ti" geratzen dela uste du, eta bertako kontuak herrian erakutsi

gurako lituzke: "Ez dakit aurten kirolari eskainitako aste bukararik antolatuko den, baina, hala balitz, bertan egon gurako genuke". Gainera, gogorarazi du beste ekitaldi batzuetarako zabalik daudela Ibarra ateak; bihar egingo den Fun Dantz! jaialdirako, esate baterako.



Igor Arenatza, Ibarra kiroldegiaren. | JAGOBA DOMINGO

IGOR ARENATZA | IBARRA KIROLDEGIAREN KOORDINATZAILEA

## "Niretako erronka bat izan da proposamena eta saiatu egin gura dut"

Azken sei urteak Aretxabaeta kirol elkartearen jardun du kirol zuzendari legez Igor Arenatzak (Aretxabaeta, 1974) eta orain Ibarra kiroldegira egin du salto.

**Zure izendapenak zeresana eman du herrian; eraginik izan du zuregan?**

Kontu politikoak izan direla uste dut, nik guztiakin dut-eta harreman ona. Niretako erronka bat izan da proposamena eta saiatu egin gura dut. Alderdi guztiakin egin dut berba eta ez dut inongo arazorik inorekin. Eta argi dut guztiok gura dugula Aretxabaletarendako onena.

**Zeintzuk dira zure eginbeharrak?**

Athlone ardurapean dauden kirol jarduerak, mantenua eta harrera zerbitzua koordinatu; Comercial de Limpieza Villarren garbitasun lanak koordinatu; administrazio lanak egin; ikastetxeen eta eskolaz kanpoko jarduerak koordinatu; eta bezeroak zaindu.

**Kirol teknikariarekin elkarlana zelakoa da?**

Oso ona. Asier Muxika aspalditik ezagutzen dut eta asko lagundu izan dit lehen ere. Hark, gainera, nik baino askoz eskarmentu handiagoa du kontu honetan.

**Azken sei urteotan UDAko kirol zuzendaria zara; bi lanak bateratzeko asmoa duzu?**

Bai. Apiril inguruan gehituko zait lan-karga UDAn, orduan hasiko gara-eta datozen hilabeteak antolatzen, baina orain

arte ondo moldatu naiz. Kiroldegiko ardura da urtea bukatu arte; hortaz, biak bateratuko ditut; izan ere, UDAko lanak asko asetzen nau. Datorren urtean zer? Ikusi egin behar.

**Zelakoa da kirolaren egoera Aretxabaletan?**

Asierrek eta biok uste dugu hausnarketatxo bat behar dela nora jo gura dugun zehazteko. Kiroldegiak eta UDAk egin behar dute, baina baita herriko gainerako eragileek eta elkarrekin ere; hortaz, badago plan estrategiko bat egiteko borondatea. Asierrek jarriko du abian eta gainerakook lagundu egingo diogu.

**Zer indartu beharko litzateke?**

Nik ardura bat daukat: ume asko etortzen dira futbolera, baina gero guztiak ez dute lekurik. Hortaz, beste kirol batzuk bultzatu beharko genituzke; eskalada, esaterako,

indarra hartzen dabil orain, rokodromoa dela-eta. Eta nesken kirol ibilbidea erraztu beharko genuke. Esparruak zabaldu behar dira eta horretarako eredu Oñati aipatzen dut beti; Aloña Mendik hamalau sail ditu eta kirol batean ez bada beste lekua izango du ume horrek.

**Eta herriko talde guztiakin harremanak izateko gertu?**

Bai, horixe. Nik talde guztiak -xakea, judoa...- UDA barruan izatea gurako nuke, elkartuta botere handiagoa izango dugulako, eta sail berriak sortu. Eta hala, Aretxabaletan sortutako elkarte handi bateko kide izan guztiok.



**OMEGA**  
Urban  
Service

24h



**945 290 308**  
[www.igogailuak.com](http://www.igogailuak.com)  
[debagoiena@omegaurban.com](mailto:debagoiena@omegaurban.com)

**Birgaitzeak**  
**Modernizazioak**  
**Ordezkapenak**  
**Zero Kotarako Jaitsierak**  
**Igogailuen**  
**Mantentze-lanak**





**JONE SALABERRI**  
HERRITARRA

"Ondo iruditzen zait, oinezkoendako leku gutxi dago-eta herri honetan; espaloiak oso estuak dira orokorrean. Obrek iraun artean eragozpenak sor daitezkeen arren, gerora oso ondo iruditzen zait".



**JUAN JOSE GOROSABEL**  
HERRITARRA

"Ez dut uste obra ondo antolatuta dagoenik. Ez dakit, bide erdia geratu daiteke eta beste erdia funtzionamenduan utzi... Errepide hau erabat ixteak kalte handiak eragingo ditu".



**AGURNE JULDAIN**  
GOZOKI-SALTZAILEA

"Oinezkoei eta bizikletei lehenetsuna ematearekin ados nago, baina ez dakit obra honek hori sustatuko duen. Eta halako dirutza gastatzea beste hainbat gauza egin beharrean... Ez dut egoki ikusten".



**ELENA HERRARTE**  
HERRITARRA

"Ez dut uste dakigunik zer egin behar duten zehazki. Hiru seme-alaba ditut eta oinezkoendako jartzearen aldekoa naiz; herriaren joera hori izan behar da. Hori bai, obrak arazoak eragingo ditu".



**MAITE ERDABIDE**  
HERRITARRA

"Oso gaizki iruditzen zait. Guretako kalte handia da eta baita, adibidez, Bolintxorendako ere. Ez dakit gure iritzia kontuan hartu den eta aurrez informatu duten. Buelta itzela eman behar da".



**PAQUI CHAVEZ**  
OGI-SALTZAILEA

"Obra hau sekulako zentzugabekeria iruditzen zait. Okindegiari kalte handia egin behar diote eta horrek niri zuzenean eragin diezadake. Hau da, lan gabe geratu naiteke".

## Arrasate pasealekuaren itxierak zeresana eman du herritarrengan

Udala eta Foruen plazen arteko zatia kale bihurtzeko sei hilabete beharko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate pasealekuko Udala eta Foruen plazen arteko errepide zatia kale bihurtzeko lanek zeresan handia eman dute asteon. Bolo-bolo ibili da gaia herrian eta lehen egunetan hainbat gidari egin harritu dira errepidea itxita ikusita. Lanek sei hilabete iraungo dute; amaitzerakoan, oinezkoek eta bizikletek izango dute lehenetsuna, eta ez dago erabakita zirkulazioa nola antolatuko duten obra amaitzean: "Erabakia hartzeko orduan ibilgailuen eta oinezkoen arteko oreka hartuko da kontuan", dio Udal Gobernuak. Construcciones Amenabar enpre-

sak egingo ditu lanak eta aurrekontua 1.135.000 euro da. Kanpotik datozen ibilgailuei saihesbideak erabiltzeko eskatzen diete; helburua da barruko mugimenduak ahalik eta gehien murriztea.

Bestalde, EAJren ustez, mugikortasun azterketarik egin gabe eta "inprobisazioan" oinarrituta hasi dira lanak: "Udal Gobernuak ez ditu herritarren zein oposizioaren eskaerak aintzat hartu. Non dago hainbestetan aldarrikatu duten herritarren parte-hartzea?", dio, besteak beste, Maria Ubarretxena alkategaia. Horren aurrean, Udal Gobernuak "ezinbestekotzat" jo du EAJri eran-

tzutea: "Herritarren ezinezkoa areagotzeko egia erdiak zabaltzen ari da EAJ. Udalean dauden alderdi guztiak daude proiektuaren alde; hala jaso zen 2014ko irailaren 16ko osoko bilkuran". Honako hau gaineratu dute: "Argi dago Arrasate pasealekutik berez pasa beharrik ez zuten ibilgailu mordoa igarotzen zirela; herri barruko zirkulazioa txikitu gura da eta obrek iraun artean ondorioak atera. Eredu iraunkorragoa eta seguruagoa bultzatu behar dugu".



Errepidea itxita Foruen plazan eta desbideratzea Loramendi kaletik. | J.B.



JOKIN BEREZIARTUA

### Edukiontzi berriak, erabilgarri

Astehenean hasi ziren edukiontzi zaharrak kendu eta txipdun berriak jartzen, Musakolan hasi eta Uribarri-Erguinen amaituz. Erdialdera eguzten arratsaldean heldu ziren. Lehen edukiontzien kanpoan poltsa batzuk ikusi diren arren, Hondakinen Mahaiak espero du bederatzita hilabeteko probaldian gutxienez %70eko bilketa selektibo maila lortuko dela. Edozein zalantza izan ezker, BAZera jo: 943 25 20 00.

### Arrasatek Hezi ekimenak "lehen urratsa" emango du martxoaren 10ean erdialdeko Gaztegunean

Arrasate ikuspegi hezitzaile batetik hobetzea helburu duen Arrasatek Hezi ekimena "lehen urratsa" emateko gertu dago. 2014ko urrian hasitako gogoetaren ondorioak prozesuko eragileen artean partekatuta osten, hilaren 10ean "abiarazteko saio bat" egingo dute Gaztegunean (18:00). Udala, Bagara eta Txatxilipurdi dira sustatzaileak, baina eragileak eta herritarrak izango dira protagonista.



## CAMBRIDGE ENGLISH Language Assessment

Authorised Platinum Centre  
**Probak Arrasaten**

Cambridge English Exam Centre- ES020

MondragonLingua, ES020 The Basque Country Cambridge Examination Center-ekin elkarlanean, aukera ematen dizu Cambridge English Assessment-eko azterketak Arrasaten egiteko

**EKAINEN DEIALDIA**  
**MATRIKULA MARTXOAREN 2TIK 18RA**

### AZTERKETA DATAK

- YOUNG LEARNERS	2015/05/30
- KET PET fs	2015/05/30
- FCE fs	2015/05/13
- FCE	2015/06/06
- CAE	2015/06/06
- CPE	2015/06/11

### INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

- Arrasate	943 71 20 55
- Oñati	943 71 60 00
- Gasteiz	945 15 01 55
- Donostia	943 34 41 02
- Bilbo	946 61 34 67

mondragonLingua



Emakume talde bat Kulturateko klaustroan –Artean erakusketa dagoen lekuan– egitarauaren berri ematen. | IMANOL GALLEGO

## Feminismoaren aldarrikapena, askotariko ekintzekin babestua

Martxoaren 8ra begira antolatutako egitaraua gaur hasiko da, hilaren 22ra arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urtero legez, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatu ditu Emakume Txokoak: "Aurten askotariko emakumeak elkartu gara eta taldetxo horrek antolatu du aurtengo egitaraua. Herritarrek animatu gura ditugu antolatu ditugun ekintzetan parte hartzea", adierazi du Emakume Txokoko Larrantz Trojaolak. *Feminismoaz danok aurrera goaz!* da aurten aukeratu duten leloa –lelo hori bera irakurri ahal da domekan Seber Altube plazatik irtengo den manifestazioan

(13:00)–, eta ekintzak gaur bertan hasi eta hilaren 22an amaituko dira. Biharko, esaterako, egun osorako plana antolatu dute: goizetik eguerdira emakume artisau eta baserritarren azoka egingo dute Seber Altube plazan eta ondoren, gaztetxean, "bertso-bazkari feminista" egingo dute.

Txartelak Ekinen eta Emakume Txokokoan eros daitezke; ikasleek zein langabeek bost euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, hamar euro. Eguna borobiltzeko, jaialdia egingo dute gaztetxean bertan.

**Ekintza txikiekin, helburu handiak**

Aldarrikapenerako eta "kontzientziak pizteko" ekintza nagusia etzi, domeka, egingo dute. Izan ere, kaleetan zehar triki-poteoa egin ostean (12:00), manifestazioa egingo dute. Bestalde, *Ekintza txikiak, helburu handiak* izeneko kartelak iragarri ditu Martxoaren 8aren bueltan antolatu diren ekintzak. Lau emakumez osatutako Perlata taldeak egin du kartela, eta 450 euro jaso dituzte. Izenburuak dioen moduan, egileek ekintza txikiekin helburu handiak lortu gura dituzte.

## Iazkoarekin pozik, Udalak 360.000 euro inguru erabiliko ditu enplegu planerako

J.B. | ARRASATE

Udalak enplegua sustatzeko planarekin jarraituko du 2015ean, iazkoarekin pozik daude eta: "Harro gaude Arrasaten modu xumean enplegua zabaltzeko bidea egin dugulako, eta ziur nago beste udalendako ere eredu izango dela", adierazi du asteon Inazio Azkarragaurizar alkateak. Iaz 350.000 euro erabili ziren eta aurten ia 360.000 euro "konprometituta" geratu dira. Hori bai, Udal Gobernuak

uste du lan ildoek "ibilbide luzeagoa" behar dutela eraginkorragoak izan daitezen; iazko ildoekin jarraituko dute: titulatu berriendako bekak, Udaleko langabeen kontratazioa, enpresei laguntzak langabeak kontratatze eta Lanbai azoka. Udalaren ustez, planaren arrakastarako "gakoa" izan da MUREkin, Saiolanekin eta herriko enpresa pribatuekin egindako elkarlana. Arrasateko langabezia-tasa %15,71 izan zen otsailan.



Azkarragaurizar, Garmendia eta Askasibar prentsa agerraldian. | J.BEREZIARTUA



PSE-EEko alkategai Oscar Gartzia atzoko agerraldian. | TXOMIN MADINA

## Oscar Gartzia: "Bildurena inboluzioaren eta inprobisazioaren desgobernua izan da"

J.B. | ARRASATE

PSE-EEko alkategai Oscar Gartzia agerraldia egin zuen atzo, amaitzeko dagoen agintaldiaren gaineko balorazioa egiteko: "Azken lau urteotan Bilduren desgobernuak inboluzioa besterik ez du ekarri eta modu inprobisatuan jardun dute. Herritar guztiei begira lan egin beharrean, euren bezero eta lagunendako bakarrik egin dute lan; bestela, nola uler daiteke, hauteskunde urtean egonik, kalei atentzio minimo bat

jarri izana edo Bilduren proiektu izarra izan zena, atez atekoa, bosgarren edukiontzirekin kamuflatu izana?", galdegin zuen.

**Kuadriptikoak etxez etxe**

Era berean, Gartzia iragarri zuen laster kuadriptikoak banatuko dituztela etxez etxe: "Bilduren kudeaketa faltaren zertzelada batzuk ikusi ahal izango dira kuadriptiko horretan, herritarrek ikus dezaten udal honen desgobernuak zein arrisku dituen".

## EGITARAUA

**HILAK 6, EGUBAKOITZA**

**18:30** *Artean* erakusketaren inaugurazioa Kulturaten.

**22:00** *Ovarios Verdes Fritos* obra Belen Nevadorekin, Kulturateko areto nagusian.

**HILAK 7, ZAPATUA**

**Goizean zehar** Emakume artisau eta baserritarren azoka Seber Altube plazan.

**11:00-12:30** *Emakumearen sexualitatea, bost zentzumenak erabiliz* tailerra Emakume Txokokoan.

**14:30** Bertso-bazkari feminista gaztetxean.

**22:30** Jaialdia gaztetxean.

**HILAK 8, DOMEKA**

**12:00** Poteoa Herriko Plazan.

**13:00** Manifestazioa Seber Altube plazatik.

**18:00** *Ezpain gorriak* ipuin kontaketa Irati tabernan.

**HILAK 10, MARTITZENA**

**19:00** *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia, Kulturaten.

**HILAK 17, MARTITZENA**

**19:00** Frankismotik gaur egunera arteko emakumeen dokumentala Kulturaten.

**HILAK 21 ETA 22**

Autodefentsa feminista Emakume Txokokoan.

## NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ



## Altruismoaz

**E**kintzailetasunaren eta altruismoaren gain sakonduz... Ikasle nahiko alferra izandakoa naiz, besteen kontura lanean ibilitakoa, taberna bat hartu eta poltsikoak bete zituen ekintzailea, kooperatibista... Orain kirol elkarte bateko lehendakaria naiz, lehen aldiz irabazi asmorik gabeko lanetan. Argi dudana da *osasunean* okerrera egin dudala. Ardura pertsonalak baztertuz, lanean, etxean... Azkenaldian kirola egiteari ere uzten nabil, nazkatuta! Leun esatearren, soldatapean dauden batzuek haien lana hobeto egin dezaketela uste dudalako. Arrasateko kirolak eta kirol instalakuntzek norabide eta hobekuntzak eskatzen dituzten une honetan, asko dira gure aisialditik, lanpostuek utzitako denboratik edota familiarik kendutako arduratik ateratako esfortzuak eta proposamenak. Hutsean geratzen direnak, erantzun barik. Askotan ez da diru kontua izaten, jarraia kontua baizik.

Batzuek uste dute, euren burua justifikatzeko, agian berekoikeria hutsagatik edo ezjakintasun esanguratsu bategatik kasurik onenean, zenbait lanaren atzean interes ekonomikoak daudela beti. Baliteke altruismoa zer den gogoratu behar izatea, baina ez daukat lerro hauetan horretarako tarterik eta nire asmoa ez da inoren txaloak jasotzea. Eskerrak, beste saltsa batzuetan ere sartuta, inguruan mota askotako ekimen, elkarte eta arduradunak ditudan, beharrezkoak, miresgarriak eta inspiratzaileak. Horregatik jarraituko dugu, kirolak, herriak, merezi dute-lako.

## "Askotan ez da diru kontua izaten, jarrera kontua baizik"

## Venezuela hizpide hilaren 12an, Vanessa Eletxigerraren eskutik

Venezuelako kontsuletik datorenen Vanessa Eletxigerrak Venezuelako errepublika bolibartarraren gaineko hitzaldia eskainiko du martxoaren 12an Kulturateko areto nagusian (19:00). Antolatzaileen arabera, "gerra ekonomikoa, gerra politikoa eta injerentzia" izango ditu hizpide Eletxigerrak, besteak beste.

# BIZITZA KALEAN GERTATZEN DELAKO



**WIFI**  
*is in the*  
**AIR**

Euskaltelek **1.400 WiFi puntu** piztu ditu Arrasateko kaleetan, Euskalteleko mugikorrarekin Internetera **DOAN** konekta zaitezten.

Euskaltelen bezeroentzat bakarrik.

Deskargatu "Euskaltel WiFi" aplikazioa  
hemen:



edo hemen: [euskaltelwifi.com](http://euskaltelwifi.com)

Eskatu informazioa Euskaltelek Arrasaten Biteri plazako 4.  
zenbakian duen dendan, eta hasi Euskaltel WiFi erabiltzen.

euskaltel 





2011ko maiatzean, tailerrean parte hartu zutenek *Leiduteko irrikaz* kale antzezlanaren prestatu zuten. | AED

# Euskaraz eta antzerkiaz gozatzeko tailerra apirilean

Olatz Pagaldaik gidatuko du ikastaroa eta hamar saio egingo dituzte guztira

**K**OMUNITATEA GOIENA  
AED | ARRASATE

Antzerki mundura lehen aldiz gerturatzeko, aurretik landutakoak sakontzeko eta, batez ere, euskaraz ondo pasatzeko gogoia duen edonori zuzendurik, beste behin, antzerki tailerra jarriko dugu martxan apiriletik aurrera. Hamar saiok osatuko dute tailerra, apirilaren 13an hasi eta ekainaren 15era arte. Saiok bi ordukoak izango dira, astelehenetan, 18:30etik 20:30era.

16 urtetik gorako edonork parte har dezake tailerrean, eta, astelehenetan izango dela jarri dugun arren, egun horretan etortzerik ez duen interesatuen bat balego, gurekin harremanetan jartzera animatu nahi genuke. Izan ere, parte hartzaileek hala adosten

badute, posible izango da eguna aldatzea.

Irakaslea Olatz Pagaldai eskoriatzarra izango da. Getxoko Antzerki Eskolan lizentziaduna da eta 12 urte daramatza euskal antzerki munduan. Bai hurrei eta bai helduei zuzenduriko lanetan aritu da kale zein aretoko antzerkietan, besteak beste, Deabru Beltzak, Eidabe eta Zurrunka antzerki taldeekin. Horretaz gainera, 2011n estreinatu zenetik, AEDk ekoizturiko *Erdaldun berrien kluba* antzezlaneko protagonista dugu Pagaldai.

## Izen-ematea

Tailerraren prezioa 50 eurokoa izango da, eta AEDko bazkideentzat, berriz, 45 eurokoa. Ikastaroan izena emateko, AEDra zuzendu

beharko da tailerrean parte hartu nahi duen oro, bulegotik bertatik pasata, telefonoz 943 77 12 28 zenbakira deituta edo [aed@aedkartea.com](mailto:aed@aedkartea.com) helbidera mezu bat bidalita. Izena emateko azken eguna martxoaren 27a izango da.

Azkenekoz 2010ean antolatua genuen antzerki ikastaro bat. Urte hartako azaroan hasi, eta 2011n jarraipena izan zuen. Gainera, 2011ko maiatzeko, taldeak *Leiduteko irrikaz* kale antzezlanaren prestatu zuen, eta Arrasateko kaleetan ikusi ahal izan genuen.

Orduko tailerrean aritu zirenek oso gustuko izan zuten esperientzia, talde harreman polita sortu zen, eta, oraingoan ere horrela izango delakoan, jendea animatzen dugu lotsak alde batera utzi eta parte hartzera.

## Andoaindik etxera, domina eta guzti

Arrasate Musikaleko Maria Rodriguez, Nerea Remiro, Lorea Gartzia eta Uxue Erostarbe piano-jotzaileek domina bana ekarri dute etxera Andoaingo Piano Jaialditik. Euskal Herri osoko 700 piano-jotzaile inguru izan ziren han emanaldia eskaintzen. Arrasatearrek zilarrezko bi domina eta urrezko beste bi lortu dituzte, baita diplomak ere. Esperientzia "oso polita" bizi izan dutela diote, datorren urtean ere "errepikatzen modukoa". Eurekin batera Rakel Hernandez eta Isabella Blezien irakasleak ere izan ziren.



ARRASATE MUSIKAL

**Dorleta Kortazar** | Ipuin kontalaria

## "Bizitzaren beste ikuskera bat transmititzeko balio dute ipuinek"

M.T. | ARRASATE

Domekan *Ezpain gorriak* helduentzako ipuin kontaketa eskainiko du arrasatearrek Irati tabernan, 18:00etan. Hilaren 10ean, berriz, Santa Marinaran izango da, ordu berean, umeentzako ipuinak kontatzen, hezikidetzat hartuta.

### Beti ikasten da zer bait ipuinetatik?

Ipuinek, kontatzen hasi aurretik ere, mezu bat bidaltzen dute, eta, mezu bat duten heinean, irakasgaia ere badute. Espazioak, gorputzak, testuak, irudiak... guztiak du eragina.

### Zeren arabera aukeratzeko dituzu?

Uste dut ipuinak aukeratzeko duela norbera. Egia da idatzizkotik ahozkotasunera pasatzeak atzean lan handia daukala, baina lan hori eginez izugarri disfrutatzen dut. Inguruan gertatzen den guztiari adi egon, eta hori ipuin bihurtzea da gakoa. **Zuk zeuk sortzen dituzu kontatzen dituzun ipuinak?**

Helduentzako kontatzen dituzdanak, gehienbat, nik sortutakoak izaten dira eta haurrenak, berriz, norbaitek aurrez idatzi, amestu edota pentsatutakoak.

### Zer arak erabiltzen dituzu?

Bizitzari buruzko beste ikuskera bat transmititzeko balio dute ipuinek, eta nire ipuinetan



Dorleta Kortazar. | OIHULARI KLOWN

hori lortzen saiatzen naiz. Beste bide batzuetatik jasotzeko zailak diren eredu eta balioak helarazten dizkiet entzuleei.

### Bada oraindik ohiturarik ahozko kontaketarako?

Esango nuke baietz. Agian, ez ipuin formatuan, baina gustatzen zaigu elkartzeko garen kontu kontari egotea. Egia da, ordea, garai batean ipuinek gaur egun komunikabideek eta ikastetxeek betetzen duten funtzioa zutela eta esparru hori galdu egin dela.

### Edonork konta ditzake ipuinak?

Guraso askok beldurra izaten dute, baina gure seme-alabentzat, ziurrenik, gu izango gara munduko kontalaririk trebeena, batez ere, gertutasuna eta ekintzan bertan jartzen dugun maitasuna kontuan hartuta.

## Gaur egingo dute ARTEAN erakusketaren irekiera ofiziala

M.T. | ARRASATE

Herriko hamabi emakume sortzaile lanak biltzen dituen *ARTEAN, hamaika emakume sortzaile* erakusketak zabalik da astelehenaz geroztik, baina gaur inauguratuko dute ofizialki, 18:30ean. Ekin Emakumeak Elkartearen egitasmoa da, herriko emakume artistak ezagutzeko helburuz martxan jarria.

Kulturateko klaustroan, erakusketako lanak ikusteko aukeraz gain, artistekin eurekin hitz egiteko aukera ere egongo da, gehienak irekiera ekitaldian izango baitira. Gainera, "aukera bikaina izango da euren lanei

buruzko galderak egiteko", dio Leire Estevezek, Ekin Emakumeak elkartearen kideak.

### Irekiera ekitaldia

Ines Osinagak "musika emanaldi txiki bat" eskainiko du erakusketaren inauguratzeko, eta pintxoak ere izango dira.

Dena den, Estevezek azaldu du ekitaldiari baino gehiago, erakusketari eman nahi diotela protagonismoa. Hori dela eta, erakusketaren oroigarria gorde nahi duenak izango du horretarako aukera: erakusketako irudiekin txapak egin dituzte, eta euro batean salduko dituzte.

## Pucciniren 'Tosca' ikusteko sarrerak salgai dira oraindik

Eserleku solteren bat edo beste kenduta, azken bost lerrotarako sarrerak soilik geratzen dira eskuragai hilaren 28an taularatuko den *Tosca* operarako. Pucciniren obra ikusteko toki ona izan nahi dutenek, ordea, oraindik badute aukera 30 eurotan sarrerak lortzeko, [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) eta [Ticket.kutxabank.es](http://Ticket.kutxabank.es) webguneetan.

## 'Bertso korrika' egingo dute Jai Zalen datorren egubakoitzean

Korrika girotzeko eta euskara ikasleak bertsoaritzara gerturatzeko sortutako zirkuituak Jai Zale tabernan egingo du hurrengo geldialdia. Hilaren 13an, Ane Zuazubiskar, Martin Berrizbaitia, Xabi Igoa eta Maddi Saratsua arituko dira bertsoetan, 19:30ean. Saioko edukiak egokitu egingo dituzte, euskara ikasleek uler ditzaten.

# Arrikruz ezagutzeko modu berriak izango dira aurrerantzean

Urtarrilean eta otsailean erreserbekin lana egin ostean, guztiendako dago zabalik hil hasieratik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Arrikruz kobak ezagutzeko modu berriak izango dira hemendik aurrera, ohiko bisitez gain. "Gabonetako oporretan egin genuen ipuin kontaketa eta domeka honean egongo den bertso saioa dira asmo berri honen bi adibide", azaldu du Oinatur enpresako kide Leire Garaik.

## Ikusgarri

Hemendik aurrera, kobek duten balio paleontologikoa eta zoolo- gikoa eta ondarea aintzat hartu-

tako ekintzak egingo dituzte, baina ez dira ohiko bisitetara bakarrik mugatuko. "Asmoa da beste modu batzuk erabilia azaltzea Arrikruz nolakoa den", azaldu du Garaik.

Ipuin kontaketa eta bertso saioak antolatzeaz gain, *Jolastera? Museora?* izeneko ekimenean ere parte hartzen du Arrikruzek. Hala, kobetako lehoia eta beste animalia batzuk pottokarekin lotuko dituen irteera antolatu dute hilaren 22rako, familia giroan egiteko aproposa. Hilaren 15ean,



Espeleotxiki abentura egiten. | GOIENA

berri, Koben Eguna izango da, eta, Lurpean elkartarekin batera antolatuta, erdi prezioan izango dira egun horretako bisitak. Hilaren 29an, berriz, espeleotxi-

ki abentura irteera egingo dute 6 urtetik gorako umeekin.

Martxotik aurrera, beraz, eskaintza berriak izango dituzte Arrikruzten. Horietako lehena

domekan koba barruan egingo duten bertso saioa da. Otsaileko euriteen eraginez, gainera, ura sartu da, eta ikusgarri dago koba (32. orrian gehiago).

# Esperientzia hartzeko diru laguntzak

Titulatuek herriko enpresetan proiektuak egiteko 40.000 euro ditu Udalak

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak 40.000 euro bideratuko ditu titulu berriek herrietako enpresetan proiektuak garatu ahal izateko. "Ikasketak bukatu eta lanean hasteko esperientzia eskatzen dute enpresa guztiek, eta, askotan, horixe da titulatuak falta zaiena, esperientzia. Programa honekin esperientzia hori bermatzea gura dugu; esperientzia hartzea da honen helburua", adierazi zuen Mikel Biain alkateak otsaileko osoko bilkuraren amaieran. Ekimena Sozioekonomia Forotik bultzatu dute eta udalbatzaren erabateko babesa izan zuen.

## Baldintzak

Josu Lizarralde Sozioekonomia zinegotziaren esanetan, errealtateari begira pentsatutako ekimena izan da eta lehengo araudia osatzera dator. "Udalarekin batera, herriko enpresa, autonomo eta hainbat gaztek ere parte hartu dute araudi hau egiten, eta horiei guztiei eskerrak eman gura dizkiegu", adierazi du Lizarralde.

Titulatu berrien lan-poltsa osatuko du Udalak orain, eta hori izena emateko baldintzak dira,

besteak beste: Oñatin erroldatuta egotea, gutxienez, 2014ko urtarriaren 1a aurretik; goi mailako ikasketak izatea; eskaera egiten den unean titulua eskuratu zenetik bi urte baino gehiago ez pasa izana eta proiektua hasteko unean Lanbiden langabe moduan izena emanda egotea. Ikasketak bukarako proiektua egiten ari direnak ere onartuko dituzte.

Proiektuak aurkezteko enpresak, aldiz, bi baldintza hauek bete beharko dituzte: enpresaren helbide soziala Oñatin egotea eta

ehun langile baino gutxiago dituen enpresa izatea.

Ekimena beka sistemaren bidez gauzatuko da. Bekak hiru eta sei hilabete arteko iraupena edukiko du, proiektu bakoitzaren behararen arabera, eta bekadunak eguneko sei orduko lan jarduna beteta 600 euroko ordainsaria jasoko du, gehienez, hileko. Hasiera batean, enpresak ordainduko dio bekadunari hileroko eta behin proiektua bukatu eta ordainketa horiek justifikatutakoan, Udalak ordainduko dizkio enpresari bekadunaren ordainsariengastuak.

## Lan-poltsa

Eguazten iluntzean egin zuten bilera Udaleko ordezkariak eta herriko hainbat enpresatoko kideek udaletxean, beka horren inguruko informazioa eta xehetasunak argitzeko.

Lan-poltsan izena emateko epea, bestalde, zabalik dago. Horrelako beka bat lortu gura duen titulatu berria Udaleko Sozioekonomia batzordearekin edo Enplegu Zerbitzuko langileekin jar daiteke harremanetan, Bidebarrieta kaleko bulegoetan.

**Hiru eta sei hilabete bitarteko beka izango dira**

**Zabalik dago lan-poltsan izena emateko epea**

# Zapatuan abiatuko da ludoteka ibiltaria, Olakuatik

O.E. | OÑATI

Martxoko zapatuetan auzorik auzo ibiliko da Txaloka ludoteka ibiltaria. Bihar, martxoak 7, esaterako, Olakua auzoko dorrean egongo dira ludotekako begiraleak. Sukaldaritza tailerra egingo dute 11:00etatik 13:30era.

Datozen zapatuetan non egon eta zer egingo duten ere pentsatuta dagoeneko. Hala, hila-

ren 14an jolas erraldoiak egingo dituzte Errementari plazan; 21ean, sormen tailerrak naturako elementuekin gaztetxean eta 28an, jolas kooperatiboak Olaiturrin.

## Logotipo lehiaketa

Bestalde, Txaloka ludotekak logotipoa aldatu gura du, eta, horretarako, lehiaketa antolatu du. Oñatiko Lehen Hezkuntzako haur

guztiek hartu ahal izango dute parte lehiaketan eta irabazlearen logotipoa ludotekaren ekintza guztietan erabiliko dute. Marrazkia A-4 paper batean egin beharko dute gaztetxoek eta ludotekan entregatu beharko dute martxoaren 9tik 20ra bitartean. Sari banaketa martxoaren 28an egingo dute eta irabazleak euskarazko produktu sorta bat eskuratuko du.



Korrika 19ko materiala. | GOIENA

# Korrikako materiala saltzen egongo dira bihar goizean plazan

O.E. | OÑATI

Korrika 19ko materiala saltzen egongo dira bihar, zapatua, Foruen plazan, 10:00etatik 13:00etara bitartean, Korrikako herri batzordeko kideak.

Kolore eta tamaina askotariko arropak egongo dira salgai, esate baterako, eta aukera egongo da zuzenean erosi edo modelo konkretuko arroparen bat hurrengo asterako enkargatzeko. Izan ere, martxoaren 14an, ordu eta toki berean egongo dira berriz Korrika 19ko materiala saltzen.

## Suizidioaren gaia

Bestalde, Korrika Kulturalaren barruan, *Pankreas* antzezlanaren ekarriko dute martxoaren 13an Santa Ana aretoa. Patxo Telleriak sortutako tragikomedia bat da, bertsoetan idatzia. Hiru aktore ezagun taula gainean: Joseba Apaolaza, Mikel Martinez eta Patxo Telleria. Suizidioaren gaia agertzen da antzezlan horretan eta herriko ikasketxeetan gai hori ari dira lantzen batxilerreko ikasleekin, horretarako propio sortu den material didaktikoarekin.

# Mauka bereziak egongo dira gaur eta bihar Txandak egingo duen 'outlet'-ean

O.E. | OÑATI

*Outlet*-a egingo dute Txandako dendek gaur, egubakoitza, eta bihar. Aurreko urteetan egin duten moduan, Txandako denda bakoitzak dendaren aurrealdean erakutsiko ditu produktuak, deskontuekin. Juan Carlos Aranburuk, Txandako presidentek, adierazi duen

moduan, denda bakoitzaren erabakia izango da ze produktu ze prezioan eskaini. "Eta produktuak izan daitezke azken denboraldikoak edo aurrekoak", zehaztu du Aranburuk.

Gaur goizez eta arratsaldez izango da Txandaren *outlet*-a eta bihar, goizez. Batukada ere izango da kaleetan zehar.

# Berdintasuna eta irakurzaletasuna, eskutik

- ▶ 'Itsaspeko bihotzak' erakusketa didaktikoa dago zabalik kultura etxean
- ▶ Familien saiorako izena eman behar da martitzena aurretik, liburutegian

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Irakurtzeko zaletasuna sustatzeaz gain genero berdintasuna eta hezkidetzaren lantzea helburu duen erakusketa dago zabalik kultura etxeko erakusketa gelan. *Itsaspeko bihotzak* du izena eta Udal Liburutegiak eta Udaleko Ber-

dintasun Sailak antolatu dute elkarrekin, euskarazko haur literatura oinarri hartuta. "Erakusketa didaktikoa da eta hainbat gune ditu; besteak beste, urpekontzi bat eta sukalde bat. Gune bakoitzean, modu batera edo bestera, literatura eta generoa lotzen

dituzten ekintzak egiten ditu gidariak bisitariarekin. Aste honetan ikastetxeetatik hirugarren eta laugarren mailetako ikasleak etorri dira, taldeka, bisita egitera", dio Arantzazu Ibarrondok, liburutegiko arduradunak.

## Familiendako saioa

Erakusketa martxoaren 12ra arte egongo da zabalik, baina datorren martitzenean, hilak 10, familiendako saio berezia egongo da. Ordubete iraungo du eta 5 eta 8 urte arteko umeendako eta haien gurasoendako izango da. Hasiara batean, ibilbide proposamen berbera jarraituko dute, baina gune bakoitza -eta bertako edukiak- adin tarte horretara egokituak egongo dira. Albumen aurkezpen eta ipuin kontaketa zentratuko dira, eta amaieran, altxorrera iristean, denbora izango dute liburuak lasai begiratzeko. Tarte horretan, haurrei gomendioak egingo dizkiete eta gurasoekin bibliografiaz aritzeko tarte hartuko dute.



Umeak erakusketan eguzten iluntzean. | MIREIA BIKUÑA

## Ospakizunak eta konpromisoak Martxoaren 8ari begira

O.E. | OÑATI

Oñatiko etxeko emakumeei eta emakume entrenatzaileei omenaldia egingo diete gaur, egubakoitza, iluntzean. Sortzintxika herri lasterketaren ostean izango da eta Martxoaren 8aren bueltan Oñatiko sare feministak antolatu dituen ekintzetako bat da. Aurten ere, patinetan, oinez, korrika edo bizikletan har daitete parte 18:00etan Foruen plazatik abiatuko den herri lasterketa horretan. Domekan, berriz, elkarretaratzea egingo dute, 12:30ean, Foruen plazan *Esnatu eta Elkartu!! Egunerok izan dadila Martxoak 8!!* lelo-

pean, eta 14:00etan, emakumeek bazkaria egingo dute Antixena gaztetxean.

Martxoaren 8ari lotutako ekitaldietan parte hartzeko dei egin zuen udalbatzak otsaileko osoko bilkuran.

### Berdintasunaren alde

Bestalde, Miren Elgarresta EAJ-ko alkategaia adierazi du beharrezkotzat jotzen dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko urratsak egiten jarraitzea. Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko prebentziorako ekintzak sustatuko dituztela ere esan du.

## Haur Misiolarien Egunerako oihal zatiak batzen ari dira parrokiako lokalean

O.E. | OÑATI

Katekesia ikasten ari diren Gipuzkoako 6 eta 12 urte arteko umeak Bergaran elkartuko dira datorren asteburuan, Gipuzkoako Haur Misiolarien Egunean. Besteak beste, tailerrak eta jolasak egingo dituzte topaketa horretan, eta horietako batzuk Oñatin ari dira prestatzen. Horretarako, baina, mate-

rialak behar dute, eta hori jasotzeko deia zabaldu du Oñatiko katekisten taldeak. Oihal zatiak jaso gura dituzte, pilotak eta baloiak egiteko. Oihalak San Migel parrokiako Garoa lokalean ari dira batzen.

Haurren misio suspertzea eta misio gintzan duten zereginen azalpena ere jasoko dute umeek Bergarako topaketan.



Duela hiru urte egindako zuhaitz azoka. | GOIENA

## Zuhaitz azoka eta landaketa egingo ditugu asteburuan

KOMUNITATEA GOIENA | NATUR ESKOLA | OÑATI

Ingurumen hamabostaldia bukatzeaz dago, baina asteburu honetarako baditugu beste bi ekitaldi: zuhaitz azoka, batetik, eta zuhaitz landaketa, bestetik. Zuhaitz azoka bihar, zapatua, egingo dugu. Ohikoa den moduan, Foruen plazan izango da, 09:00etatik 14:00etara, eta hainbat mintegitako salmenta postuak egongo dira: zuhaitzak, fruta-arbolak, landareak... ekarriko dituzten adituak egongo dira; edozein zalantza argitzeko prest egongo direnak, gainera. Denetarik zuhaitz motak egongo dira ikusteko eta erosteko:

koniferak, fruta-arbolak, Euskal Herriko espezieak eta zuhaitz apaingarriak, esaterako.

### San Martin auzoan

Domekan, bestalde, zuhaitz landaketa egingo dugu. Aurten, San Martin auzoan landatuko ditugu. Auzo berria da, aisialdirako ortuak ere inguru horretan daude eta pentsatu dugu aurtengo landaketa gune horretan egitea. Hain zuzen, zuhaixkak, fruta-arbolak, gorostiak eta antzerakoak landatuko ditugu. Ez dira zuhaitz handiak izango. Landaketara denok batera joateko, 10:00etan elkartuko gara Foruen plazan.

## NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA



## A ze alferra!

Herri honetako biztanleen alde ze funtzio sortzaile dituen edo hobekuntzarako zer egiten duen zehazterik ez dudana ezarritako figura bat dugu Euskadin. Haren berri dudana aldiro, gainera, zerbait baztertzeko, proiekturen bati trabak jartzeko edo ilusio berriak zapuzteko izaten da.

Bai, Espainiako Gobernuaren ordezkari Karlos Urkioxoz ari naiz (Carlos Urquijo, zuzenduta), ez nazala demandatu bere izena moldatzeagatik moldatzearen.

Iparaldeko Xalbador ikastola behartu du Gipuzkoako Aldundiak eman dion diru laguntza bueltatzera, euskararen inguruan horrek duen kompetentzia bete eta euskararen ezagutza eta aitor-tza zabalitzeko laguntza ematearren. Herritarren gehiengoari ohikoa iruditzen zaion ekintza, baina Gobernuaren ordezkariari barrenak astintzen dizkio.

Zertarako dago hura, euskararen erabilera sustatzeko, herrialde honetako hizkuntza bien koofizialtasuna onartu due-

la pentsatuta eta ahultasun handiena duena bultzatuz eta lagunduz, edo euskararen erabilera mundutik erabat ezabatzeke? Ez zitzaion bururatuko berak ere euskara ikasi behako lukeela? Nola ulertzen da elebiduna den herrialde batean ordezkariak ezer ez ezagutzea euskara eta ezagutzeko interes txikiena ere ez izatea? Konparazio hutsa egi-teagatik, ez zuen Espainiako Gobernuak diru laguntzarik emango gaztelera sustatzeko bere mugetatik kanpo?

Haren auzi eskaerak ez dira euskararen bukatzen; beste esparru batzuetara zabaltzen dira: banderaren auzietara, euskararen erabilera instituzioetan, Gure Esku Dago ekimenari laguntzak... Denak ildo beretik, kasualitatez.

Madrilgo Gobernuan zaudeten jaunok, ordezkari horren jarrera aldatzen ez bada, Euskadiko biztanleriaren gehiengoak okupazio indarren polizia moduan hartuko du, eta ez ulermenerako kolaboratzaile moduan.

Horrek, gainera, diru-gastua dakarkigula pentsatzea...

## "Iparaldeko Xalbador ikastola behartu du dirua bueltatzera"

## Maskarada ikusteko irteera, euskaltegitik

O.E. | OÑATI

Zuberoako maskarada ikusteko irteera antolatu du Udal Euskaltegiak datorren zaturako. Maule-Lexarrera maskarada ikustera joango dira martxoaren 14an, eta autobusak antolatu dituzte. Irteera 08:00etan izango da, postetxe aurretik, eta 22:00etan itzuliko dira Oñatira. Autobuserako txartelak Txokola-teixan eta Udal Euskaltegian daude dagoeneko salgai. Prezioak dira: zortzi euro ikasle eta langabeendako eta hama-bi euro gainerakoendako. Martxoaren 9a da txartelak erosteko azken eguna.



Maskarada. | TXOKO MUSIKALA DANTZARIK

# Gazte lokalen gaineako ideiak lantzeko garaia

## Datorren eguaztenean izango da inplikatuak azken batzarra

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Gazte lokalen inguruko azterketa parte-hartzailearen fase bat ia-ia bukatu da: inplikatuaren arteko batzarra. Azken saioa eguaztenean, hilak 11, izango da: Elkarbizitza: hartu eta eman. Zer adostu dezakegu? izenburua du eta gai horren inguruan berba egiteko aukera izango da gaztelekuan, 18:30ean. Parte hartzeko dei egi-

ten dute udal arduradunek; besteak beste, zaraten arazoaz hitz egingo dute.

### Irizpideak zehaztu

Datorren eguazteneko batzarra eta gero, ondorioak lantzeko unea izango da. Udalaren helburua da, azkenean, marra gorri batzuk edo irizpide orokor batzuk finkatzea.

## "Oso saio aberasgarriak izan dira"

Udalaren aldetik, Nerea Zubia zinegotzia eta Jon Lopez gazte teknikaria ibili dira gazte lokalen saioetan. Balorazio oso ona egiten dute. Honela dio Zubiak: "Hasiera baten, kopuru aldetik oso parte-hartze handia izan zen; orain pixka bat jaitsi da, baina jendeak oso aportazio interesgarriak egin ditu, eta oso aberasgarriak izan dira saioak. Gure helburuak bagabiltza betetzen". Lopezek gaineratzen duenez, "ideia asko" azaldu dira bileretan eta orain horiek guztiak landu egin beharko dira eta araudi bat egin; horixe izango da denondako erreferentzia eta heldulekua.

Saioetan azaldu den kezka nagusia segurtasuna da, eta hor ia denok ados daude, udal arduradunen esanetan; gatazka handiagooa sortu du zarataren arazoak, eta hori konpontzeko hainbat proposamen egin dira.

DIEGO CARBAJO | SOZIOLOGOA

## "Gazte lokalak ez du kuadrillismoa areagotzen, ikusarazi baizik"

EHUn Soziologian doktorea da Diego Carbajo. Gazte lokalen inguruan ikerketa egin zuen 2012an Gasteizko Udalarendako.

### Ze faktore daude gazte lokalen fenomenoaren atzean?

Hainbat aldagai estruktural daude. Alde batetik, gaztaroaren luzapena; beste alde batetik, aisialdi eta kontsumo ereduaren aldaketa; hirugarrenik, gure herri eta hirietan krisia medio, komertzioak ixten ari dira eta espazio horiek gazteek bereganatu egiten dituzte eta beste zentzu bat eman; eta azkenik, Euskal Herrian dagoen den gizarte konfigurazioa, kuadrilla.

### Gazte lokalen fenomenoak moda bat dela uste dute batzuek.

Ez da moda bat. Krisiak oraindik irauten du, eta gazteek familiarenganako gero eta mendekoagoak dira. Dependentsia horrek eragiten du gaztaroa luzatzea. Gaztaroaren luzapen horretan, gazteek bilatzen dituzte euren espazio autonomoak.

### Ze harreman izaten dute gazteek, jabeek eta bizilagunek?

Auzokideekin dagoen arazo larriena elkarbizitza da: zaratak eta, askotan, lokalaren kanpoaldean utzitako trasteak, e.a. Jabeekin egoten den arazo larriena, alde batetik, lokalen prezioa ez dela oso merkea izaten eta, beste batetik, jabeen aldetik lokalen egoera ez dela askotan beharko litzatekeena: askok ez dute sistema



DIEGO CARBAJO

elektrikoa oso ondo jarria, aireztatzea askotan ez da onena... Erantzukizuna ez da soilik gazteena; jabeena ere garrantzitsua da.

### Gazte lokalek badute, jende askoren begitan, kutsu negatibo bat. Ze alde positibo dute?

Gazteen arteko harremana areagotzen dute. Askotan, koadrilaren arteko asoziazio edo elkarrekin pragmatiko bat

### "Gazteek euren espazio autonomoak bilatzen dituzte"

dago; lokala bi edo hiru koadrilaren artean hartzen da, eta, urteak pasa ahala, koadrila horren konfigurazioa aldatzen joaten da.

### Gazteak lokaletan egotearen ondorio bat omen da ez dutela elkarrekin sozializatzen, norbera bere koadrilarekin bakarrik egoten dela.

Bai, baina hori ez da lokalarengatik, Euskal Herrian hain klasikoa den kuadrillismoarengatik baizik. Lokalak egiten duena da soilik kuadrillismoa ikusarazi.

## Izki mendira irteera egingo du Aloña Mendiko mendi sailak

Aloña Mendiko mendi sailak Izki mendira egingo du irteera martxoaren 15ean, domeka, baina izena 12a, datorren eguena baino lehen eman behar da elkartearen bulegoetan. Irteera hori otsailean ziren egitekoak, baina bertan behera gelditu zen, elurra-erengatik. Aloña Mendiko mendi sailak dio ez dela ibilbide zaila, baina bai luzea.

## Gaztetxeko bertso afarirako txartelak salgai daude

Hilaren 13an bertso afaria egingo dute Antixena gaztetxean. Urko Arregi oñatiarra, Aratz Igartzabal, Txaber Ormazabal eta Aitor Bizkarra izango dira bertsolariak. Horrez gain, aurtengo berezitasuna izango da txotx egiteko aukera egongo dela. Sarrerak aldeztu aurretik erosi behar dira Ona tabernan, Arranon edo gaztetxean.

## Juanma Gereñuren JMG & The MG's taldea, Pako tabernan

Pako tabernan kontzertua izango da etzi, domeka, 19:30ean: JMG. & The MG's taldea. Juanma Gereñuk, Javier Rodriguezek eta Pedro Kessenguek osatzen dute taldea eta 25 urte-tik gora daramate batera jotzen. Blues eta rock estiloko jorraz dituzte. Gereñuk Hertzainak taldeko Garirekin eta Alex Caporuscio blues gitarrak jolearekin jo izan du.

## Argentinara bidaltzeko arropen artean, dirua

Argentinara bidaltzeko arropak batzen dituzten edukiontzian dirua agertu da. Oñatiko familia batek eraman zituen produktu horiek eta herritar horiekin harremanetan jartzea gura du orain Hermansoloña elkarrekin, dirua bueltatzeko. Lotea deskribatzeko eskatuko dute, diruaren jabeak eurak direla egiaztatuzko.

## EH Bilduren ekitaldira joateko autobusa antolatu dute

EH Bilduk bihar, zapatua, Barakaldoko BECen egingo duen nazio ekitaldira joateko autobusak antolatu ditu Oñatiko EH Bilduk. Autobusak 15:30ean aterako dira postetxe paretik eta txartelak Arrano eta Ona tabernetan eskura daitezke.

*Euskal bidea* delakoa eta euskal estatua aldarrikatuko dituzte ekitaldi horretan.



LOURDES SARASKETA  
BIZILAGUNA

### "Arazo handiena da autoa gaizki aparkatuta uzten dutela batzuetan"

"Denetarik iritziak daude bizilagunen artean; batzuek oso harreman ona dute gazteekin, beste batzuek ez hain ona. Ni ondo konpontzen naiz gazteekin, esperientzia ona daukat, beraz; badaude gauzatxo batzuk, baina, oro har, ondo moldatzen gara.

Nire kasuan, hiru gazte lokal dauzkat behean. Zaratarik ez dute ateratzen; txarrena da kanpoan daudenean. Izan ere, nor bere autoan etortzen da eta gaizki aparkatuta uzten dute batzuetan. Bizikletak ere gaizki uzten dituzte. Hor ibiltzen gara; etxera igotzeko karreteratik joan behar izaten dugu. Baina hori kenduta, bestela ez daukagu arazorik".



JULEN BIAIN  
ERABILTZAILEA

### "Aurretik izan genuen bizilagunekin arazorik, baina orain ondo gaude"

"Asteazken zehar gutxiago joaten gara gure lokalera, izan ere, ikasten dabil jendea. Aste bukaeretan zehar elkarrekin egoteko erabiltzen dugu lokala; afaltzeko ere bai, gure kontuak elkarri kontatzeko...

Bizilagunekin ez dugu arazo larririk. Autoaren arazoa onartzen dugu -batzuetan gaizki aparkatuta uzten dugu-, baina momentu honetan ez dugu arazorik. Aurretik izan genituen, baina orain ondo gabiltza. Beste lokal batzuetan egondakoak gara, eta bizilagunekin hobeto moldatzen gara orain. Eurek ezagutzen gaituzte, eta ondo konpontzen gara elkarrekin".



BAKARNE GALDOS  
GURASOA

### "Gurasoon kezka nagusia lokalen segurtasuna da seme-alabendako"

"Nire semea oraindik ez dabil lokalean, adingabekoa da, baina saio hauetara gerturatu naiz gazte lokalen errealitatea ezagutzeko, nire burua kokatzeko eta ikusteko zer esaten den. Guraso garen aldetik, seme-alabak babestu nahi ditugu. Bilerak oso ondo daude; izan ere, nork bere nahia azaltzen du, eta bilatuko dugu modu bat gure nahi hori arautzeko, islatzeko...

Nik uste dut gurasoon aldetik kezka nagusia segurtasuna dela; seme-alabentzat lokalak seguruak izan daitezela, eta erantzukizunak defini daitezela. Nik uste dut lortuko dugula zerbait, bilerak oso interesgarriak direlako".



MIKEL ETXEZARRETA  
JABEA

### "Lokal baten jabe naizen aldetik, legedi baten falta igartzen dut"

"Badugu dagoeneko urte batzuetako harremana gazteekin, eta uste dut harreman ona dela; lagun moduan naukate eta, edozein arazo badago, konpontzeko gogoarekin egoten naiz. Badakite errespetu bat egon behar dela, lokal goian jendea bizi delako. Elkarbizitza bat lortu behar da eta ni horretan saiatu naiz.

Kontratuak-eta ere berba izan ditugu. Helburuetako bat zen zehaztea lokalek zelan egon behar duten, ze gauza izan behar duten eta ordutegia, segurtasuna... Beraz, saioak baliagarriak izan dira, ezjakintasan handia eta guretzeko, lokalen jabe gisa, legedia falta zegoelako".



# Udalak bonutan 30.000 euro inguru banatu ditu

laz martxan jarritako egitasmoak izandako harreraren ostean, bonu-sistema mantendu egingo dute

I.G. | BERGARA

2014an, sariak eta hobariak banatzeko bonu-sistema jarri zuen martxan Udalak, tokiko ekonomia bultzatzeko. Iaz, guztira, bonu sistema horren bidez 30.000 euro banatu zituen Udalak. Egitasmoak izandako harreraren ostean, aurtun ere bonu-sistema mantendu egingo dute.

Udalak urtero hainbat alortan antolatzen dituen lehiaketetako sariak edo banatzen dituen zenbait hobari bonu bidez banatzean, herriko komertzioetan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumitzea bermatu du.



Herritar bat herriko denda batean bonuak erabiltzen. | IMANOL GALLEGU

**Bigarren sektorea indartzeko**  
Tokiko ekonomia sustatzeko asmoarekin Udalak hainbat ekimen joan da martxan jartzen; besteak beste, bonu-sistema eta Bergara Bizi kanpaina.

Ildo horretatik, 2014an Aratusteak eta Pazkoak iragartzeko kartel lehiaketetako irabazleei eta Koldo Eleizalde literatur lehiaketako irabazleei, besteak

beste, sariak dirutan banatu beharrez Udalak bonutan banatu zien. Era horretan, sarituak herriko komertzio-guneetan truka ditzakete irabazitako sariak, herrian bertan kontsumitzea bermatuta.

Era berean, Kotxea Garajearen programan izena eman zutenei garajearen kontribuzioaren %75eko hobaria eskaini zien.

Udalak hobaria bonutan jasotzeko aukera lehenetsi zuen arren, hobaria dirutan jasotzeko aukera ez zuen baztertu. Biribiltzeari esker, hobaria bonutan jaso zutenek diru gehiago jaso zuten.

Horrenbestez, bonu-sistema horren bidez lortutako emaitzen balorazio positiboa egin dute Udaletik, eta 2015ean ekimena mantentzea erabaki dute.

## Epeleko plantagatik Angiozar auzoak 321.814,75 euro jasoko ditu

I.G. | BERGARA

Udalbatzak astelehenean egingako ezohiko osoko bilkuran, Epeleko plantaren inguruko hitzarmena onartu zuten. Akordioari esker, Epeleko konpostatze planta eta transferentzia estazioa Angiozar auzoko lurretan eraikitzen ari direnez, neurri konpentsatzaile gisa auzoak 321.814,75 euro jasoko ditu.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren eta Udalaren arteko akordioa gobernu taldeak eta EAJK babestu zuten; alderdi sozialista ez zen osoko bilkuran egon. Akordioari esker, auzotarrek adostutako eta bertako bizi kalitatea hobetuko duten proiektuak garatzeko erabiliko dute diru hori.

**Lanen atzerapena**

Akordioak izango dituen ondorioekin bat etorri arren, Epeleko plantaren lanen atzerapena azpimarratu zuen EAJKo bozeramaileak. Aintzane Oiarbide zinegotziak azaldutakoaren arabera, plantaren proiektua 2009an onartu zutenetik ez du aurrera egin. Jaione Isazelaia alkateak lanen atzerapena onartu zuen, eta, aurreikuspenen arabera, plantaren lanak sei hilabeteren buruan bukatuta egongo direla argitu zuen.

Konpentsazio gisa angiozartarrek jasoko duten diruak, baina, ez du atzerapenik izango, akordioa sinatzean %50 jasoko baitute, eta gainontzekoa, lanak bukatzen direnean.



Angiozarko lurretan eraikitzen ari diren plantaren proiektua. | GOIENA

## CLINICA DENTAL BERGARA

Bidekurutzeta 36 BERGARA • Tel.: 943 76 05 77  
www.clinicadentalbergara.es

20 urte baino gehiagoko esperientzia implantologian

*Kontsulta eta aurrekontua doan  
Zure tratamendua finantzatzen dugu.*

Espezialitate bakoitzerako mediku-talde kualifikatua dugu

**ODONTOLOGIA**

A. Pastor doktorea  
U. Artetxe doktorea  
I. Goikoetxea doktorea

**ORTODONTZIA**

Y. Otero doktorea

**PERIODONTZIA**

I. Goikoetxea doktorea

**INPLANTOLOGIA**

F. Juarros doktorea  
U. Artetxe doktorea

**ENDODONTZIA**

G. Campos doktorea

DKV • MAPFRE • IMQ/ADESLAS • SANTA LUCIA • EROSKI  
OCASO • PREVISORA BILBAINA • ORBITA • ACUNSA • AEGON

## Autodeterminazioa eta bakea dira jeltzaleen bi zutabe berriak

**AMAIA TXINTXURRETA** | BERGARA  
Ekitaldia egin zuen domekan EAJk Bergaran, eta bertan izan ziren Gipuzkoako diputatu nagusigai Markel Olanok, Joseba Egibar EAJren Gipuzkoa Buru Batzarreko presidente eta jeltzaleen bozeramailea Eusko Legebiltzarrean eta Debagoieneko EAJren alkategaiak, besteak beste. Jeltzaleek azpimarratzeko dauzkaten herri estrategiez hitz egin zuten bertan.

Herriko EAJko alkategai Juan Jesus Alberdik eman zion hasiera ekitaldiari. Adierazi zuen "talde eraginkorrak sortzen, ilusioz eta buru izateko asmoz" daudela.

Gipuzkoako diputatu nagusigai Markel Olanok hartu zuen hitza Alberdiren ostean, eta azaldu zuen EAJ Debagoienean lanak txukun egitera datorrela.

### Herri estrategiak

Egibarrek azpimarratu zuen herri batek bere etorkizuna irabazteko eta etorkizun horretan asmatzeko herri estrategiak oso garrantzitsuak direla, eta urtetarako erronkak lau puntutan laburbildu zituen.

Hasteko, esan zuen euren apustu politikoaren zutabeak etika, politika eta demokrazia direla. Nola egin politika izango litzateke bigarren atala: "Politika ezin daiteke inposatzen egin, elkarrizketa izan behar du bide. Hori da momentu honetan batzuen eta besteen artean bereizten gaituen puntua", adierazi zuen. Hirugarren puntua jarduera ekonomikoa dela zehaztu zuen; Egibarren ustez, gizarte oreka eta justizia soziala mantendu behar delako.

Laugarren puntuan azaldu zuen politikoki herri hau existitzen baldin bada eta bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea baldin badu, eskubide hori ere gauzatu egin behar dela.

### Hauteskunde garrantzitsuak

Egibarrek gaineratu zuen maiztzeke udal hauteskundeak hauteskunde "garrantzitsuak" izango direla, eta EAJren zutabe berriei buruz hauxe adierazi zuen: "Etorkizunari begira uste dut bakea behin betiko hedatzea eta sendotzea eta erabakitzeko eskubide hori ere izango direla zutabe berriak".



EAJko ordezkariak domekako ekitaldiaren aurretik. | EAJ

## NIRE USTEZ

**MAIALEN MADARIAGA**



## Zenbat kasualitate

**O**rdiak eman ditu plazako arkupeetako eserleku luzean.

Zer diren aurreiritziak. Bere biografia osatzeko gai izan naiz begirada bakarrean. Langilea izateko denbora gehiegi zeraman bertan. Zer egin ez dakien jubilatua izateko, berriz, gutxiegi. Gaztea izateko hase-rruetuegi dago munduarekin, eta zaharra izateko, mundua aldatzeko gogo handiegia.

Gaztea balitz, biltzeko tabakoa erreko luke, eta zaharra izatekotan, purua. Bata bestea-aren segidan erre ditu aurrefrikatutako zigarroak. Bere

azal beltzaren eta zimurtuak kalean ordu luzez lan egin izana salatzen du. Gizarteak baztertu egiten duela kexu da.

Zer diren aurreiritziak. Zuek irakurleok, zenbatek irudikatu duzue gizonezkoa arkupeetan eserita zegoen hori? Kasualitatea benetan.

Euskarak ez omen du generorik desberdintzen. Hala ere, jarrera egokia eta edukazioa erakusteari gizalegez jotzea deitzen zaio, eta leuntasunez, apaltasunez jarduteari, emeki. *Giza*-legez eta *eme*-ki. Beste kasualitate bat.

Euskarak ez du generorik desberdintzen, baina gure buruetako hizkuntzak, ordea, gehiegitan eta oharkabean. Beraz, gure ahotan *plazandreak* eta *etxeko gizonak* hitzak naturaltasunez erabili nahi baditugu, bide zuzenetik goaz, baina oraindik badago bidea egiteko. Kasualitatea gai honi buruz jardutea gaurko egunez, ezta?



Agurne Barruso berbetan, eta atzean hautetsiak. | IMANOL SORIANO

## EH Bilduk aurkeztu du hautagaien zerrenda

### Taldean adin eta kolore askotariko jendea batu dutela azaldu dute

**IMANOL GALLEGU** | BERGARA

"Taldea anitza eta zabala, esperientziadun jendearekin eta baita freskotasunarekin ere; oso talde ona", horrela definitu zuen Agurne Barrusok alkategaiak udal hauteskundeetarako EH Bilduk osatu duen zerrenda.

Agintaldi honetan EH Bilduko zinegotzi direnen artean Lauri Askargortak, Arianne Kareagak, Leire Iruinek eta Joseba Moñuxek errepikatzen dute zerrendan. Udal hauteskundeetarako programa osatzeko eta zerrenda bera eratzeko hiru lan saio egin dituzte. 250 herritarrek hartu dute horietan parte, eta zapatuan, hiru lan-ildo lehenetsi

zituzten. Denera, baina, egin beharreko 176 ekintza zerrendatu zituzten.

### Xabier Olanok ere bertan

Aldaketa, gauzak egiteko beste modu bat, izan zuen hizpide koalizioaren ahaldu nagusigai Xabier Olanok ere. Candyko prozesua aipatu zuen, eta Barrusoren beraren eta Aldundiko taldearen lana goraiatu zituen.

Bergarara industria proiektu berria ekartzeko itxaropena agertu zuen Olanok. Euren bultzatzen duten eredu tokiko garapenera dela adierazi zuen, EAJren, PSE-EEren eta PPren ereduaren aurrean.

## EH BILDUKO HAUTAGAIEN ZERRENDA OSOA

1. Agurne Barruso
2. Lauri Askargorta
3. Arianne Kareaga
4. Gorka Artola
5. Leire Iruin
6. Joseba Moñux
7. Josu Elortza
8. Itsasne Luarizaristi
9. Aitor Arantzabal
10. Ainhoa Lete
11. Iker Inza
12. Bego Barrutia
13. Luis Mari Alberdi
14. Amaia Zabaleta
15. Xabi Lazkano
16. Jolanda Juaristi
17. Joxe Mari Arantzabal
18. Aitziber Plazaola
19. Txus Markez
20. Idoia Larrañaga
21. Pello Garitano

## Martxan da aisialdigune berria

Egubakoitzean estreinatu zuten Oxirondo azokako aisialdigunea. Espazio berriak ia 400 metro koadro ditu eta astelehenean hartu zituen lehen ekintzak. Aisialdigunean egon direnek begiz onez ikusi dute espazio berria.



IMANOL SORIANO

## Egoiliarrek Oxirondoko aparkalekuan txartela atera beharko dute

Martxoaren 17tik aurrera, TAO guneko egoiliar txartelak ez du Oxirondo ondoko aparkalekuan era mugagabean aparkatzeko baimenik emango. Udal araudian eginiko aldaketa baten ondorioz, aparkaleku horretan egoiliar txartela duten autoetako jabeek ere makinak emandako txartela atera beharko dute.

## Gaur ekingo diote irakurketa klubaren lehengo saioari

Haurren irakurketa sustatzeko sortutako saioak izango dira, eta horietan, txikiek gurasoen laguntza izango dute. Gaur eta datozen bi egubakoitzetan bi saio egongo dira. 17:15ean 3-6 urte artekoen txanda izango da eta 18:15ean 6-8 urtekoen taldea arituko da. Doakoak diren irakurketa saio horietarako izen-ematea haur liburutegian egin behar da.

## Musikari gazteak 'Mozkorra parregarri' obraren entseguan

Osoko bilkuren aretoan egingo den *Mozkorra parregarri* operaren berrestreinaldiaren aurretik, domekan, 18:30ean, entsegu irekia egingo da 7-16 urte bitarteko musika eskolako ikasleentzat. Guztira, 150 gonbidapen banatuko dituzte. Gogoan izan behar da emanaldietarako sarrerak pasaden astetik salgai daudela.

## Erabakitze eskubidearen ereduak

KOMUNITATEA GOIENA |  
GURE ESKU DAGO | BERGARA

Irizar jauregia txiki geratu zen, herritar ugari hurbildu baitzen hitzaldira. Bergarako Gure Esku

Dago lantaldeko Aitor Erañaren aurkezpenaren ondoren, Gillian Martinek hartu zuen hitza.

Women for Independence lantaldeko kide Martinek azken urteotan

Eskoziak bizi izan duen prozesua kontatu zuen. Erresuma Batuko gobernuak ezezkoren alde egin zuen kanpaina indartsua azpimarratu zuen, eskoziarrak beldurrarazi zituela azalduz. Ondorioz, erreferendumean ezezkoa eman zuen askok beldurratigatik izan zela aipatu zuen. Damutu omen daude horietako asko. Dena den, itxaropentsu ikusten du etorkizuna Martinek.

Alfons Behek, Kataluniako Asanblea Nazionaleko eta CCOO sindikatuko kide denak, erabakitze eskubidea bezalako oinarritzko eskubide den erabakitze gaitasunaren inguruan aritu zen. Hitzaldiaren ondoren, bi hizlariak herritarren galderak erantzun zituzten.



Irizar jauregian egindako ekitaldia. | BERGARAKO GURE ESKU DAGO



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

## Lehenbizi, lore eskaintza

Lokatza zikloturistek domekan Dorletako Amari egindako lore eskaintzarekin hasi zuten denboraldia. 25 bat zikloturista joan ziren eskaintzara, eta ondoren, Zuloa Elkartean mokadutxo egin zuten. Pasa den astean ekitaldia bertan behera utzi eta gero, atzo aurkeztu zituzten alebin, infantil eta gazte taldeak. Gogoratu behar da domekan 09:00etan irtenda Itziarera joan-etorria egingo dutela.

## Emakumeen Egunaren harira herrian antolatutako ekintzak

IMANOL GALLEGU | BERGARA

*Ez da kasualitatea* eraso sexisten eta indarkeriaren aurkako bertso saio musikatu antolatu dute gaurko, 20:00etan, Zabalgoin, lau euroren truke. Gertutasun horretan, aldarrikapenak eta umoreak ere tokia izango dute.

Martxantere domekan 18:00etan udaletxeko arkupeetan egingo dute argazki erakusketan parte hartzeko epea gaur bukatzen da. Gura dutenek argazkiak [martxaterak@gmail.com](mailto:martxaterak@gmail.com) helbidera bidal ditzakete.

### Datorren asteakoak

Ipintza Institutuak lila koloreko olatua irudikatuko du astelehenean. Ekintza horretarako, Boni Laskurain pasealekua lilaz edo morez jantzita dagoen jendez bete gura dute. Olatuarekin, emakumeen eskubideak aldarrikatu nahi dituzte, eta gizartean duten garrantzia zabaldu.

Emakumeek egun bertsolaritzan bizi duten errealitateaz egingo du berba Ainhoa Agirreazaldegik martxoaren 13an, Irizar jauregian, 18:00etan. Emakumeek berezko molderik ba ote duten eta halako gaiak landuko ditu bertsolariak.

## Valdezcarayn eskiatu ostean, Xabalote ohikotasunera bueltatu da

70 gazte zapatua eskiatzen igarozuten, eta, hezitzaileek esandakoaren arabera, egun ezin hobea pasa zuten. Asteburuan, Aste Santuko programaketa eta gaztelekuaren urteurren gertatzen hasiko dira. Domekan plazara gerturatu eta aldarriak nahiz leloak kleraz margotuko dituzte.

## Erramu Zapatuko bazkariko txartelak hilaren 12an salgai

Martxoaren 12an 19:30ean ekingo diote Erramu Zapatuko txartel salmentari. Horiak Domingoa Irala kalean jarriko duten postuan eskuratu ahal dira hamabi euroren truke. Pertsona bakoitzak, gehienez ere, lau txartel erosteko aukera izango du.

## Infantilek lehen final-laurdena jokatu dute gaur pilotalekuan

19:15ean Zestoako eta Bergarako infantilek jokatu dute Gipuzkoako lehen final-laurdena Udal Pilotalekuan. Horien ostean, Udaberriko Txapelketako kadete eta gazte mailako partidua jokatu dute. Txapelketa bereko nagusi mailako partidua aldiz, zapatuan, 10:30ean, jokatu dute.

## Udaberriko Ligako lehen igeriketa jardunaldia zapatuan

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Gipuzkoako Udaberriko Ligako Lehen Igeriketa Jardunaldia jokatu da bihar Agorrisin. Bergaran, honako igeriketa elkarre hauek ariko dira: Bidasoa, Legazpi, Oarsoaldea, Bergara, Atletico San Sebastian, Zarautz Baleak, Aloña Mendi eta Urbat. 150 bat igerilari, orotara.

Nerea Anduagak entrenatzen dituen neska-mutikoen ilusio handiarekin ekingo diote, azkeneko txapelketetan fin aritu dira eta. Domekan, bestetik, Legazpin jokatu den Eskola arteko 50 metroko Gipuzkoako finalean ere ariko dira Bergara Kirol Elkarteko igerilariak.

Igeriketa txapelketa dela eta bihar ezingo da erabili bainuontzi handia. Hala ere, jaioberrien ur jarduerak eta igeriketa eskolak berdinduko dira.

### Ur-jolasak domekan

Domeka arratsalderako (17:00-19:00) ur-jolasak antolatu dituzte. 8 urtetik gorako neska-mutikoendako puzgarriak eta jolasak antolatuko dituzte handian. Eta, txikian, 8 urtetik beherakoendako ur-jolasako materiala aterako dute.

Jolas horietan parte hartzeko baldintza bakarra da eguneko sarrera ordaindu edota abonatu izatea.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

## Primerako emaitzak Andoainean

Herriko piano jole gazteak ederto aritu ziren pasa den aste bukaeran Andoaingo hamargarren piano jaialdian. Musika eskolako hamazazpi ikasle joan ziren hara, eta sei urrezko domina, zortzi zilarrezko eta brontzezko hiru eskuratu zituzten. Amaia Urdangarin eta Elisabeth Mendiaratz irakasleek esan zuten, jaialdiaren maila oso handia izan arren herriko musikariek saio ezin hobek eskaini zituzten.

## Eskubalo taldeak partidu zaila izango du bihar Zarautzen

Azken jardunaldiko berdinetak ez du Bergara KE azken postuetatik atera. Bihar, sailkapenean gorago dagoen Txikipolit ZKE taldearen kontrako partidua ez da erronka erraza izango. Norgehiagoka Zarauzko Aritzbatalde kiroldegian jokatu da, 19:15ean.

## Jipoi galanta eman zuen azken partiduan saskibalo taldeak

Pasa den aste bukaeran 70-19 irabazi eta gero, saskibalo taldeko jokalariek bide bereetik jarraitu gura dute. Parean Oiarso taldea izango du Soralue Bergara KE taldeak. Domekan (11:45) Errenteriako Galtzaraborda kiroldegian jokatu dute.

## AITONAK

TABERNA  
(Jubilatuena etxea)

Bazkariak  
Afariak  
Ospakizunak  
Kintadak

ETOR ZAITEZ!  
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486  
Boni laskurain, 9 behea  
BERGARA

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

## Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

# Indarkeria matxistaren aurrean jarraitu beharreko protokoloa aurkeztu dute

- ▶ Erakundeak, elkarteak eta herritarrak batu dira emakumeen aurkako indarkeria bukatzeko
- ▶ Clara Campoamor elkarteko esperientzia eta laguntza beharrezkoak izan dira lan horretan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Indarkeria matxista eta sexu eraso egoeretan jarraitu beharreko protokoloa aurkeztu zuten atzo Eskoriatzako kultura etxean. Eraso jasan dutenei laguntza eta aholkularitza ematea da protokolo horren helburua, indarkeria matxistaren aurkako borrokan erakundearen kontzientziak eta ardura sustatuta, prozedura estandar bat sortuta gizarte zerbitzuen alorrean.

Indarkeria matxista edota sexu eraso jasan duten emakume eta neska-mutikoei harrera egiteko eta koordinatzeko udal protokoloaren aurrerapena iaz azaroan aurkeztu zuten, eta jendaurrean jarri zuten iradokizunak eta ekarpenak egiteko. Ondoren, protokoloa gizarte zerbitzuek landu dute Clara Campoamor elkarteko teknikariek batera,

eta herriko elkarten eta erakundearen ekarpenak jasotzen dituen liburuxka atera berri dute. Liburuxka hori herritar guztiek eskuratu ahal izango dute [www.eskoriatza.eus](http://www.eskoriatza.eus) webgunearen bidez.

**"Beharrezkoa ikusten dugu herrian oinarri bat izateko"**

**"Herritarren eta elkarten kolaborazioarekin oso pozik gaude"**

Liburuxkan azaltzen denez, laguntza espezializatua emango da zuzenean edo zeharka; eraso jasan duena gizarte zerbitzuetara joaten denean, Ertzaintzak edo osasun etxeren batetik bidalita joaten denean, egoeraren berri zeharkako kasuetan, seme-alaben inguruak arazoak antzematen dituztenean, orduz kanpoko eskaerak direnean... harre-ra emango diete. Arantza Iregi Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak hauxe esan du: "Berdintasuna landu behar da eta liburuxka hau beharrezkoa ikusten dugu kasu bat gertatzen denean oinarri bat izateko".

#### Hobekuntza proposamenak

Eskoriatzako Udaleko Gizarte Zerbitzuei babesa ematea da hobekuntzetako bat. Politika publikoetan emakumeek eta gizonek

tratu bera izatea, laguntza berezia ematea eta Gizarte Zerbitzuetara joaten diren nerabeei laguntza ematea dira proposamenetako batzuk, besteak beste.

Indarkeria matxistari eta berdintasunari buruz Eskoriatzan gertatutako jarduerak aztertuko dituzte: "Herrian zer bizi den ezagutuko dugu, herriaren beharrrak eta aukerak herritarren esku jartzeko".

#### Gizarte Zerbitzuen laguntza

Herritar guztiei zuzendutako Gizarte Zerbitzuen kontaktua 943 71 31 36 telefonoa da. Erasoren bat jasan duenak edo informazioa behar duenak laguntza izango du bertan.

Bestalde, protokoloa irakurtzera animatzen du Udalak, erasoaren aurrean zelan jokatu behar den jakiteko.

## Tea hartuko dute eta bingoan jardungo dute emakumeek

Eskoriatzako Auzoko egitasmoak kideek Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute gaur. Egun horren harira, lehen aldiz antolatutako ekintza izango da Eskoriatzan. Izan ere, iaz taldea guztiz osatu gabe zegoen eta ez zuten ekintzarik prestatzeko aukerarik izan.

18:00etan elkartuko dira Eskoriatzako kultura etxean jatorri eta inguru askotariko emakumeak. Bertan, tea hartuta eta bingoan jolastuta, elkar ezagutu eta euskaraz hitz egiteko aukera izango dute. Hori horrela, Auzoko emakume taldeak hitzordura gerturatzeko gonbidapena egin die Eskoriatzako emakume guztiei. Elkarrekin arratsalde-pasa ederraz gozatzeko asmoz.

## Martxan dago Debagoieneko autobus zerbitzu berria

I.B | ESKORIATZA

Domekan autobus zerbitzu berria jarri zuten martxan, herritarren eskakizun eta ekarpenak kontuan hartuta. Eskoriatzako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Arloaren lankidetzaren bitartez, autobus zerbitzu eraginkorragoa izatea nahi dute, eta ingurumena errespetatuko duena. Hori horrela, Arrasate eta Eskoriatza bitartean autobusen maiztasuna handitu eta hamabost minutuan behin egongo da zerbitzua bi zirkularren bidez.

Bi linea zirkular horiek herriko geltoki guztietan geratuko dira, baina Aretxabaletatik datozenean Aingeru Guardako geltokiraino joango dira, eta handik jaitsiko dira gainontzeko geltokietara: Jose Arana kaletik pasatuz, bidea irekita dagoenean, eta saihesbidetik buelta emanez, bidea oinezkoentzat bakarrik dagoe-

nean. Ibilbide luzeko lineak identifikazio berria eramango dute eta Gasteizera eta Donostiara doazen zerbitzuak Gorosarriko geltokian bakarrik geratuko dira, orain arte bezala.

Datozen asteotan ibilbide berri hori erabiliko da, baina egokitzapenak izan daitezke beharrezko ikusten den kasuetan.

#### Leintz Gatzaga-Eskoriatza

Aste osoan linea berri bat jarri da martxan Leintz Gatzaga eta Eskoriatza bitartean. Arrasateko Ospitaletik hasita, Intxaurtxueta, Gorosarri, Aingeru Guarda, Kua-truena, Mazmela, Marulanda, Gatzagako frontoia, Gure Ametsa jatetxea eta buelta egingo dute.

Lehen asteetan ordutegi finkoa izango du zerbitzu horrek, eta eskaripeko sistema bidez funtzionatuko du berriz osotasunean martxan jartzen denean.



Autobusa Eskoriatzako erdiko kaleko biribilgunean. | IMANOL BELOKI

## 'Nola belztu behar zuria' ikuskizuna izango da Zaldibarren

Bide Ertzean taldeak, Asier Sarasolak eta Oier Guillanek antolatutako ordubeteko errezitaldi musikatua izango da gaur, 22:30ean, Zaldibar antzokian, bi euroren truke. Zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogeita inguru errezitatuko dituzte Joxan Artzeren poemak oinarri hartuta.

## 'Código Atenea' antzerkia izango da zapatuan Zaldibarren

Zapatuan *Código Atenea* baka-rrizketa komikoa izango da Zaldibar antzokian, 22:30ean, gazteleraz. Hain zuzen, mitologia grekoaren oinarri moralak gaur egungo gizartearekin eta pentsaerarekin parekatzen ditu. Saio horretara joan nahi duenak lau eurotan izango ditu sarrerak salgai.

## San Pedro auzoa berrurbanizatzeko III. fasea dela-eta hitzaldia

Astelehenean, Eskoriatzako San Pedro auzoa berrurbanizatzeko hirugarren fasearen gaineko hitzaldia izango da Ibarraundi museoan, 18:30ean. Besteak beste, auzoaren gorabeherak, egin beharreko egokitzapenak eta moldaketak eta eskain daitezkeen zerbitzu berrien inguruan berba egingo dute.



ENERITZ ZUBIA

## Carlos Diezen arte erakusketa

Carlos Diez Crespo artistaren *Inintencionadamente* arte erakusketa egon da ikusgai aste osoan Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Orain arte erakusketa ikusi ez duenak datorren astean izango du aukera bisitatzeko, martxoaren 9tik 12ra bitartean, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, hain zuzen ere.



ANGELA VITA

## Gimnasia erritmiko erakustaldia

Esther Barcenilla entrenatzailearen gidaritzapean lanean diharduten neska benjaminiek saioa egin zuten pasa den astean Tolosaldeko Ibarraundi kiroledegian. Bertan, gimnasia erritmikoko benjamin mailako lehiaketaren lehen fasea jokatu zuten eta Aretxabaletako UDAko taldeak eta Eskoriatzakoek erakustaldia egin zuten.

## Berelanen estatutu proposamena onartuta

EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren ekimenaren "emaitza motzak" argudiatuta

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzeneko osoko bilkuran eztabaida gai nagusi bilakatu zen Berelan: Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroa. Bilduren aldeko bost botori esker, baina, estatutuak onartzeko proposamena aurrera ateratu zen. EAJ alderdiko bi zinegotziak abstenitu egin ziren.

Antzuolak orain dela hiru urte onartu zuen, Bergarako Udalaren eskariz, Berelanen, Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroaren, parte izatea. "Debagoieneko lan egoera ikusita, oso garrantzitsua da Berelanen jarduera. Horregatik, babes juridikoa izatea ezinbestekoa dela uste dugu", azpimarratu zuen Ima Beristain alkateak.

EAJko zinegotziek, aldiz, zalantza asko dituztela esan zuten. "Galdera ikur handia eta zalantzak sortzen dizkigu proposamenak; ez dugu ondo ulertzen. Atentzioa ematen digu planteamenduak, gainera. Gure Bergarako alderdikideek ere balorazio eskasa egin dute. Ekimen interesgarria izan daitekeen arren, Berelanen lana ez da asko izan eta emaitza motzak izan ditu. Bileraren bat eta esta-

tutuak egitea soilik", azaldu zuen Maria Eugenia Arrizabalaga EAJko bozeramaileak.

Horri erantzunez, alkateak azpimarratu zuen Ogasun Batzordean behin baino gehiagotan azaldutako eta sakondutako gaia izan dela. Ez dela kapritxo estatutuak egin gura izatea eta behar bati erantzuna ematea gura izan dela.

Antzuolako Berelaneko ordezkaria osoko bilkuren aretoan izan zen. Eta nabarmendu gura izan zuen zazpi urtean eboluzioa izan duen proiektua izan dela. "Berelanen parte hartu duen enpresa, norbanako eta unibertsitateek estatutuen onarpena behar-beharrezkotzat jotzen dute aurrera egin dezan", gaineratu zuen.

"Izan ere, helburua aterki juridiko bat izatea da ekimenak aurrera jarrai dezan eta orain artean egindako lana bertan behera ez geratzeko".

Bilduk nabarmendu zuen Berelanen estatutuak onartzea oso garrantzitsua dela; horregatik, hurrengo osoko bilkurara ekarriko dituzte, denek adostasuna eta onarpena izan dezaten.



Ima Beristain eta Eneko Azkarate kazetaria alkatearen bulegoan. | GOIENA

## Beristain: "Datorrenari laguntzeko prest egongo naiz"

Lau urteko lana baloratu du eta "pozik" azaldu da

A.E. / M.A. | ANTZUOLA

Goiena telebistako *Harira* saioan agintaldiaren balorazioa egin du Inma Beristain Antzuolako alkateak. Udaletxean egon ostean, gauzak beste modu batera ikusten direla nabarmendu du. Lau urteotan egindako lana baloratu du, eta pozik azaldu da egindakoarekin.

Zorra txikitu

2015eko aurrekontuak hobekuntza batzuk izan dituela dio eta

100.000 euro gehiago izango dituztela gastatzeko. Hala ere, Udalak zorpetze maila handia duela dio: "Zorpetze maila txikitu egin da, baina oraindik milioi eta erdiko zorpetzea dago. Zor handia da eta kontuz ibili behar dugu".

Auzo-konposta abian

Hiri hondakinak gaika jasotzen lehenengoak izan ziren antzuolarrak bailaran. Orain, herrian hainbat gunetan, arrakastaz, auzo-konpost guneak jarri dituztela

adierazi du. "Antzuolaren artean izan duen erantzuna ikusita, aurretiko aurrekontuetan ere diru-partida bat jarri dugu. Asmoa da herritar gehiagori aukera ematea eta konposta egiteko ontziak handitzen joatea. Gainera, konposta egiten dutenek %25eko hobaria izango dute", nabarmendu du.

Eskola txiki geratu da

Aurrefabrikatutako gelak jarri ziren 2013an eta 2014an; baina gehiagoren beharra dagoela dio Beristainek: "Antzuola hazi egin da, 2.198 biztanle inguru ditu, eta guk eskola handitzearen beharra ikusten dugu. Baina Hezkuntza Delegazioak ez du behar hori ikusten eta hor gabilta borrokan".

Zupideko biribilgunea

Beristain oso pozik agertu da Aldundiak aurten egingo duela Zupideko biribilgunea. Azpiegitura horrek herriari hainbat hobekuntza ekarriko dizkio. "Biribilguneari esker autobusa herri barrutik ateratzea lortuko da eta ez da eskola aurretik pasako", dio. "Lanak esleitu barik daude, baina asmoa da hilabete eta erdi barru esleitzea eta uztail ingururako biribilgunea eginda egotea". Bidegorria ere egiteko duten lanen artean dago. Herritarrekin adostuta, lehenengo, Zupideko biribilgunea egingo da. Ondoren etorriko direla bidegorria eta beste azpiegitura batzuk dio.

Maiatzean etapa berria

Ez du alkate moduan jarraituko. Hala ere, etorriko direnei laguntzeko prest dagoela dio. "Erabaki eta lan guztiak dute balorazio positiboa, ni horrekin geratzen naiz. Oso aberasgarria izan da niretzako. Uanean ukeno erabakiekin geratzen naiz". Maiatzetik aurrera beste etapa bat hasiko du.

## Hardcore doinu azkarrak eta biziak gaur gaztetxean

Fly Shit bergarrek eta Control de Plagas bilbotarrek zuzeneko indartsua eskainiko dute

M.A. | ANTZUOLA

Bergarako hardcore talde mitikoak *Barneko ahotsaren bila* diskoa kaleratu zuen iaz urrian. Gaur, egubakoitza, gaztetxean Fly Shit taldearen azken laneko kantuak entzungai izango dira; baina, nola ez, betiko kantuei ere lekua egingo diete gaur gaueko kantu zerrendan.

Fly Shitek hemeretzi urte beteko ditu aurten. "Betiko ildo beretik jarraitzen dugu, baina beste buelta erdi bat eman dio-

gula uste dugu. Askok erritmo ertainak dira, baina Fly Shiten etiketa ere hor dago: erritmo aldaketak, intentsitate aldaketak... Azken finean, denborak aurrera egin ahala influentzia berriak xurgatzen dira eta nahitaez igartzen dira. Eskola zaharreko hardcoretik geroz, baina hortik hasita hainbat adar ditugu gustuko", diote.

Bilbotik datorren Control de Plagas taldea ere indartsu taularatuko da, 22:30ean hasita.

### BE Cera joateko autobusean izena eman daiteke

EH Bilduk martxoaren 7rako, zapatua, ekitaldia antolatu du BE Cen. Antzuolako EH Bilduk herritarrei parte hartzeko dei egin die. Ekitaldi polita eta dinamikoa izango dela azaldu dute, sorpresa askorekin. Autobusean izena emateko aukera dago, gaztetxean edo [antzuela@ehbildu.net](mailto:antzuela@ehbildu.net) helbidera idatzita.

### OHARRAK

#### BERTSO MUSIKATUA

Martxoaren 13an, herritarrek prestatutako bertso musikatua, 22:30ean hasita.

#### INDEPENDENTZIA EGUNA

Martxoaren 14an, zapatuan, ospatuko da Independentzia Eguna. Bazkarira joateko izena eman daiteke gaztetxean. Umeendako merkeagoa izango da.

## Aste Morea borobiltzeko elkarretaratzea domekan

Udalak, gaztetxeak eta gazte txokoak Martxoaren 8aren harira ekintza ugari antolatu dituzte

M.A. | ANTZUOLA

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aldarrikatzeko helburuarekin hainbat ekintza egiten dihardute antzuolarrak. Aste Morea Udalaren, gaztetxearen eta gazte txokoaren arteko elkarlana izan da. Hala, domekan, Martxoaren 8an, bukaera borobila emango diote. Izan ere, elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan hasita, eta gazte txokokoek egindako murala izango da bertan.

#### Dokumental emanaldia

Martxoaren 11n, eguaztena, *Arrakala* dokumentala izango da ikusgai gaztetxean, 18:30ean hasita.

Bilgune Feministak eta *Topatu.info* komunikazio proiektuak elkarlanean abiatutako ekimena da Arrakala. Testigantzetan oina-

rritutako dokumentala da. *Heteroaraua* deritzotena gainditzeko asmoz sortutako tresna, ekimena da, Arrakala.

Hori guztiori modu parte-hartzaile eta dinamikoan egin gura dute, gainera. *Arrakala.net* webgunean elkarriketen aurrerapenak argitaratu dituzte dagoeneko. Baina egunerokoa ere jasoko dute; izan ere, jendea prozesuaren parte izatea du asmo.

"Hori beste arrakala baten hasiera besterik ez da. Arrakalak badira eta bagara. Haitza hankaz gora jarri nahi dugulako, lurrikararen beldurrik gabe. Haitzaren ertzetik, mundua arrakalatzera goaz", diote ekimenaren bultzatzaileek.

Horren guztiaren berri, gutitik, gaztetxean izango duzue, eguaztenean, 18:30ean.



Fly Shit bergarrek zuzeneko Txapa Irratiak antolatutako festan. | 15.

# Berdintasunaren aldeko leloekin inauguratuko dute bihar lau bankuko plaza

Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldien artean nagusienetakoa da, baita domekako agerraldia ere

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Eguna datorrela eta ekitaldi sorta antolatu du Aretxabaleko Udalak herritarrekin elkarlanean.

Indar handia hartu du egunak azken urteotan, eta aurten sekula baino handiagoa. Horren arrazoietakoa bat da Berdintasun Saila sortu izana. Orain dela lau hilabete inguru hasi zen lanean teknikaria, Amets Beltran de Gebara arrasatearra, eta horrek indartu egin du berdintasuneko ibilbidea. Ibilbide horretan Udaleko hainbat sail daude inplikaturik, baina orain, herritar talde bat ere hasi da lanean: "Gure helburuetako bat zen herritarrengana iristea. Izan ere, uste dugu herritarrek izan behar dutela protagonista. Hala, bada, hasi gara talde bat batekin lanean eta bi bilera egin ditugu dagoeneko", jakinarazi du Maider Aizkorbe, Berdintasun teknikaria.

## Bankuak margotzea

Udaleko hainbat sailen eta herritarren elkarlanaren emaitza izan da Martxoaren 8aren bueltan antolatutako egitaraua. Egun nagusia biharkoa izango da eta ekitaldi garrantzitsuenetakoa, Santa Kurtz kalean dagoen plaza txokoaren inauguratze ekitaldia: *Lau bankuko plaza, emakumeen baza* izena izango du. Berdintasunaren aldeko lelo lehiaketa ere deitu zuen Udalak plaza horren harira, eta ekitaldian emango dute irabazleen berri. Gero, margotu egingo dituzte lelo horiek.



Beltran de Gebara, Aizkorbe, Bolinaga eta Arenatza, plazan. | MIRARI ALTUBE

## EGITARAUA

### MARTXOAK 6

**11:00-13:00 eta 18:00-20:00**

Argazki erakusketa Arkupen: *Emakumeak Hushe haranean.*

**19:00** *Arrakala* dokumentala Arkupen; ondoren solasaldia eta mokadutxo.

### MARTXOAK 7

**10:00** Mural margotzea, Kurtzbarri eskolako patioan.

**09:30-19:30** Ixadebalde azoka, Mitarte kalean.

**12:00** Lau bankuko plazaren inaugurazio ekitaldia.

**19:30** *Fun Dantz!* ikuskizuna Ibarra kiroldegian.

### MARTXOAK 8

**12:00** Emakumeen II. frontenis txapelketako finala, Iturrigorri pilotalekuan.

**13:00** *Feminismoarekin denok aurrera goaz!* agerraldia plazan.

**13:30** Herriko zebra bideen margotzea.

### MARTXOAK 10

**19:00** Antzezlan, Arkupen: *Prest gaude!* Lakrikun antzerki taldearekin (sarrera, 4 euro).

### MARTXOAK 13

**19:00** *Martxo* dantza ikuskizuna Jaikirekin, Arkupen.

# Ixadebalde azoka hamargarrenez egingo dute bihar

Hamabost komertzio elkartuko dira Mitarte kalean, sekula baino gehiago, eta bi taberna

M.A. | ARETXABALETA

Badator merkealdien azoka, Ixadebalde. Hamargarrenez egingo dute, Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta eta Udalak eta Eusko Jaurlaritzak babestuta. Sekula baino merkataria gehiago elkartuko dira oraingoan, Mitarte kalean –euria eginez gero Herriko Plazan–, hamabost guztira. 09:30etik 19:30era bitartean herritarren zerbitzura izango dira.

## Atai lehenengoz

"Sekulako eskaintzak izango dira oraingoan ere, jenerorik onena merke-merke. Batzuek neguko arropak eta oinetakoak eroango ditugu, eta beste batzuek atzera geratutakoak", dio Idoia Elexpuru, Aretxarte presidentea eta Belar Metako uzazabak.

Hona Mitarte kalean izango diren dendak: Amaia ume denda; Asensio; Atai; Belar Meta; Benito oinetakoak; Brasileña kafetegia; Gertu janari prestatuak; Haurrak; Kilima; Kioskoa; Mari Merke; M5 kirol denda; Tinta Beltza; Titare; eta Zubia. Eta taberna bi izango dira horiekin batera: Akorde eta Orly. Gure Esku Dago oihalak erosteko aukera ere egongo da.

## Tailerrak eta zozketa

Musika lagun dela giro bikaina izango da Mitarte kalean, eta arratsaldean, 16:30etik 19:30era bitartean, neska-mutikoen tailerrak izango dituzte, asper ez daitezela. Azoka itxi aurretik, gainera, bertan erosketak egingakoen artean urdaiazpiko bi zozketatuko dituzte.



laz neguan egindako azoka, Mitarte kalean. | GOIENA

## NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ



## Neska edo mutila

Iburutegiko txiki txokoan geunden nire zortzi hilabeteko alaba eta biok, bera lurrean nolabait mugitzen eta ni aldizkariak ikusten. Bat-batean, hor zebilen ume batek guregana hurbildu eta galdetu zidan: "Zergatik dauka jantzita pijama?". Eta nik aitortu nion goizean ez niola kendu pijama eta horregatik jarraitzen zuela pijamaz. Erantzuna oraindik airean zegoela berak beste galdera bat bota zidan: "Nola dauka izena?". Eta esan nion: "Neskaitila honek Alba dauka izena", eta berak: "Baina mutila da!". Nik orduan:

"Ez, neska da". "Pero va de chico", esan zidan gaztekeraz. Galdetu nion zergatik, baina ez zuen erantzun; horren ordez, beste milaka galdera egin zizkidan. Alabak belarritarik ez daukalako? Edo pijama zuria eta marroia duelako? Ni horretaz pentsatzen geratu nintzen.

Harritu ninduen 3 urteko ume batek hain argi izateak neskek edo mutilek nolakoak izan behar duten. Gero gogoratu nintzen nire semea 4 urterekin hasi zela esaten arrosa kolorea nesken zela. Zein azkar ikasten diren estereotipoak. Txikitatik goaz gure kaiola eraikitzen gure familiakoen eta inguruko laguntzaz. Hormak garden-gardenak dira, baina sendo-sendoak.

**"Zein azkar ikasten diren estereotipoak"**

## Itxita dago Otalora kalea lanek iraun artean

Otalora kaleko galtzada-harria kentzeko lanak astean hasi dituzte eta horretarako kalea itxi dute. Autoen joan-etorria errazteko Basabe bidea eta Durana kalea 24 orduz daude zabalik orain. Eta lanok iraun bitartean Errekabarren kalean ez da autobus geltokirik egongo, Txarapea kalera aldatu dutelako horien ibilbidea.



# Gasteiz eta Aretxabaleta nor baino nor gehiago

Emakumeen bigarren frontenis txapelketaren finala jokatuko dute Iturrigorri domekan, 12:00etan

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Finalera iritsi da emakumeen bigarren frontenis txapelketa. Partidu dotoreak kantxan, giro bikaina harmailetan eta emakumeak protagonista izan dira aurretan ere. Baina oraindik domekako geratzen da. Lehenengo, hirugarren eta laugarren postuak izango dira jokoan eta gero, finala. Ostean, sariak banatuko dituzte eta gero, mokadutxo eskainiko diete elkartutako guztiei. "Festa eguna izateaz gain, aldarrikatzeko eguna ere bada, eta anima daitezela herritarrak bertaratzera", adierazi dute antolatzaileak, UDAko kideek.

## Gasteiztik jokatzera

"Giro polita izan dugu eta jokalariek gogotsu ibili dira", jakinarazi dute UDAkoek, eta gaineratu: "Partidu batzuk lehia handikoak izan dira eta beste batzuk ez hainbeste, baina helburua emakumeek parte hartzea zen eta hori behintzat beteta". Finalera iritsi den bikoteetako bat, Nago-

re Martin eta Laura Saez, Gasteiztik etorri da. Beste maila batean daudela erakutsi dute, baina pozik hartu dituzte gainerakoek: "Politza izan da maila horretako jendea gurerik etortzea, besterik ez bada erreferentzia moduan!", jakinarazi dute. Hala, Oihana Mata eta Leire Valle aretxabaletarrek ez dute samur izango finalean.

UDAko kideek uste dute indarra hartu duela txapelketak; izan ere, hainbat jokalarik lehenengo hartu dute parte eta gustura jardun dute: "Pentsa, bukatzeko penatan daude". Eta ikusle egon diren batzuk jokatzeko gogoz geratu dira. Hala, bada, datorren urtekoan pentsatzen hasita daude dagoeneko hainbat.

## EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

### FINAL-LAUDENEN EMAITZAK

Urri Urizar - Miren Antxia / Oihana Mata - Leire Valle	3-25
Oihana Irazu - Anabel Mondragon / Nagore Martin - Laura Saez	5-25
Maite Fraile - Maite Otxoa / Naiara Amezcua - Anais Fernandez	25-21
Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Ariane Unanue - Ibone Arrieta	25-10

### FINALERDIEN EMAITZAK

Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Oihana Mata - Leire Valle	14-25
Nagore Martin - Laura Saez / Maite Fraile - Maite Otxoa	25-3

### HIRUGARREN ETA LAUGARREN POSTUAK ETA FINALA

11:30 Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Maite Fraile - Maite Otxoa
12:00 Nagore Martin - Laura Saez / Oihana Mata - Leire Valle



ENERITZ URRUTIA

## 180 zuhaitz landatu ditugu!

KOMUNITATEA GOIENA | Zapatuan, 10:00etan elkartu  
LANDAKETA TALDEA | ARETXABAETA ginen hamabost laguneko taldea eta tirri-tarra, tirri-tarra, 12:00etarako desafioa -Arbizelain, 150 zuhaitz landatu baietz!- samur gainditu genuen eta pasatu ere bai. Azkenean, 180 zuhaitz landatu ditugu! Gustura geratu gara guztiok, bai antolatzaileak, eta baita bertaratutako boluntarioak ere.

## Antzerki astean murgilduta daude Kurtzebarri eskolako artista handiak

KOMUNITATEA GOIENA |  
KURTZEBARRI ESKOLA | ARETXABAETA

Kurtzebarri eskolan antzerki astea ospatzen ari gara. Lehen zikloko ikasleak dira artistak -6 eta 12 urte bitartekoak- eta gustura ibili dira beraien antzerkiak, abestiak, dantzak, txotxongiloak... prestatzen. Lan hau guztia egin dute gurasoei, aito-

na-amonei, anai-arrebei, lagunei... erakusteko eta zein artista handiak diren ikus dezaten.

Astelehenean hasi ginen emanaldiekin eta aretoa bete-beteta egon zen. Datorren astean, astelehenean eta martitzenean egingo ditugu azken emanaldiak, 17:30ean. Animatu eta etorri gure artistak ikustera!

## Korrikaren motorrak berotzen dabilta

M.A. | ARETXABAETA

Joan den egubakoitzean egindako jaialdiarekin hasi dira Korrikaren etorrera girotzen Aretxabaletan. Testiguak margotu zituz-

ten umeek eta lehen korrika saioak egin martxoaren 23ari begira, eta helduek kantuan jardun zuten.

Hurrengo jaialdia martxoaren 13an, egubakoitza, egingo dute

(batzarra, ostera, martitzenean da, martxoak 10, 17:00etan, Arkupe). Arratsaldean *Mihiluze* erraldoia izango dute gaztetxoek plazan -12 eta 17 urte artekoak-, eta aurretik eman behar dute izena gaztelekuan. Iluntzean, ostera, pintxo-txikiteo berezia egingo dute Aretxarteko tabernetan.

Lekaixoka bertso eskolak eta Loramendi elkarteak antolatuta, bertso afaria izango da gero Urutz Alde elkartearen (21:00). Fredi Paia eta Inigo Mantzizidor *Mantxi* bertsolariak izango dituzte lagun. Txartelak salgai dauzkate Gurea tabernan eta Loramendi elkartearen; eta prezioa da 18 euro Loramendiko bazkideendako eta 20 euro gainerakoendako.



Umeak, joan den egubakoitzean, testiguak eskuan dituztela. | IMANOL SORIANO

## Gurasoen prestakuntza saioetarako izen-ematea gaur bukatuko da eta hilaren 11n egingo dute lehena

Gurasoendako prestakuntza saioak antolatu ditu Guraso Foroak eta izena emateko epea gaur bukatuko da. Arkupe kultura etxera jo behar dute interesatuek. Nerea Mendizabal adituak gidatuko ditu saioak, eta lehenengoa da haurren autoestimua gaineratzea. Martxoaren 11n euskaraz izango da eta martxoaren 18an gazteleraz (18:00-20:00). Bigarren saioa, ostera, jotzeko ohituraren gaineratzea da: *Nire semea/alaba jo egiten dute, jo egiten du*. Martxoaren 25ean egingo dute, bai gazteleraz (15:00-17:00), bai euskaraz (18:00-20:00). Guztiak Ibarra kiroldegian dira.

## Hondakinen ontziak 19:00etatik 23:00etara bitartean atera beharko dira astelehenean hasita

Etxeko hondakinak jasotzeko ordutegia aldatu egingo dute, eta, astelehenean hasita, martxoak 9, 19:00etatik 23:00etara bitartean atera beharko dituzte aretxabaletarrek esekitokitara hondakinez betetako ontziak. Aldaketa hori egingo da hondakinak jasotzen dituen kamioia gauean pasatuko delako, eta ez, orain arte legez, goizean.



# IXADEBALDE

Aretxabaletako X. merkealdi azoka

Martxoak 7, zapatua. 09:30etatik 19:30era  
Mitarte kalean. Eurria egingo balu, Herriko plazan.

- Arratsaldean jolasak izango dira umeentzako. (16:30-19:30)
- Bi urdaiazpiko zozketatuko dira.
- Aretxarteko tabernetan erabiltzeko, 20 euroko 14 bono zozketatuko dira.

Akorde/Orly  
Amaia ume denda  
Asensio  
Atai  
Belar Meta  
Benito oinetakoak  
Brasileña akeita etxea  
Gertu  
Haurrak  
Kilima  
Kioskoa  
M5  
Mari Merke  
Tinta Beltza  
Titare  
Zubia Oinetakoak

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK



# Jardunaldi berezia bihar herriko plazan, herri burujabea helburu

Udalak, ekonomatuak eta Amillena Turismo Taldeak antolatu dituzte ekintzak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

*Ttiti-Ttapa... pausoz pauso, Aramaio burujaberantz!* Izen hori jarri diote antolatzaileek bihar-ko jardunaldi bereziari. Helburua da energiaren, elikaduraren eta turismo eta aisialdiaren alorrean herri burujabearen bidean urratsak egiten jarraitzea. Udaleko ordezkariak gain, ekonomatuko eta Amillena Turismo Taldeko kideek ere hartu dute parte jardunaldiaren antolakuntzan.

Goiz osorako ekintzak antolatu dituzte, guztiak Bizente Goi-koetxea plazan eta Sastiñan. 10:30ean hasita, bertako produktuak erosteko aukera egongo da, eta, bitartean, Sastiñan zenbait bideo erakutsiko dituzte: *Baso ahaztuak* ikus-entzunezkoa, *Bide berriak* dokumentala eta Amillena taldearen bideoa.

## Sentsibilizatorako azalpenak

Ondoren, 11:30etik 11:45era, biomasa proiektuaren gaineko azalpenak emango dituzte Sastiñan, eta, herritarrek proiektura atxikitze, Arteman komunikazio enpresakoek sentsibilizazio kanpainaren gaineko argibideak emango dituzte. 11:45ean, berriz,



Ekonomatuko produktuak dastatzeko aukera egongo da bihar. | JOKIN BEREZIARTUA

Amillena Turismo Taldeko kideek euren proiektua aurkeztuko dute eta 12:00etatik aurrera ekonomatuko produktuekin egindako pintxo dastatzea egongo da. Dastatzearekin batera, ekonomatuko ekimenaren gaineko azalpenak emango dituzte Sastiñan, elikadura burujabearen bidean urratsak egiten ari den taldearen adibide moduan. Era berean, 11:00etatik aurrera, biomasa proiektuaren gaineko xehetasunak ematen dituen erakusketa dinamikoa jarriko dute. Antolatzailak datorren astean egingo dute jardunaldiaren balorazioa.

## Martxoak 8: Emakume Astea

Bestalde, Martxoaren 8aren bueltan aste osorako ekintzak antolatu ditu Itur-Zuri Emakume Elkarteak. Domekan, hilak 8, bingo bazkaria egingo dute Añai tabernan (14:30). Hilaren 10ean, *Frida Kahlo* pelikularen bueltan bideo-kafea antolatu dute kultura etxean (18:00), eta hilaren 11n, kontzertua eta luntxa izango dituzte Sastiñan (19:00) herriko gazteen trikiti eta gitarra doinuekin. Amai-tzako, hilaren 12an, 12 urtetik gorakoendako *Mari Errauskin eta dantza libre*a ipuin musikatua egongo da Sastiñan (19:30).

## Igoa eta Amilburu, aramaioarren lan ona borobiltzera

J.B. | ARAMAIO


Bihar jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketako azken finalurrekoa, Langraiz Okan (gizarte etxean, 17:30ean). Xabi Igoak eta Paula Amilburuk osatuko dute herriko ordezkariak eta orain arte aramaioarrek egindako lan ona borobiltzeko asmoz joango dira. Izan ere, bihar-ko saioaren ostean jakingo da zeintzuk izango diren martxoaren 21eko finalerako sailkatuko diren sei bertsolariak; sarrerak salgai daude dagoeneko. Joan den zapatuan Zigoitian jokatutako kanporaketan Manex Agirre izan zen onena; Agirre da, Oihane Perearekin batera, bi itzulietan puntu gehien lortu dituen bertsolaria.



Agirre, Zigoitiko saioan. | BERTSOZALE

## NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



Anumerismotik heziketa finantzariora

Zenbakiak eta bere esanahiarekin zailtasunak dituzten jende ugari dago, anumeriko terminoak izendatu zituen John Allen jaunak. Ehunekoak, zenbaki oso handiak / oso txikiak, esponentzialak, azalera, bolumenak... Mundu bat dago zenbakiaren atzetan.

Zenbakiaren ondo moldatzen diren pertsona asko daude eta beraien artean maltzur, zeken eta sotskariak direnak. Hauek, matematika konplexuak erabiliz herritarrei, kalte izugarriak eragin dizkiotenak. Finantza munduan lortu dituzte irabazi itzelak baina hor, batek irabazteko, besteak ordaindu behar du. Gu gara ordaintzen ari garenok.

Egindakoa zuritu nahian eta beren jarduerari etenik emateko asmorik gabe, orain, gazteak finantza munduan hezi nahi dituzte. Ez diete deribatu finantzarioak erakutsiko (SWAP, CDS, ...) konplexuegiak baitira.

Gauza oinarrikoak erakusten dituzte: "Lehenengo ordaindu hipoteka eta sobera baduzu jatekoa erosi".

Hori da gobernatzen gaituztenen heziketa finantzarioa. Nik badut ikasgai simple bat: "Ez fidatu inoiz bankuek, aukeratu ondo zurea, badira balore etikoak dituztenak-eta".

Eta gogoratu Henry Ford jaunak esana: "Ona da herriak ez ezagutzea nola funtzionatzen duen gure Banku Sistemak, hau gertatuko balitz, bihar goizean baino goizago iraultza bat emango litzateke-eta".

## 'Jostunak' dokumentala erakutsiko dugu gaur kultura etxean, 19:00etan

KOMUNITATEA GOIENA  
GURE ESKU DAGO | ARAMAIO

*Jostunak, herritarren borondateak jositako istorio bat* dokumentala aurkeztuko dugu gaur, 19:00etan, kultura etxean. Gure Esku Dago dinamikatik jakinarazi gura dizuegu gure herria

borondateen eta identitateen mosaiko bat dela, kolore eta trazu oso ezberdineko herritarrek elkarrekin bizi diren lur eremua.

Durango eta Iruñea artean 2014ko ekainaren 8an marraztu zen irribarreak borondate horiek guztiak jostea zuen helburu eta jostun-lanean jardun zuten horre-

tarako milaka herritarrek. *Jostunak* herritarrek protagonista bilakatu dituen ekimen horren kontakizuna da, titular handietara iritsi aurretik ezberdinen artean sortu den konplizitate horren kronika. Iraganeko ezina gaurko ekimen eta bihar-ko itxaropen bihurtu dituzten jostunen istorioa.

Parte-hartzaileen artean daude, besteak beste, Garbiñe Biurrun epailea, Jaurlaritzako sailburu ohi Gemma Zabaleta, ELAko idazkari nagusi izandako Jose

Elorrieta, Karlos Garaikoetxea Lehendakari ohia eta Tomas Urzainki historialaria.

## Ekainaren 20ra begira

Urtarrilean aurkeztu genuen *Era-bakia ehuntzen* egitasmoa, eta denok dakigu ekainaren 20an izango dela ekitaldi handia. Egun horretarako oihal zatiak ekonomatoan eta Gure Esku Dagoko kideok egubakoitz arratsaldetan eta beste ekitaldietan jarriko ditugun mahaietan erosi ahalgo dira.

## Fagor Etxetresnetako kaltetuen eta Mondragon Taldearen artean bitartekari izatea onartu du Udalak

J.B. | ARAMAIO

Fagor Etxetresnen itxieragatik kaltetutako plataformetako kideak azken osoko bilkuran izan ziren, Udalarri eskatzeko Mondragon Taldearekin bitartekaritza lanak egin ditzala. Ordaindu eta gainerako plataformek elkarriketa gura dute Mondragonekin arazoari konponbidea emateko. Aho batez onartu zuen udalbatzak kaltetuek aurkeztutako mozioa.

Ordaindu plataformako eledun Mikel Olabe pozik agertu zen Udaleko hiru taldeek euren eskaerak babestu zituztelako, esandako moduan aho batez, eta bere-

ziki interesgarria iruditu zitzaizkion alkateak amaieran izan zituen hitzak: "Alkateak esan du, gutxi gorabehera, Fagor Etxetresnen itxierak eragindako arazoari kooperatiba guztien artean eman beharko zitzaizkion konponbidea. Oso interesgarria iruditu zaigu", adierazi zuen Olabek.

Bestalde, Espainiako Gobernuaren ordezkari Carlos Urkixok euskararen aurka udaletan egindako esku-hartzeak salatzeke mozioa ere aho batez onartu zuten, eta Udalak berretsi egin zuen euskara sustatzeko ahaleginean egiten ari den lana.



Ordainduko Mikel Olabe mozioa defendatzen, osoko bilkuran. | JOKIN BEREZIARTUA

## EAJren eskaerak eta kritikak

Osoko bilkuraren amaieran, eskaren eta galderen tartean, EAJko Iñaki Nafarratek hainbat kontu salatu zituen: aurrekontuak oraindik onartuta ez egotea, Plan Orokorren behin betiko onarpenik ez izatea, Mendiolako zentroaren egoera "negargarria" dela eta osoko bilkurak egiteko datak ez

direla betetzen, besteak beste. Honako hau ere gaineratu zuen Nafarratek: "Dekretuaren bidea hartu du gobernu taldeak eta horrek gai batzuk batzordeetatik ez pasatzea dakar. Hirigintzan, zerbitzuetan eta bestetan hainbat gauza daude egiteke; kudeaketa faltagatik eta utzikeriagatik arazo larriak sortu dira", uste du.

## "Batek irabazteko besteak ordaindu behar du; gu gara horiek"

## Jaialdia egingo dute hilaren 13an Korrika badatorrela ospatzeko

Bertsolariak, trikitilariak, abesbatzak, dantzariak eta musikariak izango dira protagonista Korrikaren etorrera girotzeko hilaren 13ko jaialdian. Kiroldegian izango da, 18:30ean, eta sarrerak salgai daude Anboton, Ekin, Añain eta Ibarra okindegian, bi eurotan. Hilaren 23an helduko da Korrika Aramaioa, 09:25ean.



## ELGETA

# Bi hautagaitza lanean: Elgetako EH Bildu eta Gu Geu plataforma

Patxi Basauri ez da hauteskundeetara aurkeztuko eta EAJ, "ziurrenik ez"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako hautagaitza prestatzen dihardute Elgetan, gutxienez, bi taldek: Elgetako EH Bildu eta Gu Geu plataformak.

Patxi Basauri jeltzaleak jakinarazi du ez dela udal hauteskundeetara aurkeztuko. EAJren hautagaitzari buruz esan du "ziurrenik" ez dela egongo, "nahiz eta azken erabakia EAJko herri batzarrak duen".

## EH Bildu batzarra domekan

Elgetako EH Bildu sei herri batzar egin ditu azarotik hona, eta domekan, martxoak 8, *Elgeta elgetarrekin* ekimenean parte hartzeko dei egin die herritarrei. Urtarrilean jakinarazi zuen Elgetako EH Bildu hauteskundeetara aurkezteko hautagaitza "guztien artean" erabakiko zutela, eta hasita zeudela herritarren pro-

posamenak eta nahiak jasotzen. Domekan, 17:00etan, egingo dute *Elgeta elgetarrekin* ekimena Espaloia kafe antzokian. "Bertan, herritar bakoitzak aurkeztuko ditugun arloetatik gustuko dituen aukeratu ondoren, talde txikitik burutuko den dinamikan nor bere kezka, ideiak, iradokizunak... azaldu ahal izango ditu, eta baita arlo horretan orain arteko herri batzarretan landu denaren inguruko iritzia eman ere". Kafe baten bueltan egingo dute lanketa. Guraso diren haurrendako plangintza bat ere iragarri dute.

## Gu Geu plataforma

Gu Geu sortzeko saiakeran dagoen Elgetako herri plataforma da. Herritarrekin eta herritarrendako sortu gura dutela adierazi du Marta Torres elgetarrak, eta irekia, apolitikoa eta asanblearioa

dela azaldu du. Hautagaitza bakarrarekin udal hauteskundeotan "pobre" ikusten dute Elgetako agertoki politikoa. "Beste aukera bat izan gura dugu, boto alternatiba bat", adierazi du.

Uneotan, hautagaitza sortu ahal izateko jendearen parte hartze aktiboa bilatzen dutela azaldu dute Gu Geu plataformatik: "Herriarendako den proiektu batean sartzeko eta konpromisoa hartzeko prest dagoen jendea", esan dute. Hala, bilera irekia deitu dute martxoaren 13rako, barikua. Udal Liburutegian elkartuko dira, 19:30ean. Herritar guztiei egin diete gonbidapena. "Ikusi behar dugu hautagaitza sortzeko aukera errealistik dagoen", esan dute. Taldearekin harremanetan jartzeko, galderak egiteko edo proposamenak egiteko, [gugeuelgeta@gmail.com](mailto:gugeuelgeta@gmail.com) posta elektronikoa sortu dute.

## OHARRAK

### IPIUINEN ORDUA

3 urtetik gorako umeendako ipuin kontalari saioa egingo dute gaur, barikua, liburutegian. Boluntario batek egingo du, euskaraz, 17:25ean.

### MARTXOAK 8

Emakumeen Eguna dela eta elkarretaratzea deitu du Elgetako Udalak domekarako. 13:00etan egingo dute, Mendizaleen plazan.

### 'ONTZIRATU ZAITEZI'

Urtarrileko eta otsaileko zenbaki sarituak dira: Goikoetxe harategia: 6.409 eta 6.568; Amagoia arrandegia: 4.569 eta 4.657; Ugari: 533 eta 579; eta Erdiko denda: 1.826 eta 1.854.



LZ

## Elizaren atzeko aldea arriskutsu

Hesituta dago elizaren atzeko aldean dagoen San Roke eta Artekale kaleen arteko pasabidea, azken denboraleekin horma zati batzuk jausi egin direlako. Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik adierazi du harremanetan direla aseguru etxearekin, eta eraikineren jabe den Gipuzkoako Elizbarrutia ere egoeraren jakitun dela.

## LEINTZ GATZAGA

Ander Larrañaga | Film laburraren egileetako bat

# "Barruko eszenak hemen, Soran jauregian, grabatutakoak dira"

Film laburra eta bazkaria (izen-ematea Labidean), Emakumeen Egunaren harira, martxoaren 14an

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

*Anonymous*. Hamabi minutuan bi istorio paralelo kontatzen dituen film laburra da. Hiru sari eskuratu zituen iaz, bi lehiaketatan: Huhezinean, fikziozko lanik onenaren saria eta Lekeitioko Euskal Zine Bileran, ekoizpen onenaren saria eta emakumearen irudia ondoen tratatzen duenarena. Hori abiapuntu eta Ander

Larrañaga gatzagarra lanaren egileetako bat dela aintzat hartuta, martxoaren 14an (zapatua) Sorginak elkarteak film laburra emango du.

### Bi istorio dira; bata?

Bata da ama baten eta alaba baten artekoa. Kontrako izaerak dituzte. Alabak grafiti errebindikalistik egiten ditu, *money is your god* (dirua da zuen jainkoa) modukoak.

Eta ama da justu kontrakoa: enpresa inportante baten egiten zuen lan, baina bota egin zuten eta orain etxe bat garbitzen dihardu. Baina ez dio inori ezer esan. Eta dago diruz justu, diru asko jantzitan gastatzen duelako, hain justu, ordura arte izan duen estatus maila ez jaisteko. Behin alaba joaten da amak garbitzen duen etxera pintada bat egitera, maskaratuta. Amak ez du ezagutzen, eta makila batekin egurtu egiten du. Alabak badaki amaren egia, eta amak etxeratzean alabaren maskara aurkitzen du. Beraz, biek dakite bata bestearen egia, baina ez dute ezer esaten.

### Eta bigarren istorioa?

Krisiaren eragina. Orokorrean. Krisi egoerak zelan jende askoren kaleratzea ekarri duen, eta lehenagoko dilema: bata dirua izatea jainkotzat eta besteak justu kontrakoa errebindikatzea.



Ander Larrañaga. | GOIENA

### Zein izan zen zure zeregina?

Dena egin genuen MUko bost ikasleren artean: Ainhoa Gartzia, Andrea Lopetegui, Janire Zubizarreta, Odei Esnaola eta bostok. Soinuaz arduratu nintzen, kameiraz bestetan, zuzendari lanak...

### Non grabatu zenuten?

Kanpoko eszenak Donostian, kalean; eta barrukoak hemen (Soran jauregian) eta Donostiako Antiguako gaztetxean.

## Finalerdietarako azken bi txartelak egongo dira jokoan aste bukaeran

L.Z. | ELGETA

Dagoeneko sailkatuta daude Txapela eta Astuan Villa taldeak. Beste bi txartelak aste bukaerako jardunaldian erabakiko dituzte. Lehia egongo da, beraz, azkenera arte.

### Goleatzaileen zerrenda

*Pitxitxi*-en sailkapenean Haritz Gallastegi da zerrendaburua, 22 gol eginda. Mikel Beretxina-gak hamasei gol egin ditu, Jaime Aropeñak hamabost eta Alex Ferrerrek hamalau.

## ARETO FUTBOL TXAPELKETA

### AZKEN EMAITZAK

Txapela - Nahaste Borraste	<b>8-3</b>
Astuan Villa - Jaitxo	<b>5-2</b>

### PARTIDUAK, 7. JARDUNALDIA

Tzibaz United - Intxortas Crew
Txapela - Tzibaz United
La Kokotxa - Astuan Villa
Jaitxo - Nahaste Borraste

### SAILKAPENA

TALDEA	P	GOLAK ALDE	GOLAK KONTRA
Txapela	13	41	11
Astuan Villa	12	45	18
La Kokotxa	7	40	23
Jaitxo	7	34	18
Nahaste Borraste	6	28	32
Tzibaz United	4	20	25
Intxortas Crew	0	7	70

## Hamar ikastetxek egin dute Intxortako lubakiak ezagutzeko eskaera, martxorako eta apirilerako

Elgetako Udalak emandako datuen arabera bi hilabeteotan 250 lagunetik gora izango dira Elgetako memoria historikoaren euskal interpretazio zentroa ezagutzen. Hamar ikastetxek egin dute bisita eskaera. Ezohiko kopuru horrekin oso pozik daudela adierazi dute udal arduradunek.

## Eider Etxanizek jarraituko du udal administrari lanetan eta Iraitz Lazkanok gidari lanetan

Lan-poltsak berritzeko probak egin berri ditu Elgetako Udalak. Administrari laguntzaile lanposturako azterketan Eider Etxanizek atera du nota onena. Hala, beste bi urtez jarraituko du lanpostu horretan. Bisita gidari lanetan, berriz, Iraitz Lazkanok jarraituko du abendura arte.

## Bakarrizketen ondoren Manuel Goikolea magoa eta Los Chichos taldearen emanaldia Espaloian

Elgetako III. Monologo Mostraren azken ikuskizunak izango dituzte gaur eta bihar kafe antzokian —ikus 30. orria—. Martxoaren 20rako Manuel Goikolea magia ikuskizuna iragarri dute 14 urtetik gorako ikusleendako. Eta martxoaren 21erako Los Chichos taldearen agur-birako emanaldia.

## Gatzagarendako autobus zerbitzu berria, abian

Domeka ezker, Gatzagatik Arrasaterako autobus zerbitzua zabaldu egin du Gipuzkoako Aldundiak: Marisanetik ia orduro ateratzen da bat 06:40an hasita eta Leintz Gatzagako frontoian, Marulandan, Kuartruanan, Aingeru Guardan eta Gorosarrin ditu geralekuak. Eta zerbitzu horretatik bi -07:40an eta 09:40an Marisanetik irteten diren zerbitzuak- Debagoieneko Ospitaleraino iristen dira -08:25 eta 10:25-. Bueltarako ere ia orduro dago Gatzagara igotzeko aukera. Berez, eskarri-pekoko zerbitzua da, baina horretarako telefonoa aktibatu arte, autobusa gora eta behera ibiliko da etengabe.

Aritz Gordo | Argazkilaria

# "Kirol argazkiak dira denak, baina arlo pertsonala kontuan hartu gura izan dut"

- ▶ Arrasateko Kajoi tabernan jarriko du erakusketa
- ▶ 25 lan dira, batzuk bakarkako saioetakoak

XABI URZELAI | ARRASATE

Aritz Gordok (Arrasate, 1980) azken 10 urteotan egindako kirol argazki onenekin argazki erakusketa jarriko du Arrasateko Kajoi tabernan martxoaren 7tik apirilaren 8ra arte. Guztira, 25 erretratu aukeratu ditu Antonio Murilloarekin batera, eta metro bateko neurrian jarriko dituzte.

## Zer-nolako erretratuak ikusi ahal izango dira erakusketan?

Kirol argazkiak dira denak, baina bertan azaltzen diren pertsonaien arlo pertsonala islatu gura izan dut. Paisaien erretratuak ere gogoko ditut, baina zaila egiten zait horiei puntu pertsonala ematea. Hau da, Barrikako hon-

dartzara joaten banaiz, oso zaila da beste argazkilariek egiten ez dutena egitea, horri ukitu pertsonala ematea. Baina gauza bera gertatzen da Anoetan, edo Bernabeun. Argazkilaria mordo gauda gauza berari erretratuak atera eta atera, hor zaila da originala izatea. Baina, kirolari batekin hitzordua egiten dudanean, lekua aukeratzeko dugunean, argi aproposa dagoela ikusi, kirolaria zelan prestatzen den jaso, enkoardaketak bilatu... Beste balio bat ematen diet argazki horiei, nahiz eta, berez, egiteko argazki errazak diren; hau da, bakarkako saioetako argazkiek teknikoki ez dute aparteko zailtasunik. Esan gura nuke, baita ere, kirol argazkiak egitea obturadorea abiadura azkarrarean jartzea baino gehiago dela, nahiz eta jendeak kontrakoa pentsa [Barrez].

## Erreportaje batzuk bereziak izan dira.

Bai, eta pena eman dit, baina saio bakoitzetik argazki bakarrekin geratu naiz. Ez da geratzen ondo erreportaje batetik bizpahiru erretratu aukeratzea, ikuslea nekatu egiten delako, baina hori egiteko gogoz geratu naiz, gustuko argazki batzuk kanpoan geratu direlako.

## Kirol argazkiak dira denak, baina kirola arlo zabala da.

Bai, oso. Eta konturatu naiz niri gustatzen zaizkidan kirolak islatu ditudala erakusketan. Bueno, squashekorik ez dut sartu, eta lagun bat haserretu egin zait [Barrez], baina ez dut squasheko argazki oso onik, eta ez dut betelanik egin gura izan.

## Bestalde, gauza bat da kirola, eta beste bat txapelketak.

Ez dira gauza bera, inolaz ere. Hain zuzen, kirolaren barruan dauden arloak batu gura izan ditut. Erretratu batzuk bakarkako saioetan egindakoak dira, kirolariak zelan entrenatzen diren erakusten dutenak, eta badira txapelketetako eta lasterketetako argazkiak ere: Euskal Herriko Selektzio mendi lasterkariekin, futbol jokalariekin, pilotariekin, surfariekin... Azken saio horiek



Aritz Gordo, Anoetan. | IÑIGO JIMENEZ



Erakusketan ikusi ahal izango diren adibideetako bi. | ARITZ GORDO

beste intentsitate bat erakusten dute, kontzentrazio handiagoa... Baina, halakoetan, kirolariak ez da inongo harremanik izaten.

## Futbol partidu bateko erreportajeak, esaterako, ez du kirolaria ezagutzeko aukerarik ematen.

Bakarkako saioetan protagonista, kirolaria bera, gertuagotik ezagutzen ahalegintzen naiz. Egia da kirolari asko lehenagotik ezagutzen nituela, asko lagunak dira; akaso, Markel [Irizar] izan da

## "Bakarkako argazki saioetan kirolaria gertutik ezagutzen saiatzen naiz"

## "Argazkiak saldu gura banitu, ez nituzke kiroletakoak aukeratuko"

lehenagotik ezagutzen ez nuen salbuespenetako bat. Berba asko egiten dugu halakoetan, gauza ezberdinez, eta asko baloratzen dut euren partetik ere proposamenak jasotzea, ideia berriak botatzea. Halako saioetan gozatzen dut gehien.

## Txarrena da erretratu horiek ez direla oso salgarriak.

Ez, oso argazki pertsonalak dira, eta halakoak ez dira saltzeko errazak. Baina helburua ez da argazkiak saltzea. Hori egin nahiko banu, ez nituzke kiroletako erretratuak aukeratu. Errazagoa da paisaien argazkiak saltzea. Aurrera begira, erronkarik?

Ba, akaso, lehenagotik ezagutzen ez ditudan kirolariekin leku berrietan argazkiak aterako nituzke gustura. Izan ere, Albiñako errepedeko zulo bakoitza buruz ezagutzen dut [Barrez]. Egia da jende ezagunaz leku ezagunetara joanda argazki onak ateratzeko aukera handiagoa dagoela, baina horrela lan eginda zaila da argazkilaria moduan haztea. Gauza berriak probatu gura ditut.

## Aretxabaletak eta Antzuolak indarrak neurtuko dituzte Ibarran

X.U. | ARRASATE

Bigarren derbia jarraian, domekan Antzuolaren eta Aloñaren artekoa jokatu ostean, Antzuolak protagonista izaten jarraitzen du-eta, baina domekan Aretxabaletan dute hitzordua (16:30).

Indartsua, orain arte; izan ere, Valleren mutilak txakalaldi ederrean murgilduta daude; Aurreraren 4-lekotik ez dute bururik altxatu. Hala, biak ala biak daude puntu beharrean: Muruaren eta Garinen mutilak geroago eta zailago dute mailari eusteko, baina, eurek aitor-tuta, azkenera arte ez dute amorerik emango. Aretxabaletak, oster, ezin du opari gehiago

egin; gainean dago Tolosa.

Joan den asteko garaipenari esker astea lasaiago pasa dute Aloña Mendiko mutilek. Baina bide luzea geratzen zaie egiteko; domekan, sailkapenean erdian dagoen Real Union izango da Azkoagainen (16:30).

Eta Bergarak ere beste horrenbeste, postu arriskutsuetan daude, eta bihar, zapatua, txukun dabilen Ordizia izango da Agorrosinen (16:30).

## Mondrak, bostetik bost

Zubiaren taldeak Sorluzeri irabazita gura du bolada onean jarraitu (zapatua, 16:30, Mojategi), seigarren garaipena lortuta.

## Andres de Regil saria jaso du Aitor Otxoa eskiatzaile oñatiarrak

Euskal Mendizale Federazioak otsail amaieran saritu zituen urteko kirolari onenak, Getxon egindako ekitaldian, eta Aitor Otxoa eskiatzaile oñatiarrak Andres de Regil saria jaso zuen, azken hamahiru urteetan mendiko eskian egindako lana aitortuta. Otxoak urtetan hartu du esku, esaterako, Pierre Menta lasterketan -aurtengoan ere egongo da-, eta, gertuago, Altitoyn -oraingo asteburuan. Hala, azken urteotan mendiko eskiari lehen baino denbora laburragoa eskaintzen badi ere, kirol horretaz gozatzeko jarraitzeko asmoa erakutsi du, maila apalagoan.

## Altitoyn lasterketak Debagoieneko eskiatzaile mordo batuko ditu Luz-en

Altitoyn Ternuaren 8. edizioak Debagoieneko eskiatzaile mordo batuko ditu asteburuan Frantziako Pirinioetan, Luz Saint Sauveurren. Azken edizioetan eguraldiak batere lagundu ez badu ere -azken orduan ibilbideak aldatu egin behar izan dituzte-, antolatzaileen helburu nagusia ibilbide zoragarri eta teknikoak eskaintzea izango da; adibidez, Pic de Midi de Bigorreko igarobidea (2.877 metro). Iaz bezala, A ibilbideak 2.500 metroko garaiera izango du, zapatukoan, eta 2.000 metrokoa, domekakoan. B ibilbideak, berriz, 1.300 metroko garaiera izango du etapa bakoitzean. Bi ibilbideak binakako taldez osatuak izango dira.

## Defentsa pertsonaleko doako mintegia antolatu dute biharko

Bergarako Shotokan klubetik, eta Martxoaren 8a gainean dela aprobetxatuta, emakumeei zuzendutako defentsa pertsonaleko doako ikastaroa antolatu dute biharko, martxoak 7, Bergarako Agorrosin kirolgunean (10:00etatik 13:00etara). Bailara osora dago irekita: "Helburua da ustekabeko egoeren aurrean emakumezko defentsan irakastea, trebetasun batzuk landuta eta trikimailu batzuk erakutsita. Horrekin batera, norberaren segurtasuna indartu gura dugu, ausardia eta kemena landuz. Izan ere, askotan beldurrak gure kontra jokatzen du", adierazi dute Shotokanetik.



Eskoriatzako areto futboleko talde argazkia. | XABI URZELAI

## ARETO FUTBOLA

## Domekan hasiko du ibilbidea Eskoriatzako nesken taldeak

Narciso Pavoren neskek 12:00etan jokatuko dute Manuel Muñoz kiroldegian Idiazabalen aurka

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Eskoriatzako nesken areto futbol talde berriak etzi egingo du estreinaldia. Ez da nolanhiko estreinaldia izango, gainera; etxekoan aurrean jokatuko dute, lehenengo faseko txapelaren aurka, Idiazabalen aurka. Norgehiagoka domekan izango da, 12:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.

"12 jokalariz osatutako taldea dugu. Talde gaztea gara, eta esperientzia gabekoa. Hala ere, ilusioa soberan dute neskek", azaldu du Narciso Pavok, Eskoriatzako entrenatzaileak.

Bailarako jokalariek

Eskoriatzan emakumezkoen selezio txiki bat sortu dute, Eskoriatzako jokalariekin batera Aramaiokoak, Aretxabaletakoak, Arrasatekoak eta Elgoibarkoak ere badaude-eta. Kategoria txikitian neskek mutilekin batera joka dezakete, baina adinean aurrera egin ahala jokatzen jarraitzeko aukera barik geratzen ziren. Hori izan da taldea sortzeko arrazoietako bat. "Hasiera honetan emaitzek ez dute horrelako garrantzirik izango. Mailari neurria hartzen joatea izango da asmoa,



eta datorren urtean liga gogotsu hastea", azaldu du Enrike Iregik, taldeko laguntzaile eta gurasoak. Bi lagunarteko jokatutako orain arte: bat galdu eta bestea berdindu egin dute.

## SASKIBALOIA

## Goi mailako lehia eskaini zuten Araskik eta EHUK

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako partidua izan zen Aretxabaletan jokatu zutena

JULEN IRIONDO/A.E. | ARETXABALETAN Emakumeen Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan, emakumezkoen lehenengo mailan ari den Gipuzkoa EHUK eta bigarren mailan diharduen Gasteizko Araski taldeak neurtu zituzten indarrak martitzenean Aretxabaletan, lagunarteko partiduan. Ikuskizun polita eskaini zuten bi taldeek, eta Ibarra kiroldegian batutako zaleek gozatzeko modua izan zuten.

Hirugarren laurdenera arte

Araskik nahiko ondo eutsi zion Gipuzkoa EHUKi hirugarren laurdenera arte. Orduan apurtu zen partidua. Atsedendia-aren aurretik, gasteiztarrek askotan asmatu zuten hiruko marratik, %71ko portzentajearekin, eta horrek eragin zuen gipuzkoarrek askorik ez alde

egitea markagailuan. Denbora pasa ahala, ordea, kategoria desberdinetan diharduten bi taldeen arteko aldea agerikoago egin zen, erritmoari eta alde fisikoari dagokionez, batez ere. Horrez gain, uztaipean ere Gipuzkoa EHUK nagusitasuna erakutsi zuen, bere hiru jokalaririk garaiekin, horietako bi amerikarrak.

Atsedendiko emaitza 41-30 izan zen gipuzkoarren alde; amaierako, aldiz, 80-54. Bi taldeetako entrenatzaileek askotariko probak egiteko aprobeztatu zuten lagunarteko partidua.

Entrenatzeko "lehia ona"

Araski taldeko Arane Uriartek azaldu zuen "EHU talde gogorra" dela eta horrelako lehiak "lan egiteko eta entrenatzeko onak" izaten direla.



Bi taldeetako jokalariek taularen azpian lehia. | JULEN IRIONDO

KORRIKA | Goiena Klubeko bazkideendako

# Korrikako arropa sorta

Goiena Klubeko bazkide bazara, martxoan zozketatuko ditugun Korrikaren arropa sortetako bat zurea izan daiteke.

Sei sorta ditugu. Izan zu ere euskaaldun!



PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Korrika] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Korrika] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

19.korrika  
Urepeletik Bilbora  
2015eko martxoaren 19tik 29raIZAN ZAITEZTE  
EUSKAHALDUN!

goienakluba<sup>™</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com





# FUN DANTZ! 2015

**KALE DANTZEN LEHIAKETA**  
BREAKONSTAGE 2015 SAILKAPENA JOKOAN

**ARETXABALETAKO 2015**  
ARETXABALETAKO KIROLDEGIAN

**MARTXOAK 7**  
LARUNBATA / ORDUA: 19:30ean

TALDEKA: Rest-style, Danceday, Black Diamonds Crew, 8ak bat, Relik, Trouble Line, Elemental, Urban Dölls, New Nation Crew, Fusion´s Noise, B-breath, Cläss, Jumping Jacks.... BIKOTEKA: Broken Heels, Double X Ladies, Smoke Clouds, Ed steps, The walking dance, North Feeling, Estudio c21... JUNIOR Millenium Swag, DDK, Pausokiss, dance-K, 4tunes, Hula-hop, BMB, Bamboo Sticks...

SARRERA: LEIHATILAN 3 €  
AURREZ:  
ARKUPE KULTUR ETXEAN EROSITA 2€



APIRILAK 25 DE ABRIL  
BILBAO ARENA  
WWW.BREAKONSTAGE.COM

# Euskal monologistak, Mostra borobiltzeko

**AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA**  
Asier Hormazak, Maribel Salasek eta Gemma Martinezek itxi-ko dute asteburuan Elgetako Mostra. "Gure artean oso ezagunak dira, ETBko ohikoak dira hirurak. Umorezko telebista ugaritan ikusten ditugu, eta filmetan ere bai. Euren erregistrorik ezagunena antzerkia bada ere, *Stand up comedy*-ra hurbilduko dira oraingoan, bakarriketa formatura, bada", dio Asier Alvarez de Arkaia antolatzaileak.

Bi emanaldi egingo dituzte: gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua; biak ala biak, 22:30ean. Sarrerak 15 eurotan eskura daitezke leihatilan -bazkideek 12 eurotan-, eta *on line* ere bai: *Kulturalive.com* atarian, hain zuzen.

**Hiruren artean saio bakarra**  
Gaztelaz egingo dute ordu eta erdi inguruko saioa. Banan-banan aterako dira eta bakoitzak ordu erdi izango du berriketan egiteko. Gemma Martinez izango da lehenengoa, eta *Terapia de grupo* bakarriketaren zati bat eskainiko duela dio: "Gai askoren gainean jardungo dut: aktoreok izan ditugun askotariko ogibideen inguruan, teknologia berriei buruz, familiaz eta Bibliaz ere bai; baina, bereziki-bereziki, maitasunari buruz".

Asier Hormazak hartuko du lekukoa gero, *Superviviendo* lana izango du abiapuntu: "Manuel Antonio garai bateko poligonero zaharkituaren papelean sartuko naiz. Haren bizimodua eta etxeko kontuak kon-

tatuko dizkizue. Sekretu bat ere argituko du".

Amaitzeko, Maribel Salasek *No os lo váis a creer* ikuskizuna taularatuko duela dio: "Telebistan izan dudana ibilbidea da kontatuko dizuedana. Ezagutu ditudan pertsonaia famatuak... Fikziozko ibilbidea izango da, baina".

## Aurten, ikusle gutxiago

Bakarriketarako krisiari aurre egiteko irtenbide egokia direla dio antolatzaileak: "Ekoizpen ordu gutxiago dute; gastu txikiagoak, beraz. Espaloia oso toki goxoa da, gainera, horrela esan digute aurtengo artistek ere. Sarreraren salmenta, baina, aurrekoekin alderatuz, txikiagoa izan da. Eguraldiatik akaso?".



Txoriak emanaldia. | JOSU MARTIN

## 'Itzalak-Txoriak': Arriagaren eta Laboaren doinuekin dantza emanaldia

Dantzaz Konpainiak dantza garaikide emanaldia ekarriko du bihar Amaia antzokira (19:30)

A. A. | ARRASATE

Arriaga eta Laboa musikariak dantza garaikidearen bitartez batu ditu Dantzaz Konpainiak *Itzalak-Txoriak* ikuskizunean. Ikuskizun bakarrean txertatutako bi emanaldi dira. "Bata bestearekin loturarik ez dute. Garai barrokoan murgilduko gara lehenengoan eta atsedendaldi txikia hartuta egingo dugu bigarrena; Laboaren unibertso zabalean sartuko gara horretan", dio Fernando Saenz de Ugartek, zuzendariak.

Amaia antzokian erakutsiko dute bihar, zapatua, 19:30ean. Sarrerak 10 eurotan eskura daitezke leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian. Gaur, egubakoitza, ikasleentzako saio itxia egingo dute.

## Bi pieza, bi koreografo

Arriagaren musikarekin hasi eta Niña Coyote eta Chico Tornado bikotearen rock doinuekin jarraituz, Paolo Mohovich italiarraren koreografekin, Gortetako giroa irudikatuko dute hamabi dantzarik. "Apaindura barrokoak egingo dituen ile apaintzailea izango dute taularen gainean lagun. Arrasateko emanaldirako prestatu dugun berrikuntza da hori".

Josu Muxika elgoibartarrarenak dira, berriz, *Txoriak* lanaren koreografiak: "Helburua ez da Laboari omenaldia egitea, pertsona moduan nor zen plasmatzea baizik. Musikariak gainera medikua zela erakutsiko dugu, Iñaki Salvadorrek moldatutako kantuak dantzatzuz".

1. Zergatik erabaki zenuen monologista izatea?
2. Zer diozu Euskal Herriko monologisten errealitateaz?
3. Monologisten ogibidean, zein da emakumezkoen egoera?



ASIER HORMAZA  
MONOLOGISTA

**"Pertsonaia baten bitartez aritzen naiz; ohikoa den estilotik aldenduta"**

1. "Aspaldi ibili izan nintzen eta eskaintza jasota itzuli naiz orain. Pertsonaia baten bitartez aritzen naiz ni; beraz, ohikoa den estilotik aldenduta".

2. "Badira ibilbide luzea dutenak eta hasiberriak ere bai, gero eta gehiago. Aktoreen arabera neur daiteke kalitatea; horrenbestez, oso ona dela esango nuke".

3. "Gai batzuk emakumeen ikuspegitik edo gizonen ikuspegitik entzuteko aukera izateak umorea aberasten du".



GEMMA MARTINEZ  
MONOLOGISTA

**"Estilo berezia da hemengo; aktoreak gara monologista izan aurretik"**

1. "Kasualitatez naiz monologista. Orain hamar urte bira bat egiteko proposatu zidaten ETBko lankide batzuek. Esperientzia oso ona izan zen".

2. "Hemen aktoreak gara lehenengo eta monologista gero; estilo berezi bat sortzeko bidea eman du horrek. Harrobia badago, eta etorkizuna ere bai".

3. "Ofizio gehienetan legez, desabantailan gaude emakumeak. Gizonezkoak dira ofizio honetan gehienak, baina bagoaz terrenoa konkistatuaz".



MARIBEL SALAS  
MONOLOGISTA

**"Umoreak ez du generorik; baina nire publikoa bereziki emakumezkoa da"**

1. "Bokazioagatik baino gehiago, beharagatik hasi nintzen, krisiak antzerki eskaintza murriztuta. Gustuko formatua dut; harrera ona da".

2. "Ez gara asko eta ezta horren famatuak ere, baina bagoaz gure tokia eginez. Harriduraz eta harrera onarekin hartzen gaitu publikoak".

3. "Ez dago berdintasunik; ari gara, baina egiteko asko dugu. Umorea unibertsoa da, emakume moduan interesatzen zaizkidan gaiak aukeratu arren".

## Dantzaz Konpainiarekin elkarlanean

Dantzaz Konpainiakoen ekimen bat da Firi-fara programa. Oinarrian dantza emanaldi bat badu ere, beste hiru ekimen ere batzen ditu: emanaldi osteko solasaldia, ikasgelan haurrek dantzari batekin izan ohi duten elkarriketa eta ondoren izaten duten postal bidezko harremana.

Aurten, berez, LHko 4. mailarako da programa hori, baina Arizmendi Ikastolako 5. eta 6. mailetakoa ere gonbidatu dituzte gaurko emanaldira, Dantzagela 2.0 egitasmoan parte hartu dutelako. Iaz hasitako esperientziari jarraipena emanez, Donostiako Dantzaz Konpainiakoen kideek astebete eman zuten azaroan ikasleekin Dantzagela 2.0 egitasmoa lantzen ikastolan bertan. Egitasmoaren helburua da, hezkuntza formala eta ez formala uztartuz, hainbat ikasgaitan, goizez unitate didaktiko bat lantzea gai baten inguruan eta arratsaldean koreografia bat prestatzea. Aurtengo gaia Juan Arriaga musikagilearen *Euskal Mozart-a* izan da. Koreografiak musikagilearen doinuekin sortu zituzten, Dantzaz Konpainiakoen dantzarien gidaritzapean. Ikastolako gune guztietan taularatu zuten emaitza. Iaz bezala, oso proiektu interesgarritzat jo zuten ikasleek, irakasleek eta dantzariek.

# Laburbira dator Arrasatera eta Aretxabaletara, Korrika Kulturalaren barruan

Aitor Arregiren, Asier Altunaren eta Kepa Errastiren lanak daude proiektatuko dituzten filmen artean

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Martxoaren 11n, eguaztena, helduko da Laburbiraren hamabigarren edizioa Arrasatera, 19:00etan, Kulturaten, eta martxoaren 24an Aretxabaletara, 19:00etan, Arkupen.

Zortzi lanek osotuko dute aurtengo emanaldia, euskarazko ikus-entzunezko sorkuntzaren erakusgarri; tartean, Debagoieneko hiru egilerenak: Kepa Errastiren *Aitona Mantagorria*, Asier Altunaren *Zela Trovke* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen*.

Ordu eta laurden iraungo du emanaldiak, eta, Debagoieneko zuzendariekin batera, esperientziadunek, hasiberriek eta bidea urratzen dabiltzan beste bost zuzendariren lanek dute lekua 2015eko edizioan.

## Euskarazko lanak

Euskarazko ikus-entzunezko produktzioa ezagutarazi eta herrietako kultura eskaintza aberasteko helburua du Laburbiraren zirkuituak. Martxoaren 4an hasi zen eta 28ra bitartean Euskal

Herriko 29 herritara helduko da; Debagoienera Korrika Kulturalaren barruan, gainera.

Saio bakoitzean zortzi ikus-entzunezko labur eskainiko dituzte, 2013an eta 2014an sortutakoak. Ordu eta laurden inguruko emanaldietan, sormena, dokumentala, fikzioa eta animazioa uztartzen dituzten ikus-entzunezkoak izango dira. Lan gehienak Durangoko Azokako Irudienea gunean izan ziren pasa den abenduan eta eskainiko diren filmen artean Bizkai-ko Foru Aldundiak antolatutako K-movie bideo lehiaketako irabazlea dago: *Zaunk!*

Dagoeneko hamabigarren edizioa du Laburbirak. Urte hauetan ehunka emanaldi izan dira Euskal Herriko hainbat txokotan eta baita Euskal Herritik kanpo ere. Sortzaileen eta ikusleen arteko iritzi trukea oso aberasgarria izan dela erakutsi du Laburbirak.

# Kaleko dantzen erakustaldia bihar Ibarra kiroldegian

Euskal Herriko puntako kale dantzariak lehiatuko dira bihar Aretxabaletako bigarren Fun Dantz! jaialdian

A. A. | ARETXABALETA

175 kale dantzari hartuko dute parte bihar, zapatua, Aretxabaletako Udalak, BreakOnStage jaialdiarekin elkarlanean, eta iazko arrakastaren ostean, antolatutako Fun Dantz! jaialdian, Ibarra kiroldegian (19:30).

Sarrerak 2 eurotan eskura daitezke gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxean, eta 3 eurotan, berriz, bihar, kiroldegiko leihatilan erosita.

## Publikoaren saria ere bai

34 talde misto izango dira, lau kategoriatan banatuta: gazteak, bikoteka, *breakdance* eta *urban dance*. 15 urtetik beherakoek erakustaldia egingo dute lehiaketan beharrez.

Hainbat sari daude; horietako bat publikoarena da: mugikorrarekin bozkatu ahal izango dute, eta trukean, BreakOnStage jaialdirako sarrerak irabazteko aukera izango dute.



Iazko Fun Dantz! jaialdia. | JAGOBA DOMINGO

## Euskahaldun 'jam session'-a Bergaran

Euskahaldun *jam session*-a egingo dute Bergaran martxoaren 12an, Irizar jauregian, 20:30ean. Musika entzutearekin batera, artistek euskararekin duten harremana noizkoa eta nolakoa den azalduko dute. Shane-k (irlandarra) gitarra jo eta abestu egingo du, Guillek (madrildarra) kaxa joko du eta Laiak (katalana) musikak momentuan iradokitzen diona margotuz inprobisatuko du. Margolariaren erakargarritasuna ez dago margolanari lotuta soilik; izan ere, margotzeko erak ere asko harraritu du ikuslea —gorputz osoa mugituz margotzen du, bi eskuekin batera...—. Ikuskizunean, hiru edo lau kantutan behin, *euskalakari* batek euren jatorriari, euskararekiko harremanari eta bestelako gaiei buruzko galderak egingo dizkie.



Euskararen Egunean egindako saioa. | MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

## Simon Arrietaren lanak ulertzeko azalpenak emango dituzte bihar

O.E. | BERGARA

Bergarako margolari ezagun Simon Arrietaren lanak ulertzeko azalpenak emango dituzte bihar, zapatua, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 12:00etan.

Margolariaren heriotzaren mendeurrenaren barruan antolatuko dute bihar egingo duten lehen margolan-forumean. "Bate-tik, Simon Arrietak Bergarako udaletxean dituen muralen inguruan egingo dugu berba. Horietako bat osoko bilkuren aretora joateko igo behar diren eskaileretan dago; beste bat, zinegotziak bilerak egiteko erabiltzen duten gela batean. Biak

ikusiko eta aztertuko ditugu, historikoki zein teknikoki", azaldu du Beart elkarteko Luis Laskurain margolariak.

Hormako pinturen azalpenak ez ezik, Arrietaren *Katxutxo* margolanaren azterketa ere egingo dute. "Gerra osteko lan bat da, bera Mallorcan egon zen garaikoa, eta horren xehetasunak ere jakingo ditugu", azaldu du Laskurainek.

Margolan-foruma herritar guztiendako izango da irekia. Beart elkarteko kideek margoen gaineko alde teknikoaren azalpenak emango dituzte eta Migel Anjel Elkorobereziabarrek, berriz, historia aldekoak.

Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutuz



## GOIAZ! 2015

Lanbide Heziketaren Azoka  
Apirilaren 15ean eta 16an;  
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza  
Enplegu zerbitzuak  
Ekintzaileentzat zerbitzuak  
Tailerrak eta hitzaldiak  
Aparatuak eta esperimenduak



www.facebook.com/goiazdebagoiena

www.twitter.com/goiazdebagoiena



**E**neko Boya gazteak Arizmendi Ikastolan Eraikuntza Proiektuak goi mailako heziketa zikloa ikasi zuen. Eta egun, unibertsitatean Arkitektura Teknikoa ikasteaz gain, berak sortutako Ekoeraikin enpresaren ardura darama.

## Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?

Garbi nuen Lanbide Heziketako zikloaren bat egin nahi nuela batxilergoaren ondoren. Eraikuntza Proiektuak zikloa lagun batek egin zuen eta harengatik ezagutu nuen, eta, egia esan, pozik nago hartutako erabakiarekin.

## Zuk Lanbide Heziketa eta unibertsitatea, biak ezagutzen dituzu; zeintzuk dira desberdintasun nagusiak? Zer azpimarratuko zenuke?

Lanbide Heziketa askoz gehiago gustatu zait; talde txikiak, praktikoa, irakaskuntza oso pertsonalizatua izan da, eta, gainera, hor jasotako jakintza, batez ere efizientzia energetikoan, oso ona izan da. Lanbide Heziketak ematen duen jakintzari balio handiagoa eman behar diogula uste dut. Askotan ez gara kontziente izaten Lanbide Heziketan ikasi dugulako jaso dugun formazioaren mailaz.

## Eta unibertsitatean zer moduz?

Unibertsitatean azterketarik egin gabe sartu nintzen, notagatik. Eraikuntza arloan ikasten jarraitzen dut,



## Lanbide Heziketak ematen duen jakintzari balio handiagoa eman behar diogula uste dut

baina ez zait askorik gustatzen unibertsitatea. Alde batetik, ikasten ari naizena —Arkitektura Teknikoa— ez zait hainbeste gustatzen, gehiago gustatzen zait Arkitektura. Eta bestetik, inpersonalagoa da.

## Ikaslea izateaz gain, enpresaria ere bazara. Zer moduz doa enpresan?

Merkatuak eskaintzen zituen laneratzeko aukerak ikusita, nire enpresa sortzea erabaki nuen. Ekoeraikin da gure estudioa; arkitekto batek eta biok osatzen dugu, eta eraikinen birgaitzeak eta efizientzia energetikoko proiektuak egiten ditugu. Nahiko ondo doala esan dezakegu.





## ZORION AGURRAK



**ARETXABALETA**  
**Noa Olivenza Iturricastillo**  
Martxoaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean, etxekoen partetik. Bereziki Esti, Laura, Eider, Janire, Irati eta Julen. Muxu asko.



**OÑATI**  
**Kattin Malbadi**  
Martxoaren 11n, 9 urte. Zorionak, *guapisima!* Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



**ORIO**  
**Malen Ayucar**  
Martxoaren 10ean, urtebete. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Txokolatezko muxu pila bat Bergarako familiaren eta, batez ere, Izarren, Ekaizen, Oierren, Eleneren eta Ametsen partetik.



**ARRASATE**  
**Uxue Kortabarria**  
Martxoaren 8an, 5 urte. Zorionak, poxpolintxo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna familiarekin eta laguntxoekin. Muxu handi bana: Naroa, amatxo eta aitaxo.



**ANTZUOLA**  
**Maider Alonso Santa Cruz**  
Martxoaren 8an, 4 urte. Zorionak! Printzesa, oso ondo pasatu zure eguna. Etxekoen partetik, besarkada handi bat.



**OÑATI**  
**Eñeritz Osinaga**  
Martxoaren 8an, 12 urte. Zoriona, *guapa*. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada eta muxu handi bat etxekuen partetik.



**BERGARA**  
**Hodei Elcorobarrutia**  
Martxoaren 8an, 5 urte. Zorionak, Hodei, amatxoren eta aitaxoren partetik. Ondo pasatu zure eguna!



**OÑATI**  
**Unai Sanchez Gomez**  
Martxoaren 7an, urtebete. Zorionak, txiki! Ondo pasatu zure lehen urtebetetzean amatxoren, aitaxoren eta Oierren partetik.



**ARRASATE**  
**Nagore Barandiaran**  
Martxoaren 7an, 7 urte. Zorionak, laztana! Merez duzun bezain ondo ospatu zure eguna! Jaso muxu eta besarkada pilo bat zure familiakoekin partetik. Asko maite zaitugu!



**ARETXABALETA**  
**Ane Zabaleta**  
Martxoaren 7an, 2 urte. Zorionak, Ane! Familiako guztien eta, bereziki, Garikoitzen partetik.



**BERGARA**  
**Haizea Irizar Ibabe**  
Martxoaren 7an, urtebete. Zorionak, Haizea, polit hori! Muxu potolo bat etxeko danen partetik eta jarraitu irrifar zoragarri horrekin.



**OÑATI**  
**Iker Barrena eta Lurdes Arregi**  
Ikerrek otsailaren 28an eta Lurdesek martxoaren 7an. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetzeak eta muxu handi bat bioi, familiaren partetik. Mua!



**BERGARA**  
**Oihana Elorza**  
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak Oñatiko kazetari xarmantgarrienari. Australiatik, Ekuadortik eta Azpeititik, patxo handi bana.



**ARETXABALETA**  
**Markel Arando Pacho**  
Martxoaren 6an, 4 urte. Zorionak, Markel! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta igandean ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu potolo bat: amama, aitaita, Gorka, Norma eta Aitziber.



**ARETXABALETA**  
**Ander Luri Vazquez**  
Martxoaren 5ean, urtebete. Zorionak, Ander! Asko maite zaitugu. Egunez egun gerz eta politago zaude. Patxoak. Amatxu, aita eta Paula.



**BERGARA**  
**Julen Rejano Molina**  
Martxoaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Julen, amatxoren, aitaxoren eta Landerren partetik. Ondo pasatu zure eguna!



**OÑATI**  
**Uritz Zabala**  
Martxoaren 5ean, 5 urte. Zorionak, Uritz, aitaxoren, amatxoren eta Ollaren partetik.



**OÑATI**  
**Malen Diaz Agirregabiria**  
Martxoaren 4an, 5 urte. Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat familia danaren partetik!



**OÑATI**  
**Natale Kortabarria**  
Martxoaren 4an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat danon partetik.



**BERGARA**  
**Aiala Sasieta**  
Martxoaren 3an, 18 urte. Zorionak, neska! Aste honetan bete dituzu urteak. Ondo pasatu eta egun honetaz gozatu. Musu handi bat zure lagun partetik.



**OÑATI**  
**Aine Martinez Lopez**  
Martxoaren 3an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu erraldoi bat familiaren partetik.



**OÑATI**  
**Elene Axpe**  
Martxoaren 3an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Lau urte! Ze azkar pasatzen den denbora. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Txokolatezko mila muxu!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.

Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak>

helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean

Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi:

izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.**


**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



**ARETXABALETA**  
**Andoitz Gomez Iturbe**  
Martxoaren 1ean, 7 urte. Zorionak zure urtebetetzean! Zorionak eta urte askotarako! Zorionak belarritik tiratzean! Zorionak eta musu erraldoiak zuretzeko..



**ARRASATE**  
**Naiara Oroiz Muñez**  
Martxoaren 2an, 8 urte. Zorionak, artista! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean, *preziosa*, eta musu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Nerearen, aitaxoren eta amatxoren partetik.



**OÑATI**  
**Ane Garcia Calzada**  
Otsailaren 28an, 5 urte. Zorionak, maitia! Bost urtetxo jada! Ondo pasatu, etxeko danon partetik.



**OÑATI**  
**Anje Gezalaga**  
Otsailaren 27an, urtebete. Zorionak, maitia! Jada urtetxo bat! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxeko danon partetik!



## ESKER ONA

**Andres  
Alcelay Solana**

2015eko otsailaren 16an hil zen, 89 urterekin.

Lerro hauen bidez Andresen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

*Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.*

Bergaran, 2015eko martxoaren 6an.

## ESKER ONA


**Felix  
Loidi Astigarraga**

Bergaran hil zen 2015eko otsailaren 27an, 94 urte zituela.

Familiak bihotzez eskertzen dizue une latz hauetan laguntzeko prest egon zaretenei eta egun hauetan zuengandik jasotako elkartasun eta maitasun guztia.

Bergaran (Askarruntz), 2015eko martxoaren 6an.

## ESKER ONA

**Felipe  
Aldekoa Irazola**

Bergaran hil zen 2015eko martxoaren 3an, 85 urte zituela.

Feliperen familiaren izenean, eskerrik beroenak azken egunotan ondoan izan zaituztegun guzti-guztiori, adierazi diguzuen babes eta gertutasunagatik, hiletara etorri izanagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Bergaran, 2015eko martxoaren 6an.

## ESKER ONA

**Maitere  
Arenaza Lazkano**

Bergaran hil zen 2015eko martxoaren 2an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2015eko martxoaren 6an.

## OROIGARRIA

**Felix  
Loidi Astigarraga**

Bergaran hil zen 2015eko otsailaren 27an, 94 urte zituela.

*Beti gogoan izango dittugu zure kontakizunak eta azkenera arte emun doskuzun bizitzarako ikasgaixak. Eskerrik asko, tio!*

Lobak.  
Bergaran (Askarruntz), 2015eko martxoaren 6an.

## OROIGARRIA

**Koldo  
Balanzategi Arregi**

Gasteizen hil zen 2015eko otsailaren 26an.

*Mendirako grinak laguntzeko prestutasunak gaixoari aurre egiteko inkemuak egin zintuen maitagarri.*

Zure kuadrillako lagunak.  
Arrasaten, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Rufina  
Celaya Ugarte**

Enrique Leteren alarguna



2014ko martxoaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

*Arantzartean arantza gabe arantzan gara jaikia, Agur amatxo bihotz biguñia grazi beraren jargoia.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi, bihotz-bihotzez, besarkada handi bana familiaren izenean.  
Bergaran, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Felisa  
Zurutuza Aperribai**

Jesus Eguren Irazabalbeitiaren alarguna



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 29an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Arantza  
Urbistondo Gorrotxategi**

Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 17an, 55 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Luisi  
Azpiazu Elorza**

Arrasaten hil zen 2012ko otsailaren 27an, 63 urte zituela.

Hirugarren urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 8an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

*Zein errexa izan zen zu maitatzea, zein zaila zu ahaztea. Zure familia.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Juan Jose  
Garmendia Berezibar**

'Yanyo'




1999ko martxoaren 10ean hil zen.

*Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.*

Zure lagunak  
Arrasaten, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Pilar Gabilondo  
Fernandez de Arroiabe**

2014ko martxoaren 8an hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza astelehenean izango da, martxoaren 9an, 19:00etan, Aretxabaletako agustindar mojen komentuko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Aretxabaletan, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Rosario  
Kortabarria Urrutia**

Cecilio Beitiaren alarguna



Oñatin hil zen 2014ko martxoaren 3an, 105 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingueruaren parrokiari.

*Urtebete pasa da sutondoa dela hutsik, Haitzazpiko zelaia makur ta tristerik, Baina gure bihotzean ez da falta zure iririk, Inoiz ez dugu ahaztuko horrelako amandiarik.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2015eko martxoaren 6an.

## URTEURRENA

**Lorenza  
Anduaga Madina**

2014ko martxoaren 7an hil zen.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 7an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingueruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2015eko martxoaren 6an.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*

maribi 617 44 21 55  
BERGARA

**ESKORIATZA 'Nola belztu behar zuria' ikuskizuna**

Joxan Artzeren poesia liburuetan oinarritutako ikuskizuna egingo dute Bide Ertzean taldeak eta Metrokoadroka kolektiboko Oier Guillan eta Asier Sarasola deklamatzailerak. Zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogeitau inguru errezitatuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 22:30ean.



BIDERTZEAN.COM



JAGOBA DOMINGO

**ARETXABALETA Fun Dantz! jaialdia**

Kaleko dantzen lehiaketa egingo dute. Lau kategoriatan banatuta 34 taldek jardungo dute norgehiagokan. Guztira, 175 dantzari: Donostiatik, Bilbotik, Gasteiztik, Basauritik, Irundik... Bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian, 19:30ean.

**MUSIKA****ANTZUOLA Fly Shit eta Control de Plagas taldeak**

Bergarako Fly Shit taldeak *Barneko ahotsaren bila* diskoa aurkeztuko du. Era berean, Control de Plagas bilbotarrek Guillotina taldearekin grabatutako lana erakutsiko dute. Sarrera, hiru euro.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

**ARRASATE Patxi Luque**

Musika akustikoa alde batera utzi eta kontzertu "indartsua" egingo du antzuolarrak.

Gaur, egubakoitza, Ederra tabernan, 23:00etan.

**BERGARA DJ emanaldia**

Gaztetxoendako saioa egingo dute. Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30ean.

**OÑATI JMG & The MG's**

Juanma Gereñuk, Javier Rodriguezek eta Pedro Kessenguek osatzen dute taldea. Blues eta rock estiloak jorratzen dituzte. Doako emanaldia.

Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

**ARAMAIO Trikiti eta gitarra doinuak**

Emakumeen Astearen barruan, kontzertua egingo dute herriko gazteek trikitiarekin eta gitarrekin.

Martxoaren 11n, Sastiñan, 19:00etan.

**ANTZERKIA****BERGARA 'Nik egin beharko & ko'**

Pantxika Lamur, neska-zaharren erreginaren emanaldia Osintxun. Gaur, egubakoitza, Txuringo tabernan, 22:00etan.

**NON-ZER**

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MARTXOA 6  
MARTXOA 12

**ARETXABALETA 'Prest gaude!' antzezlana**

Alaitz Olaizola, Gurutze Eizmendi eta Idoia Uranga dira Lakrikun taldeko kideak. *Greban gaude!* lanak izandako arrakastaren ostean datoz. *Prest gaude!* ozen oihukatzeko asmoz daude.

Etzi, domeka, Arkupen, 19:00etan.

**ARAMAIO 'Frida Kahlo'**

Frida Kahloren gaineko dokumentala ikusiko dute eta ostean kafe-tertulua egingo dute Itur-Zuri emakume elkarteok.

Martxoaren 10ean, kultura etxean, 18:00etan.

**ARRASATE Euskarazko 8 film labur**

Euskaltzaleen Topaguneak prestatzen duen film laburren zirkuituko emanaldia. Tartean, Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen*, Kepa Errastiren *Aitona Mantangorria* eta Asier Altunaren *Zela Trovke* laburrak emango dituzte.

Martxoaren 11n, eguaztena 19:00etan

**BERGARA 'Lilja 4-ever' filma**

Emakumeendako zikloaren barruan. Sarrera, hiru euro.

Martxoaren 11n, Zabalotegin, 20:00etan.

**GAZTELEKUAK****BERGARA Batzarra**

Aste Santuko programazioa osatu, gaztelekuko urteurrena prestatzen hasi... Horiek guztiak aztertuko dituzte batzarrean.

Gaur, egubakoitza, Xabaloten, 18:30ean.

**BERGARA Wii-a estreinatu**

Olentzerok oparitutako Wii-a estreinatuko dute.

Bihar, zapatua, Xabaloten, 18:00etan.

**UMEAK****ELGETA Ipuinen ordua**

3 urtetik gorako umeendako euskarazko saioa. Sarrera doan.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

**ARRASATE Ipuin kontaketa**

Oihulari Klown taldeko Dorleta Kortazarrek 5 urtetik gorako umeendako saioa egingo du.

Martxoaren 10ean, Santa Marina auzoko bibliotekan, 18:00etan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK****ARETXABALETA 'Arrakala'**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatuta. Dokumentalaren ostean solasaldia egingo dute Larraitz Arandok eta Jone Arrazolak.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.



Arrasateko Udaleri eskerrak

Txalo taldearen "Erdibana" antzezlana ikusteko sarrerak ditugu. Amaia Antzokia. Arrasate  
Martxoaren 15ean, 19:30ean.

**PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 11 BAINO LEHENAGO):**

SMS: KLUBA [Erdibana] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
Telefono: 943 25 05 05 E-posta: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA Erdibana [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa horien helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hieki zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



Antolakuntzari eskerrak

"Mozkorra parregarri" opera komikorako sarrerak ditugu. Udaletxeko pleno aretoa. Bergara.  
Martxoaren 14an, 22:30ean, 15ean 16:30ean eta 19:30ean.

**PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 11 BAINO LEHENAGO):**

SMS: KLUBA [Mozkorra] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira  
Telefono: 943 25 05 05 E-posta: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA Mozkorra [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa horien helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hieki zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

**HITZALDIAK****ANTZUOLA 'Bizikidetzaren artearen bidez landuz'**

Proiektuaren aurkezpena egingo dute herritarren aurrean.

Gaur, egubakoitza, Olaranen, 18:00etan.

**BERGARA Feminismoa eta bertsolaritza**

Feminismotik begiratu dio Ainhoa Agirreazaldegik bertsolaritzari. Hitzaldia egingo du generoak tradizionalki gizonen-koena izan den eremu baten izandako eraginaz.

Martxoaren 13an, Irizarren, 18:00etan.

**BERTSOLARITZA****BERGARA 'Ez da kasualitatea'**

Bertso saio musikatua egingo dute. Sarrerak, lau euro.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 20:00etan.

**OÑATI Arrikutzen bertsotan**

Amets Artzallusek, Aitor Mendiluzek eta Andoni Goitia eta Maider Arregi oñatiarrek jardungo dute bertsotan. Mirari Sagartzazu izango da gai-jartzaile. Sarrerak, 13 euro. Aldez aurretik izena ematea ezinbestekoa da: 943-08 20 00 eta 943-78 34 53.

Etzi, domeka, Arrikutzen, 17:00etan.

**BESTELAKOAK****OÑATI Txandaren 'outlet'-a**

Oñatiko merkatarien elkarteok kide diren denden denboraldiko azken produktuak salgai ipiniko dituzte denden aurrean, prezio merkeetan.

Gaur, egubakoitza, egun osoan, eta bihar, zapatua, 09:00etatik 13:00etara.

**ELGETA Euskal monologistak**

Maribel Salasek, Asier Hormazak eta Gemma Martinezek itxiko dute Monologo Mostra aste bukarran. Euskal umorearen gainean jardungo dute.

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**

Ixadebalde merkealdien azoka egingo dute Aretxarte merkatarien elkarteok.

Bihar, zapatua, Mitarte kalean, 09:30ean.





# Laboral Kutxa Baskonia – FIATC Joventut

partidurako 4 sarrera bikoitzen zozketa

Martxoaren 15ean Buesa-Arenan jokatuko den partidurako (18:00).



**PARTE HARTZEKO:**  
WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Epea: martxoaren 11ra arte.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubideak izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatzeko, helbide honetara idatzita: klub@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# goiena

2015-03-06

## BUKATZEKO



Mider Arregi, Amets Artzallus, Aitor Mendiluze eta Andoni Goitia bertsolariak Arrikruz atzean dela. | ARRIKRUTZEKO ARGAZKIA: SERGIO LARBURU / BERTSOLARIEN ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

# Bertsoen oihartzunak Arrikruzten

- ▶ Lau bertsolari elkartuko dira: Amets Artzallus, Aitor Mendiluze, Mider Arregi eta Andoni Goitia
- ▶ Domekan da saioa, 17:00etan, eta autobusa egongo da joateko; sarrerak aurrez hartu behar dira

### MIRARI ALTUBE | OÑATI

Neguko lozorroaren ostean –erreserbapen bakarrrik zabaldua–, berriro dituzte ateak zabalik Arrikruzteko kobek. Denboraldia indartsu hasi gura dute, gainera, eta martxoaren 15eko Koben Eguna era berezian ospatu. Ekitaldi izarra bertso saioa izango da eta oraingo domekan, martxoak 8, egingo dute. Amets Artzallus, Aitor Mendiluze, Mider Arregi

eta Andoni Goitia bertsolariak elkartuko dira Oñatiko kobetan eta Mirari Sagartazuren gidaritzapean jardungo dute kantari. 17:00etan izango da ekitaldia, eta autobusa egongo da Oñatitik, 16:30ean, hara joateko (itzulera, 18:45 inguruan). Sarrera 13 euro da eta erreserba egin behar da derrigorrez 943-08 20 00 edo 943-78 34 53 telefono zenbakira deituta; 50 lagunendako lekua dago.

### Bertsolariak ere ilusioarekin

Kultura eta ingurumena, bertsoak eta kobak, biak bat eginda. Bertsoak izango dira gidari, kobetako altxorak erakusteko. Hiru geldione egingo dituzte lur azpiko ibilbidean: koloreen gelan; lehoia dagoen inguruan; eta hartzaren irudien gunean. "Ez da ohiko saioa, argi dago; hortaz, gaiak ere natura giroan oinarrituta egongo dira, baina Sagartza-

zuk zabalduko ditu beste bide batzuk ere", dio Urko Egañak, koben ardura duen Oinaturreko kideak, eta gaineratu: "Bertsolariak ilusio handiarekin hartu dute proposamena eta ekitaldi polita izango da, zalantza barik". Hala, etxeko punta-puntako bertsolariak –Arregi eta Goitia– goi mailakoekin batera –Artzallus eta Mendiluze–, parekorik ez duen agertokian.

## AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



## Beltzean mintzo

**E**skoriatzako Zaldibar areto dotorean izan naiz asteon, Garabidek aurkeztutako dokumentalaren aurkezpenean. Lagunartea ederra bildu ginen ekitaldira, eta tertulia ederra sortu zen filmaren amaieran.

Ordubete inguruko filmak jasotzen ditu Garabideren truke programa ospetsuan Euskal Herrira etorritako hamabost latinoamerikarren adierazpenak, betiere hizkuntzarekin lotuak. Dokumentala baliabide xumeekin dago egin eta, hala ere, emaitza bisuala oso txukuna da. Eduki aldetik, berri, dokumentala da oso hunkigarria eta astintzailea.

Bisitariak gogotsu aitortzen dute euskaldunok gure hizkuntza biziberritzeko egin dugun lan bikaina eta zenbateraino garen haien artean erreferente eta akuilu. Hori hain garbi entzutea bada estimagarria, guk sarri auto-ukazio moduko bat egiten dugulako.

Baina haiek gure lorpenekin liluratuta ikustearekin batera, entzuten diegu hizkuntzak nortasuna eta arima ematen diela, mundua ikusteko modu bat dela, edota arbasoekin eta ondorengoekin lotzen dituen haria. Hau da hizkuntzarekiko duten harreman emozionala, maitasuneko.

Guk tresnak eta lorpenak ugari, baina badugu hizkuntzarekin halako emoziorik?

# ARETXABALETA AZTERGAI

GOIENA TELEBISTA | HARIRA

MARTXOAREN 10EAN, 22:00ETAN | ANA BOLINAGA ALKATEAREKIN



HERRI TELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

*Zorionak, aitaxe!*  
 Bidali 'selfie' bat  
**aitarekin**  
 eta erosketa txarteletan  
**500 €**  
 irabaz ditzakezu



Parte hartu ahal izateko, egin gutxienez 10 €-ko erosketa bat eta bidali 'selfie' bat webgunera:

**centrocomercialgorbeia.com**

Oinarri guztiak kontsultatzeko:  
[centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com)



**GORBEIA**

Promozioa indarrean izango da 2015eko martxoaren 6tik 31ra arte

# HASI DA GOIENA TELLEBISTAN JDABERRIKO PROGRAMAZIOA



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena<sup>4</sup>